


# EUSKADI NEXT

Euskadiren Susperraldirako eta Erresilientziarako Programa
2021 › 2026

berpiztu

*Euskadi, auzolana, bien común*

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

**EUSKADI NEXT**
Euskadiren Susperraldirako eta Erresilientziarako Programa
2021 › 2026

**Eusko Jaurlaritza**
Ekonomia eta Ogasun Saila

2021eko maiatza

*Euskadi, auzolana, bien común*

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EUSKADI NEXT

Euskadiren Susperraldirako
eta Erresilientziarako Programa
2021 › 2026

# Tokiko erantzuna erronka global bati aurre egiteko

2021eko maiatzeko eguneratzea

# INDEX

Sarrera 07

1 Zergatik Euskadi Next-en eguneratzea? 13

1.1 SEM-MRR Erregelamendua 14

1.2 36/2020 Dekretua 16

1.3 Konferentzia sektorialak egitea 17

1.4 MDIren abiaraztea 18

1.5 Otsailaren 11ko 1/2021 Legea 29

2 SEM-MRR-REN kudeaketa eta gobernantza hobetzeko iradokizunak 31

2.1 Ikuspegi estrategikoa: Eraldaketatik eta Erresilientziatik Susperraldira 32

2.2 Baliabideen banaketa bat dator funtsen izaera eraldatzailearekin 33

2.3 Norberaren indarguneak eraldaketa-palanka gisa hartuko dituen baliabideen banaketa 35

2.4 Zatiketaren aurkako Xede ikuspegia 37

2.5 Proiektu eraldatzaileen konplexutasuna eta urte anitzeko izaera bere gain hartzen dituen ikuspegi operatiboa 38

2.6 Baliabideak bateratzea eta lerrokatzea, eraldaketarako baliabideak biltzeko 39

2.7 Estatuko eta lurraldeko PERTEak, Eraldaketaren erronkari erantzuteko 40

3 Euskadi Next: espezializazio adimenduneko estrategia bat, susperraldiaren, eraldaketaren eta erresilientziaren zerbitzura 43

3.1 Planteamendu orokorra 44

3.2 Estatuko PERTEei laguntzen dieten trakzio-proiektuak 46

ESTATUKO 1. PERTEA: automobilgintza berde eta konektatuaren industria 48
ESTATUKO 2. PERTEA: energia sorkuntza hidrogeno berdearen bitartez 52
ESTATUKO 3. PERTEA: industria aeroespaziala 53
ESTATUKO 4. PERTEA: nekazaritza jasangarria eta eraginkorra 54
ESTATUKO 6. PERTEA: punta-puntako osasun-sistema nazionalaren garapena 55

3.3 Lurraldeko PERTEak osatzen dituzten trakzio-proiektuak 56

LURRALDEKO 1. PERTEa: bizitza luzea, ongizatea eta erresilientzia. 61
LURRALDEKO 2. PERTEa: Banaketa adimenduneko sareak (ura, gasa eta elektrizitatea) 65
LURRALDEKO 3. PERTEa: Itsas jatorriko energia berriztagarriak 66
LURRALDEKO 4. PERTEa: Gaikuntza zientifikoa eta teknologikoa 67
LURRALDEKO 5. PERTEa: Big data – Cloud – Aa - Zibersegurtasuna 68
LURRALDEKO 6. PERTEa: Euskadi sortzailea 70
LURRALDEKO 7. PERTEa: Hiri jasangarriak 71
LURRALDEKO 8. PERTEa: Klima-aldaketaren, ekosistemen eta biodibertsitatearen aurreko erresilientzia 71
LURRALDEKO 9. PERTEa: Ekoberrikuntza eta ekonomia zirkularra 72

3.4 Euskadi Next programa osatzen duten gainerako ekimenak 74

1. OSAGAIA: Pertsonen osasuna eta zaintza 76
2. OSAGAIA: Bizitza osoko ikaskuntza 80
3. OSAGAIA: Energia berriztagarrien sorkuntza 82
4. OSAGAIA: Mugikortasun jasangarria 85
5. OSAGAIA: Digitalizazioa eta berrikuntza 88
6. OSAGAIA: Hiri-habitata 98
7. OSAGAIA: Habitat naturala eta hondamendi naturalen prebentzioa 102
8. OSAGAIA: Ekonomia zirkularra 104

4 Balorazio ekonomikoa eta lurraldeen arteko oreka 107

1. Eranskina: PRTRen egungo egoera 110

2. Eranskina: Identifikatutako ekimen pribatuak 126





# Sarrera

**EUSKADI NEXT**

2020ko abenduan Euskadi Next 2021-2026 programa aurkeztu zen, eta hori mugarria izan zen covid osteko aroari aurre egiteko erronkari erantzun kolektibo bat emateko; izan ere, aurreko "normaltasunera" itzultzea ez da ez desiragarria, ez bideragarria, ezta egingarria ere. Egia da aurrean ditugun erronkak pandemia baino lehen ere bazeudela, baina egia da, era berean, pandemiak eraman gaituen katarsi indibidual eta kolektiboak orain arte ekarri digunaz bestelako kontzientzia-maila batetik jardun behar dugula onartzeko balio behar digula.

**Duela ia 30 urte, Donella eta Dennis Meadows etorkizun iraunkorraren edo kolapso globalaren artean aukeratu behar zela ohartarazten zuten. Gaur egun, Edgar Morin soziologo frantziarrak, gure bizitzei buruz, munduarekin dugun harremanari buruz eta munduari berari buruz hausnartzera bultzatu egiten gaitu.**

Izan ere, 2008ko krisiak guztioi erakutsi zigun, demokrazia liberalak eta merkatu-ekonomiak iritsi eta sendotzearekin batera, Fukuyamak historiaren amaierari buruz egin zuen profeziak gutxietsi egiten zuela ekosistema instituzional eta naturalaren hauskortasuna, eta covid-19aren pandemiak gure ahultasun indibiduala zein kolektiboa gogorarazten digu.

Gure sistemaren hauskortasunaren eta gure ahuleziaren kontzientzia hartzeak gure mugak eta gure akatsak apaltasunez onartzeko aukera eman behar digu. Denbora daramagu banaka nahi ez ditugun emaitza kolektiboak lortzeko kontzeptuak nahasten. Krisi bakoitzarekin areagotzen ari diren gero eta desberdintasun handiagoek, gero eta ondorio anitzago eta ohikoagoetan nabarmentzen den klima-aldaketak, Donellak eta Dennis Meadowsek 1972an "hazkundearen mugak" txostenean jada ohartarazten zigutena erakusten digute. Txosten hark erakusten zigunez, "Industrializazioak, kutsadurak, elikagaien ekoizpenak eta baliabide naturalen ustiapenak aldaketarik gabe jarraitzen badute Munduko biztanleriaren egungo hazkundeak Lurreko hazkunde-muga absolutuetara iritsiko da datozen ehun urteetan". 20 urte geroago, 1992an, egileek berek beren ondorioak ziurtatu zituzten, eta etorkizun iraunkorraren edo kolapso globalaren artean aukeratu behar zela ohartarazten zuten. Edgar Morin soziologo frantziarrak, 99 urteko adinarekin[1], adierazi duenez, "gure bizitzei buruz, munduarekin dugun harremanari buruz eta munduari berari buruz hausnartzera kondenatuta gaude".

Ezin dugu natura menderatu, ezin ditugu krisi ekonomikoak saihestu, eta ezin ditugu gero eta azkarrago pandemia bihurtzen diren epidemia handiak suntsitu.

Hedapen-abiadura hori globalizazioak aurrera egin duen abiaduran txertatuta dago, duela gutxi arte industriaurreko fase batean bizi ziren eta gaur egun munduko lantegiak jasotzen dituzten planetako zonaldeen hazkundea demokratizatuz. Abiadura horrek kontzeptuak nahastea ere eragin du; izan ere, nahasketak metatu eta gainjarri egiten dira. Hazkundearen eta oparotasunaren arteko, estrategiaren eta kudeaketaren arteko,

helburu eta bitartekoen arteko… nahasmenak demokrazia liberalen sistema degradatzen, eta XX. mendeko garai ilunetara eraman gaitzaketen mugimendu populisten ugaritzea errazten ari dira.

Iraganerako itzulera horretatik ihes egiteko asmoz, Kate Raworth ekonomialariak "Erroskilla ekonomia"[2]. lanean etorkizunera begiratzea proposatzen digu. Bere erroskilla irudiarekin, Nazio Batuen 2030 agendaren logotipoa eta Garapen Jasangarriko 17 Helburuak (GIH) inspiratu dituen irudiarekin, alegia, Oxfordeko Unibertsitatearentzat eta Cambridgeko Unibertsitatearentzat lan egiten duen ekonomialari ingeles horrek XXI. mendeko ekonomialari gisa pentsatzeko zazpi modu aipatzen ditu. Horien artean, nabarmentzekoa da BPGaren aurreko atxikipena alde batera uzteko beharra, hazkundearen eta aurrerapenaren arteko nahasketaren erantzule nagusia baita, eta bere erroskila ospetsuan irudikatutako asmo handiagoko helburu baten alde lan egiteko beharra. Azken hori, "inori falta behar ez zaion ongizatearen gizarte-oinarrian eta gainditu behar ez genukeen planeta-presioaren sabai ekologikoan" laburbil daiteke. Bada, bi muga horien artean dago aurrerapenaren espazioa.

Euskadik, 2019an, biologiaren ikuspegitik produktiboa zen azaleraren 4,32 hektarea kontsumitzen zituen biztanle bakoitzeko (hag/kap), kontsumo-beharrak asetzeko. Hori da, nolabait esateko, gure aztarna ekologikoa. Eta, hala ere, planetako biztanle bakoitzak 1,63 hektarea global (hag/kap) ditu; horrek esan nahi du, planetako biztanle guztiek Euskadiko biztanleen kontsumo-eredu berak jarraituko balituzte, biologiaren ikuspegitik produktiboa den planetaren azalera 2,6 aldiz handiagoa izan beharko litzatekeela. Ez da kontsolagarria Euskadiko zifra horiek Europako batez bestekoaren, ezta Alemania, Suedia, Norvegia, Belgika, Herbehereak edo Austria bezalako estatu kideen zifren azpitik egotea.

[1] Morin, E., (2020), Changeons de voie: les leçons du coronavirus, Denoël.
[2] Raworth K., (2018), Economía rosquilla: 7 maneras de pensar la economía del siglo XXI, Paidós.

“Krisiak aukera paregabea sortu du silo sektorialen eta teknologikoen segmentazio tradizionaletik haratago doazen politika ekonomikoak garatzeko, interes publikoko helburuetan oinarritutako gobernantza-ereduak berrezarriz”.

**Mariana Mazzucato, ekonomialari.**

Horixe da pandemia aurreko errealitatea, eta gure esku dago bake garaiko aurrekaririk gabeko krisi hau eraldaketarako aukera bihurtzea. Gure “kontsumo-gizartea” “inbertsio-gizarte” bihurtzeko aukera da, giza garapen jasangarriaren erronkei aurre egiteko, susperraldia, eraldaketa eta erresilientzia oinarri hartuta, eta, horrela, 2009tik 2019ra bitartean % 40ko beherakada ekarri zuen atzeraldi Handiaren ostean BPGren % 1,1ean egonkortu eta minimo historikoetan geratu zen zerga-kontsolidazioaren ondoriozko doikuntza lehengoratzeko. Orduan ez bezala, suspertzeko, eraldatzeko eta erresilientziarako motor gisa jardun beharko du inbertsioak, bere ondorio biderkatzaileak eta produktibitatean eta zerbitzu publikoen mailan duen eragina kontuan hartuta.

Mariana Mazzucatok dioen bezala, krisiak aukera paregabea sortu du silo sektorialen eta teknologikoen segmentazio tradizionaletik haratago doazen politika ekonomikoak garatzeko, interes publikoko helburutan oinarritutako gobernantza-ereduak berrezarriz. Formula hori behin eta berriro aipatzen du bere azken liburuan, gobernuek arrisku-kapitaleko erakunde gisa jarduten duten inbertitzaile gisa duten zeregina defendatzeko, ez ekimen pribatua ordezkatzeko, baizik eta alderantziz, ekimen hori apaltzeko eta aurrean ditugun planetaren erronketara bideratzeko[3].

Next Generation EU ekimena inbertsio publikoaren aldeko apustu horri heltzeko aukera da, garapenerako motor gisa, palanka-efektu gisa, berotze globalaren aurkako borrokan aurrera egiteari uzteko. Apustu hori ez da soilik inbertsio-bolumenari dagokionez egin behar; aitzitik, antolatzeko modu berriak ekarri behar ditu, EBk Next Generation EU izenekoaren bidez egin nahi dituen energia-eraldaketa ekologiko eta digitalen azpian dauden xedeen konplexutasunari aurre egin ahal izateko.

[3] Mazzucato, M., (2021), Mission Economy: A Moonshot Guide to Changing Capitalism.

EUSKADI NEXT

Erronka hori are garrantzitsuagoa da Susperraldi eta Erresilientzia Mekanismoa (SEM-MRR) eraldaketarako palanka gisa ulertzen badugu, eta gure ustez hala izan behar da. Ekonomiaren susperraldia eraldaketaren eskutik etorriko da; eraldaketa, berriz, ez da nahitaez susperraldiaren eskutik etorriko. Tesi horretan oinarritzen da Euskadi Nexten planteamendu berritua. Next Generation EU ekimena, hain zuzen ere, hurrengo belaunaldien oparotasunerako eta aurrerapenerako oinarriak ezartzeko dago pentsatuta, beraiei mundu hobea uzteko ardura dugulako. BPGren hazkundeari dagokionez susperraldi hutsak ez du beharrezko eraldaketa hori bermatzen. Aitzitik, susperraldiaren eta eraldaketaren arteko "trade-off" bat gertatuko da. Horregatik, SEM-MRRk lehentasuna eman behar die eraldaketari eta erresilientziari.

Hala, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren funts horien inguruan gaur egun dagoen egoera eguneratu ondoren, dokumentu honek SEM-MRR funtsen izaera eraldatzailea eta horien diseinuan eta kudeaketan maila anitzeko gobernantzaren izaera hobetzeko ezar daitezkeen hobekuntzetarako iradokizunak jasotzen ditu.

Eta, hobetzeko iradokizun horiekin bat etorriz, irismen eraldatzaile handiena duten proiektuak nabarmentzeko Euskadi Next programaren berrikuspena planteatzen da. Alde batetik, Espainiako Gobernuak identifikatuko dituen 10 PERTEetan oinarrituta Estatuaren apustu handiei Euskadik egindako zuzeneko ekarpena, eta, bestetik, Euskadiko espezializazio adimendunaren estrategiarekin eta 8 xedeekin bat datozen eta Euskadi Next programan jasotzen diren trakzio-proiektuak eta eraldatzaileak bereizten dira. Horrela, estatuko PERTEak, espezializazio adimendunaren estrategiarekin lerrokatuta dauden lurralde mailako PERTEekin osatzen dira. Horrez gain, deialdi, lizitazio publiko eta abarren bidez gauzatu ahal izango diren proiektuak azaltzen dira, EAEko eragile publiko zein pribatuek dituzten balio-proposamenei erantzuteko mekanismo gisa.





# 1 /

# Zergatik Euskadi Next-en eguneratzea?

## ERALDAKETA ETA ERRESILIENTZIA LEHENETSIZ

Euskadi Next programa eguneratzeko lehen arrazoia Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren funtsen erabileran eraldaketaren eta erresilientziaren aldeko apustua da. Sarreran adierazi bezala, eraldaketa eta erresilientzia lehenesteak aurrerapen gisa ulertutako susperraldia ekarriko du, eta ez soilik BPGren hazkunde gisa ulertutakoa. Suspertzeari lehentasuna emateak, berriz, ez ditu beharrezko eraldaketa eta erresilientzia bermatzen.

Horrez gain, 2020ko abenduaren 29an Euskadi Next programa aurkeztu zenetik, aurrerapauso esanguratsuak eman dira funtsen kudeaketarekin eta gobernantzarekin zerikusia duten eta kontuan hartu behar diren gaien ezagutzan. Hauek dira garrantzitsuenak.

# 1.1/ SEM-MRR Erregelamendua

## Susperraldi eta Erresilientzia Mekanismoa

**Joan den otsailaren 12an, Europako Parlamentuan eta Kontseiluan, Susperraldi eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duen 2021/241 Erregelamendua onartu zen. Erregelamenduaren aurreko 75 kontuan hartuzkoen artean, honako hauek azpimarra daitezke:**

## 6. kontuan hartuzkoa

2020. urtearen hasieran hasi zen COVID-19aren agerraldiak Batasuneko eta mundu osoko ekonomia-, gizarte- eta aurrekontu-ikuspegiak aldatu zituen, eta premiazko erantzun koordinatua eskatzen du, bai Batasun mailan, bai nazio mailan, ondorio ekonomiko eta sozial izugarriei aurre egiteko, eta baita estatu kideentzako ondorio asimetrikoei ere. COVID-19aren krisiak, aurreko ekonomia- eta finantza-krisiak bezala, agerian utzi du ekonomia eta finantza-sistema eta gizarte-babes sendo, iraunkor eta erresilienteen garapenak, egitura ekonomiko eta sozial sendoetan oinarritutakoak, lagundu egiten diela estatu kideei asaldurei eraginkortasun handiagoz eta modu justu eta inklusiboan erantzuten, eta egoera mota horietatik azkarrago suspertzen laguntzen diela. Erresilientziarik ezak zeharkako ondorio negatiboak ere izan ditzake, estatu kideen arteko edo Batasun osoaren barruko asalduren ondorioz, Batasuneko konbergentzia eta kohesioa zailduz. Hezkuntza, kultura eta sormen-sektoreetan eta osasun-arretan gastua murriztea kaltegarria izan daiteke susperraldi azkarra lortzeko. COVID-19aren krisiak epe ertain eta luzera izango dituen ondorioak, funtsean, estatu kideetako ekonomiek eta gizarteek krisi horretatik suspertzeko duten azkartasunaren araberakoak izango dira, eta hori, aldi berean, estatu kideek krisiaren eragin sozial eta ekonomikoa arintzeko neurriak hartzeko aurrekontuetan duten maniobrarako tartearen eta ekonomia eta gizarte-egituren erresilientziaren araberakoa izango da. Erreforma eta inbertsio jasangarriak eta hazkundearen aldekoak, estatu kideetako ekonomien egiturazko ahuleziei heltzen dietenak, erresilientzia indartzen dutenak, produktibitatea handitzen dutenak eta estatu kideen lehiakortasun handiagoa lortzen dutenak, funtsezkoak izango dira, beraz, ekonomia horiek berriro bideratzeko eta Batasuneko desberdintasunak eta desadostasunak murrizteko.

## 7. kontuan hartuzkoa

Iraganeko esperientziek agerian utzi dute krisialdietan inbertsioak nabarmen murriztu ohi direla. Hala ere, funtsezkoa da egoera partikular horretan inbertsioak babestea, susperraldia bizkortzeko eta epe luzera hazteko ahalmena indartzeko. Behar bezala funtzionatzen duen barne-merkatua eta teknologia ekologiko eta digitaletan, berrikuntzan eta ikerketan, bereziki ezagutzan oinarritutako ekonomian, energia garbirako trantsizioan eta etxebizitzan eta ekonomiaren funtsezko beste sektore batzuetan energia-eraginkortasuna bultzatzeko inbertsioak garrantzitsuak dira hazkunde zuzena, integratzailea eta jasangarria lortzeko, enplegua sortzen laguntzeko eta 2050erako EBren klima-neutraltasuna lortzeko.

## 8. kontuan hartuzkoa

COVID-19aren krisiaren testuinguruan, beharrezkoa da estatu kideei laguntzeko egungo esparrua

indartzea eta zuzeneko finantza-laguntzak ematea tresna berritzaile baten bidez. Horretarako, estatu kideetan erreforma jasangarriak eta lotutako inbertsio publikoak areagotzeko finantza-laguntza esanguratsua eta eraginkorra emango duen Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa (aurrerantzean, “Mekanismoa”) sortu behar da. Mekanismoak, Batasuneko COVID-19aren krisiaren eragin eta ondorio kaltegarriei aurre egiteko berariazko tresna izan behar du. Globala izan behar du, eta Batzordeak eta estatu kideek beste tresna eta programa batzuk erabiltzen lortutako esperientziaren onura ere izan behar du. Inbertsio pribatuak inbertsio publikoko programen bidez ere susta daitezke, bereziki finantza-tresnen, diru-laguntzen eta bestelako tresnen bidez, betiere estatuko laguntzen arloko arauak errespetatzen badira.

## 20. kontuan hartuzkoa

Mekanismoak Batasunaren finantzaketaren gehigarritasun-printzipioa errespetatzen duten proiektuak babestu behar ditu. Mekanismoak ez ditu gastu nazional arruntak ordezkatu behar, behar bezala justifikatutako kasuetan izan ezik. Hala jasotzen du 5. artikuluak (“Printzipio horizontalak”).

## 34. kontuan hartuzkoa

Lurraldeko eta tokiko agintariak bazkide garrantzitsuak izan daitezke erreformak eta inbertsioak aplikatzeko orduan. Horri dagokionez, behar bezala partaide bilakatu eta kontsultatu egin behar zaie, esparru juridiko nazionala kontuan izanda. Horren ildotik, erregelamenduaren 18. artikuluak (Susperraldi eta erresilientzia plana) zehazten du planak, besteak beste, plan hori prestatzeko eta aplikatzeko kontsulta-prozesuaren laburpena jaso behar duela, tokiko eta lurraldeko agintarien, gizarteko solaskideen, gizarte zibileko erakundeen, gazte-erakundeen eta beste alderdi interesdun batzuen esparru juridiko nazionalaren arabera, eta baita plan horretan Alderdien ekarpenak nola islatzen diren ere.

## 64. kontuan hartuzkoa

Funtsak modu eraginkorrean eta koherentean esleituko direla bermatzeko eta finantza-kudeaketa onaren printzipioa errespetatzeko, Erregelamendu honetan aurreikusitako ekintzek koherenteak izan behar dute une horretan indarrean dauden Batasunaren programekin, eta horien osagarri izan behar dute, eta Mekanismotik eta Batasunaren beste programa batzuetatik datozen gastu berberen finantzaketa bikoitza ere saihestu behar dute. Bereziki, Batzordeak eta estatu kideak, prozesuaren etapa guztietan, koordinazio eraginkorra bermatu behar dute, finantzaketa-iturrien arteko koherentzia, osagarritasuna eta sinergia babesteko. Horretarako, estatu kideei eskatu behar zaie, suspertze eta erresilientzia planak Batzordeari aurkezten dizkiotenean, lehendik edo aurreikusita dagoen Batasunaren finantzaketari buruzko informazio egokia aurkez dezatela. Mekanismoak aurreikusten duen finantza-laguntza Batasunaren beste programa eta tresna batzuen barruan emandako laguntzari gehitu behar zaio, InvestEU programa barne. Mekanismoaren arabera finantzatutako erreformek eta inbertsio-proiektuek Batasunaren beste programa eta tresna batzuetatik jaso ahal izango dute finantzaketa, baldin eta laguntza horrek ez badu kostu bera estaltzen (9. artikuluan ere jasota dago: gehigarritasuna eta finantzaketa osagarria).

# 1.2/
# 36/2020 Dekretua

**Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzeko premiazko neurriak onartzen dituen abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuak suspertze funtsak kudeatzeko zenbait printzipio eta planteamendu jasotzen ditu, eta "medio naturalak ezarritako mugak errespetatzen dituzten eta klimaren aldetik neutroak, jasangarriak, zirkularrak eta baliabideen erabileran eraginkorrak diren ekonomiarantz eta gizarterantz igarotzeko inbertsioak, eraldaketak eta egiturazko erreformak abian jartzeko orientazio argia ematen du.**

Era berean, España Digital 2025 agenda hedatuko da, honako hauek bultzatzeko: konektibitatea eta zibersegurtasuna, Administrazioaren eta ekoizpen-sarearen digitalizazioa, gizarte osoaren gaitasun digitalak eta adimen artifizialaren arloko berrikuntza disruptiboa. Gainera, hezkuntza eta lanbide-heziketa, zientzia eta berrikuntza, zainketen ekonomia, osasun-sistema publikoa eta sektore eragileen modernizazioa bultzatuko dira, etorkizunean hazkunde jasangarriagoa eta inklusiboagoa lortzeko, ekonomia produktiboagoa, gizarte kohesionatuagoa eta herritar guztien balio konstituzionalen eta eskubide indibidual eta kolektiboen babesean oinarritutako aurrerapena eskuratzeko."

Erronka horri heltzeko, lege-dekretuak lankidetza publiko-pribatuaren figura berri bat jasotzen du 8. artikuluan: Ekonomia Suspertzeko eta Eraldatzeko Proiektu Estrategikoak (ESEPE-PERTE). Izaera estrategikoa duten proiektuak dira, gainerako ekonomiarentzat arrastatze-ahalmen handia dutenak, eta beren eragiketak eskalatzea lortzeko administrazioen, enpresen eta ikerketa-zentroen arteko lankidetza eskatzen dute. Europako interes komuneko proiektu garrantzitsuetan (IPCEI) oinarritzen da, sektore estrategikoetan egiturazko eragin eraldatzailea duten edo ikerketa eta berrikuntza disruptibo eta asmo handiko faseak dituzten trakzio-proiektuak biltzen ditu, sektore horretan teknikak duen egoeratik harago, eta, ondoren, industriako lehen hedapen bat. Proiektu horiei lotutako arriskuen neurriak eta funtsak bideratzeko eta sinergiak sortzeko maila desberdinetan lankidetzan aritzeko beharrak figura bereizi bat eskatzen dute, laguntza emateko eta eragiketak eskalatu ahal izateko.

Horrez gain, 14tik 19ra bitarteko artikuluetan, gobernantza-organoak sortzea jasotzen da, eragile ekonomiko, sozial eta politiko nagusien proposamenak bilduko dituen partaidetza-prozesu bat bermatzeko, eta, aldi berean, administrazio-maila desberdinekin koordinatzeko beharrezko mekanismo gisa balio izateko. Zehazki, Gobernuko Presidentea buru izango den, eta batzorde horri laguntza emango dion Batzorde Tekniko batek ere osatuko duen Susperraldi, Eraldaketa eta Erresilientziarako Batzorde bat sortzen da.

Era berean, Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren Konferentzia Sektoriala sortuko da, autonomia erkidegoekin eta hiri autonomoekin. Ogasun Ministerioko titularra izango da buru. Horren helburua autonomien estatu-sistema espainiarraren berezko lurralde-maila anitzeko gobernantza bideratzea eta Planaren ezarpenean lankidetzarako eta koordinaziorako mekanismoak eta bideak ezartzea izango da. Kasu honetan, deigarria da lankidetza eta koordinazioa planaren ezarpenera mugatzea, eta ez planaren beraren diseinura, suspertze eta erresilientzia mekanismoaren erregelamenduaren 18. artikuluak zehazten duen bezala.

Azkenik, Gobernuaren eta Plana gauzatzen parte hartzen duten gainerako eragileen arteko lankidetza arina eta erregularra izan dadin, goi-mailako foroak eta kontseiluak sortuko dira planean inplikatutako sektore nagusiekin.



# 1.3/ Konferentzia sektorialak egitea

**36/2020 Lege Dekretuaren 44. artikuluak ezartzen duenez, gobernu zentraleko ministerioen eta autonomia erkidegoetako gobernuetako sailen artean egiten diren konferentzia sektorialak baliagarriak izango dira autonomia erkidegoek kudeatzen dituzten diru-laguntzetarako funtsak banatzeko irizpideak onartzeko (ALOren 86. artikulua), urte anitzeko izaerarekin, kudeaketa hobeto planifikatu ahal izateko.**

Orain arte, konferentzia sektorialak egin dira, eta horiei esker, SEEP-PRTRaren osagaiei lotutako inbertsio-ildoen xehetasunak ezagutu ahal izan dira. Konferentzia horiek, batzuetan, inbertsio-ildoen araberako epealdi osorako edo, gutxienez, 2021. urterako inbertsioen bolumena ezagutzeko balio izan dute. Batzuetan, funtsak autonomia erkidegoen artean banatzen direnean banatzeko irizpideak eta dagozkien zenbatekoak jakinarazteko ere balio izan dute.

Konferentzia horiek baliagarriak izan dira autonomia erkidegoei transferitutako baliabideekin egin beharreko inbertsioen zehaztapen xehatuak helarazteko, eta funts horiek baliabideak transferitzen zaizkien politika publikoen garapenera egokitzeko maniobrarako tarte txikia utzi dute; are gehiago, autonomia erkidegoen eskumen esklusiboa diren politiketarako. Ildo horretan, konferentzia sektorialak ezin dira autonomia-erkidegoek parte hartzeko gunetzat hartu; izan ere, Gobernu zentralak bere kabuz hartutako erabakiak jakinarazteko baino ez dute balio izan.

# 1.4/ MDIren abiaraztea
## (Intereseko Adierazpenak)

| INTERESEKO ADIERAZPENA | MINISTERIOA | OSAGAIA |
|---|---|---|
| Europako “Digital Innovation Hubs” (EDIH) sareko kide izan nahi duten hautagai potentzialak | Industria, Merkataritza eta Turismoa | Erakundeen erreforma eta zientzia, teknologia eta berrikuntza sistema nazionalaren gaitasunak indartzea |

Batetik, Batzordeak sustatutako Europako DIH Sarean parte hartzeko interesa duten hautagai nazionalak identifikatzea, eta, bestetik, hautagai potentzialen egungo egoera ezagutzea.

Informazio bikoitz hori abiapuntu gisa hartuta, aurre-hautaketa nazionalaren prozedura errazteaz eta arintzeaz gain (aurkezpen-iragarki hau prozedura horren atariko elementu bat da), kalitate-proposamenen aurkezpena sustatu nahi da, Europako Batzordeak ezarri dituen eta ekosistema nazionalaren ezaugarriak modu koherentean kontuan hartuko dituzten jarraibide espezifikoei erantzuteaz gain, hautaketa-aukerak handitzeko.

| INTERESEKO ADIERAZPENA | MINISTERIOA | OSAGAIA |
|---|---|---|
| Energia-trantsizio justu eta inklusiborako trakzio-proiektuak: Hidrogeno Berriztagarria | Trantsizio Ekologikoa eta Erronka Demografikoa | Hidrogeno berriztagarriaren ibilbide-orria eta horren integrazio sektoriala |

Hidrogeno berriztagarriko proiektu kaudimendunak Espainian. Horiek identifikatzea eta lokalizatzea da helburua, balio-kate osoan, industria-garapenean eta enpleguan duten eragina behatuz, eta baita ekonomian, deskarbonizazioan eta gizarte- eta lurralde-kohesioan duten eragin eraldatzailea ezagutzea ere.



**Estatuko Administrazio Orokorrak orain arte oso ohikoa izan ez den jardunbidea zabaldu du hilabete hauetan, Intereseko Adierazpenak (MDI), hain zuzen ere. Formula horri esker, eragile publikoak eta pribatuak mugiarazi ditu, Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren (SEEP-PRTR) 30 osagaietan jasotako inbertsio-ildoen hedapenaren esparruan gauzatu beharreko proiektuak osatzen joan daitezen.**

**INTERESEKO ADIERAZPENA** | **MINISTERIOA** | **OSAGAIA**

## Erronka demografikoa eta baso-soiltzearen aurkako borroka

**Ministerioa:** Trantsizio Ekologikoa eta Erronka Demografikoa

**Osagaia:** Etxebizitza birgaitzeko eta hiri-berroneratzeko plana

5.000 biztanletik beherako udalerrietan proiektuak egitea, honako jarduera hauek gauzatzeko, besteak beste:

- Energia-trantsizioa bultzatzea, energia jasangarri eta eskuragarritik abiatuta jarduera eta biztanleria erakartzeko palanka gisa: energia-komunitateak, energia-eraginkortasunaren hobekuntza eta ingurune eraikiaren eta landa-inguruneko etxebizitzen birgaitzea, berriztagarrien hedapena eta mugikortasun jasangarria barne.
- Bioekonomia bultzatzea, baliabide endogenoen aprobetxamendu jasangarriaren bidez (nekazaritzakoak, basogintzakoak, biodibertsitatea babesteari lotutakoak, etab.).
- Saneamendua eta arazketa landa-guneetan.
- Konexio digitala estaldura zaileko landa-eremuetan, banda zabalean zein mugikorrean.
- Turismo-jomuga jasangarriak landa-ingurunean.
- Ondarea berreskuratzea eta kultura-proiektuak zabaltzea.
- Pertsonei arreta eta zaintza ematea landa-eremuetan edo biztanle gutxikoetan.
- Gizartea eraldatzeko proiektuak.

## Industria Lehiakortasuneko eta Iraunkortasuneko Trakzio-proiektuak Bultzatzeko Programa

**Ministerioa:** Industria, Merkataritza eta Turismoa

**Osagaia:** Espainiako 2030erako industria-politika

Berrikuntzan eta digitalizazioan zentratuak, honako hauetan:

- Energia eraginkortasuna eta energia jasangarriko iturri berriak.
- Ekonomia zirkularra eta eko-berrikuntza.
- Balio-kateen hobekuntza.
- Deskarbonizazioa.
- Materialak eta produktu aurreratuak.
- Kalitate eta segurtasun industrialeko prozesuen hobekuntza.
- Enpresaren balio-katearen interkonexio-plataformak.
- Datuen tratamendu aurreraturako soluzioak.
- Adimen artifizialeko soluzioak.
- Industria-simulazioko proiektuak.
- Diseinu eta fabrikazio aditiboa.
- Errealitate handituko, errealitate birtualeko eta ikuspen artifizialeko industria-proiektuak.
- Robotika kolaboratiboa eta kognitiboa.
- Sentsorika.

Proiektuak bultzatzailea eta kooperatiboa izan behar du. Baterako proiektua egituratzeko enpresa lider bat zehaztea eskatuko da, eta bauta gutxienez 5 erakunde parte-hartzailek parte hartzea ere. Proiektua egiteko interesa duten enpresa edo erakundeez gain, gutxienez % 40k ETE kategoria izan beharko dute. Ondorioak gutxienez bi autonomia erkidegotan. Gutxieneko inbertsioa: 40 milioi euro.

## Mugikortasun elektrikoa: parke mugikorra berritzeko eta elektrifikatzeko azpiegitura

Trantsizio Ekologikoa eta Erronka Demografikoa

Mugikortasun jasangarria, segurua eta konektatua, mugikortasun elektrikoa bultzatzea

- Birkarga azkarreko edo ultralasterreko azpiegitura-korridoreak, lurralde osoa hiriarteko garrantzi bereziko errepideetan egituratu ahal izateko, zenbait autonomia erkidegotako lurralde-eremuan, edo inguruko herrialdeetako korridoreekin jarraitutasuna sortuz.
- Kargatzeko azpiegitura bereziak (sorkuntza berriztagarriari, biltegiratzeari edo kudeagarritasunari lotutakoak; beste garraiobide batzuekiko intermodalitatea, etab.).
- Helmugan kargatzeko azpiegituraren hedapen orokorra (bizitegi- eta merkataritza-eremuetan, jendearentzat irisgarriak diren aparkalekuetan, enpresa-floten erabilera pribatuan…).
- Berrikuntza mugikortasun elektrikoaren balio-katean (ibilgailu berrien garapena, kargatzeko azpiegitura edo negozio-ereduak, etab.).
- Ibilgailuen parkea berritzea (flotak ordeztea, banakako ibilgailuak, ibilgailuak erabiltzeko eredu berriak…).

## Oso abiadura handiko banda zabala lurralde osora zabaltzea eta 5G estaldura aurreratzea, lurralde-kohesioa eta eraldaketa digitala bultzatuz

Gai Ekonomikoak eta Eraldaketa Digitala (MINECO)

Konektibitate digitala, zibersegurtasuna bultzatzea eta 5G hedatzea

Lankidetza publiko-pribatuko eredu bat garatzea ahalbidetzen duten proiektuak, mugikortasunean banda zabala eta oso abiadura handiko banda zabala lurralde osora hedatzeko eta landa-eremuetan 5G estaldura aurreratzeko.

## Tokiko energia-komunitateak

Trantsizio Ekologikoa eta Erronka Demografikoa

Etxebizitza birgaitzeko eta hiri-berroneratzeko plana

- Prestakuntza dakarten edo sustatzaile gisa energia-komunitateak dituzten proiektuak, besteak beste: energia berriztagarriko ekoizpen elektrikoa, autokontsumorako edo sarera entregatzeko; beroa edo/eta hotza energia berriztagarriarekin ekoiztea; beroa edo/eta hotza banatzeko sare proiektua; energia-eraginkortasuneko zerbitzuak; mugikortasun jasangarriko zerbitzuak edo ibilgailu elektrikoak kargatzeko zerbitzuak.
- Erakunde publikoei, norbanakoei eta elkarteei laguntza teknikoa eta aholkularitza ematea, horrelako ekimenak sustatzeko.
- Merkatu-azterketak eta ibilbide-orriak egitea, komunitateek abian jarri ahal ditzaten.
- Sustapen-jarduketak eta informazio, prestakuntza eta gaitasunaren garapeneko lanak.
- Sozietate- edo finantza-partaidetzako proiektuak energia-komunitateen eta parte-hartze sozialaren esparruan.

| INTERESEKO ADIERAZPENA | MINISTERIOA | OSAGAIA |
|---|---|---|
| **Energia jasangarria Irletan** | Trantsizio Ekologikoa eta Erronka Demografikoa | Sorkuntza berriztagarria hedatzea |

Irletan energia jasangarria sustatzeko proiektuak, ekimenak edo jarduketa-ildoak.

| | | |
|---|---|---|
| **Ekonomia zirkularra sustatzea enpresa arloan** | Trantsizio Ekologikoa eta Erronka Demografikoa | Espainiako 2030erako industria-politika |

- Negozio-eredu garbiagoak eta zirkularragoak sustatzeko inbertsioak, eta baita gaitasunak, teknologia adimendunak, baliabideetan ekoizpen eraginkorra lortzera bideratutakoak, alderantzizko logistika-ereduak, berrerabiltzeko produktuen eta itzulera-ereduen ordez zerbitzuen kontsumo-ereduak eta funtsezko balio-kateetan berregokitutakoak ere (adibidez: plastikoak, ehunak, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak, eraikuntza-sektorea, bateriak, bio-hondakinak, etab.).
- Birmanufaktura-jardueretako inbertsioak automobilaren, arlo aeroespazialaren, ekipamendu medikoaren, altzarien eta bestelakoen sektoreetan.
- ETEen eta gizarte-ekonomiako erakundeen proiektuei laguntzea, honako hauek lortzeko: produktuen birziklatze-edukia handitzea; produktu zirkular seguruak diseinatzea, iraunkortasuna, konpongarritasuna eta birziklagarritasuna areagotzeko, zaharkitze goiztiarraren aurka borrokatzeko, piezak ordezteko eta bizi-zikloan zehar ingurumen-portaera hobetzeko; konponketa- eta birmanufaktura-jardueretan eta zerbitzuen kontsumoan inbertitzea; erabilera bakarreko produktuak ordeztea eta materialetan eta produktuetan gai arriskutsuak murriztea/ordeztea.
- Industria-sinbiosiarekin zerikusia duten enpresen arteko proiektuak, bigarren mailako lehengaien zirkulartasuna errazteko, materialen industria-sinbiosia sustatzeko aukera ematen duten merkataritza-sareak garatzeko, etab.

| | | |
|---|---|---|
| **Energia berriztagarriak sustatzeko mekanismoak identifikatzea** | Trantsizio Ekologikoa eta Erronka Demografikoa | Sorkuntza berriztagarriko parkea hedatzea |

- Teknologia berriztagarrien ingurumen- eta lurralde-integrazioa optimizatuko duten teknologia, teknika edo praktika berriak.
- Industria deskarbonizatzea eta berriztagarri termikoak integratzea prozesu industrial edo produktiboetan, eta baita zerbitzuen sektorean ere.
- Autokontsumo elektriko berriztagarria sustatzea azken kontsumoaren, eraikuntzaren, oro har, baina baita industriaren, zerbitzuen eta nekazaritzaren sektoreetan ere.
- Itsas energiak garatzea, beraien balio-katea barne.
- Energia berriztagarrien bizi-zikloari lotutako balio-katea.
- Bioenergia jasangarria garatzea eta haren balio-katearen garapena indartzea.
- Energia berriztagarrien berrikuntza garatzea.
- Negozio-eredu berritzaileak, energia berriztagarriak sektore elektrikoan eta energia-kontsumoaren azken sektoreetan hedatzen eta integratzen laguntzeko.
- Dinamizazio-, kontzientziazio- eta prestakuntza-proiektuak, hala nola hezkuntza-zentroak edo hiri/landa inguruetako laborategiak energiaren edo/eta gobernantzaren arloan.

| INTERESEKO ADIERAZPENA | MINISTERIOA | OSAGAIA |
|---|---|---|
| ## Sare adimendunetan, energiaren biltegiratzean eta malgutasunean jarduteko ildoak identifikatzea | Trantsizio Ekologikoa eta Erronka Demografikoa | Azpiegitura elektrikoak, sare adimendunen sustapena eta malgutasuna eta biltegiratzea hedatzea |

- Kontagailuaren atzean (“behind the meter”) energia-biltegiratzea ¡ hedatzea, kontsumitzeko edo sortzeko instalazioei lotuta, eta baita zuzenean sarera konektatuta ere, bai stand-alone izenekoan, bai lehendik dauden sorkuntza berriztagarriko instalazioetara hibridatuta.
- Sare adimendunak, sareak digitalizatzeko inbertsioa sustatuz eta berriztagarriak integratzeko azpiegitura elektrikoa hobetuz.
- Energia-trantsizioari lotutako energia-sistemari malgutasuna emango dioten negozio-eredu berriak garatzeko ekimenak, hala nola agregatzaileak eta, bereziki, agregatzaile independenteak edo negozio-ereduak ezartzea, hainbat kontsumo-tipologiatako eskariaren kudeaketaren inguruan.
- Industria- eta teknologia-gaitasunen garapena bultzatzea biltegiratzearen balio-katean, ekipoen bigarren bizitza, eskariaren kudeaketa edo malgutasuna barne hartuta, sektore elektrikoaren esparruan.
- Inbertsio publikoa berrikuntzara eta energiaren arloko negozio-eredu berrietara bideratutako ekimen sortu berrietan edo start-up-etan.

| | | |
|---|---|---|
| ## I+G+B Plan Osagarria | Zientzia eta Berrikuntza | Erakundeen erreforma eta zientzia, teknologia eta berrikuntza sistema nazionalaren gaitasunak indartzea |

EAOren eta autonomia erkidegoen programazioaren koordinaziorako eta baterako gobernantzarako tresna berria: horri esker, lankidetzak ezarri ahal izango dira, I+G+b arloko bi urteko programen bidez, EECTI 2021-2027an lehenetsitako zortzi arlo zientifiko-teknikotan eta Espezializazio Adimenduneko Estrategia (RIS3) nazional eta autonomikoetan:

- Komunikazio kuantikoa.
- Energia eta hidrogeno berdea.
- Nekazaritzako elikagaiak.
- Biodibertsitatea.
- Energia altuko astrofisika eta fisika.
- Itsas zientziak.
- Materialen zientziak.
- Osasunari aplikatutako bioteknologia.

## Garraio jasangarri eta digitalari laguntzeko programa

Garraioak Mugikortasuna eta Hiri Agenda (MITMA)

Mugikortasun jasangarria, segurua eta konektatua

Ekintza-ildoak:

* Datozen hiru urteetan gauzatzea aurreikusten diren proiektuak.

- Merkantzien trenbide garraioko elkarreragingarritasuna (Trenbide Trafikoa Kudeatzeko Europako Sistemak (ERTMS) tren barruan: elkarreragingarritasunerako oztopoak ezabatzen dituzten ekintzak, Elkarreragingarritasun Zehaztapen Teknikoen (ETIak) arabera: material ibiltariaren zarata murrizteko sistemak: lokomotorrak hainbat lan-tentsiotara egokitzea: zabalera aldakorreko ardatzak instalatzea merkantziak garraiatzeko bagoietan.
- Garraioaren intermodalitatea sustatzea (trenbidearen eta errepidearen arteko bazterbideak eta terminal intermodalak eta horien lurreko loturak eraikitzea, egokitzea edo hobetzea).
- Merkantzien trenbideko materiala modernizatzea (merkantzien trenbideko garraiorako bagoiak berritzen edo egokitzen laguntzeko ekintzak, trenbideko autobideen zerbitzuak ezartzeko beharrezkoa dena barne, eta erregai alternatiboak (hidrogenoa, GNL edo elektrizitatea) erabiltzen dituen trakzio-materiala berritzen edo egokitzen laguntzeko ekintzak).
- Errepide bidezko garraio segurua, jasangarria eta konektatua (ibilgailu komertzialentzako aparkaleku seguruak eraikitzea eta hobetzea, eta baita informazio-zerbitzuak ematea ere: errepideen sektorerako garraio-zerbitzu adimendunak (ITS) ordainpeko autobideen emakidetan eta errepideen segurtasunarekin eta kontserbazioarekin lotutako beste zerbitzu batzuetan: GNL berriro hornitzeko azpiegitura errepide-sarean ezartzen laguntzeko ekintzak: berritzen laguntzeko ekintzak edo Zoladura jasangarriak lortzeko bitartekoak eta makinak: karbono-aztarna gutxitzea eta zarata-moteltzekoak).
- Itsasoko eta aireko garraioaren jasangarritasuna (portu eta aireportuetan erregai alternatiboak hedatzen laguntzea, eta itsas sektorean energia alternatiboak dituzten bultzatze-teknologiak ezartzen laguntzea).
- Garraioaren digitalizazioa (bidaiariak eta merkantziak garraiatzeko estatu-mailako zerbitzuak digitalizatzeko proiektuak).

## Udaletarako MDI: mugikortasun jasangarria, segurua eta konektatua hiriguneetan eta ingurune metropolitarretan

Garraioak Mugikortasuna eta Hiri Agenda (MITMA)

Mugikortasun jasangarri, seguru eta konektatuko talka-plana hiriguneetan eta ingurune metropolitarretan

Aurreikus daiteke finantzatu daitezkeen proiektuei honako hauek eskatuko zaizkiela:

- Heldutasun maila nahikoa izatea, 2021erako eta 2022rako laguntza-deialdietan hautagarriak izan daitezen.
- Proiektua, martxan jartzea barne, ahal dela 2021-2023 aldian osatzea, baina beste bi urtez luzatu ahal izango da.
- Gutxieneko aurrekontuari dagokionez, milioi erdi euro inguruko muga izan dezakete. Kontuan izan proiektu batek zenbateko txikiagoko hainbat jarduera bil ditzakeela.

Plan honek helburu hauek ditu:

- 50.000 biztanletik gorako udalerrietan edo probintzia-hiriburuetan exede txikiko eremuen ezarpena bizkortzea.
- Garraioa zero isuriko jarduerarantz eralda dadin sustatzea.
- Hiriguneetan eta metropolietan ibilgailu pribatuaren erabilera murriztea, garraio publiko kolektiboari eta mugikortasun aktiboari lehentasuna emanez, horrela, aldaketa modalaren helburuak lortzen lagunduz.
- Udal-eskumeneko garraio-zerbitzu publikoen jardueraren digitalizazioa bultzatzea.

| INTERESEKO ADIERAZPENA | MINISTERIOA | OSAGAIA |
|---|---|---|
| **Eraikin Publikoak Birgaitzea Bultzatzeko Programa (PIREP)** | Garraioak Mugikortasuna eta Hiri Agenda (MITMA) | Hiria birgaitzeko eta berroneratzeko plana<br>Administrazio publikoen modernizazioa |

Titulartasun publikoko eta erabilera publikoko eraikinen birgaitze jasangarriko jarduketak, baldin eta energia-eraginkortasunaren batez besteko % 30eko aurrezpena lortzen lagun badezakete eta obraren amaiera (obra-harrera) 2026ko abuztua baino lehen berma badaiteke. Informazio gisa, kontuan hartu ahal izango dira, halaber, 2020ko martxotik aurrera gauzatzen hasi diren eta, amaitu gabe egon arren, oraindik gauzatu gabeko inbertsioa duten jarduketak.

Galdetegi bat beteko da birgaitze jasangarriko jarduketa integral baten proposamena jaso dezakeen higiezin bakoitzeko, energia-birgaitzea funtsezko zati gisa hartuko duena eta 2026ko abuztua baino lehen obra jasotzea bermatu ahal bada.

| INTERESEKO ADIERAZPENA | MINISTERIOA | OSAGAIA |
|---|---|---|
| **Mikroelektronikaren eta komunikazio-teknologien arloko proiektu europar batean parte hartzea, Europako Interes Bateratuko Proiektu Garrantzitsuak (IPCEI) izeneko mekanismoaren pean** | Industria, Merkataritza eta Turismoa | Erakundeen erreforma eta zientzia, teknologia eta berrikuntza sistema nazionalaren gaitasunak indartzea |

IPEI berriak EBri diseinu elektronikorako eta hurrengo belaunaldiko konfiantzazko prozesadoreen hedapenerako gaitasunak eta EBren azpiegitura digital kritikoak, adimen artifizialean oinarritutako sistemak eta komunikazio-sareak elikatzeko beharrezkoak diren beste osagai elektroniko batzuk ematea izango luke helburu.

Proiektuek barne har ditzakete informatikarako txipen diseinuaren garapenari dagozkion alderdiak, IA, 5G-6G, segurtasuna, mugikortasun elektrikoa, lehen industria-hedapena (puntako fabrikazio-nodoetarako eskalatzea barne) eta txipen paketatze aurreratua.



| INTERESEKO ADIERAZPENA | MINISTERIOA | OSAGAIA |
|---|---|---|
| **Adimen artifiziala balio-kateetan integratzeko mekanismoak identifikatzea Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren barruan** | Gai Ekonomikoak eta Eraldaketa Digitala (MINECO) | Adimen artifizialaren Estrategia Nazionala |

Balio-kateetan dauden beharrak aztertzea, adimen artifiziala, robotika, biki digitalak eta beste teknologia gaitzaile batzuk txertatzeko, produkzio-prozesuetan eraginkortasun operatiboa hobetzea bermatzeko.

Berrikuntza-prozesuaren merkatutik hurbilen dauden faseetako proiektuei zuzenduta dago, erdi-mailako teknologietan eta heldutasun ertain-altuan oinarrituta (TRL 6tik aurrera).

## Auzo mailan birgaitzeko jarduketa programa

Garraioak Mugikortasuna eta Hiri Agenda (MITMA)

Hiria birgaitzeko eta berroneratzeko plana

Bizitegi-eraikinen parkea birgaitzeko jarduketak ikuspegi integral batetik garatzen laguntzea, energia-eraginkortasuna eta jasangarritasuna hobetzeaz gain, eraikinaren kontserbazio-, segurtasun- eta digitalizazio-arloko jarduketak ere egin daitezen, eta, besteak beste, neurri hauek har daitezen:

- Eraikinaren kanpoko birgaitzea.
- Energia berriztagarriak erabiltzea berokuntza, klimatizazio, hozte, aireztapen eta ur bero sanitarioko instalazio termikoetan.
- Eraikinean iturri berriztagarrien bidez energia elektrikoa sortzeko teknologiak ezartzea.
- Birgaitutako eraikinetako eremu komunen energia-eraginkortasuna hobetzea.
- Mugikortasun elektrikoarekin lotutako azpiegiturak hedatzea.
- Digitalizazio-jarduerak.
- Eraikinaren irisgarritasuna hobetzea.
- Kontserbazioa, amiantoa kentzea barne.

Gainera, mota horretako jarduketekin batera hiri-inguruneko klima-aldaketa egokitzeko eta arintzeko eraldaketa integraleko beste jarduketa batzuk egitea sustatuko da, adibidez, eta zerrenda baztertzailea izan gabe:

- Kanpoko argiak berritzea.
- Kaleak Peatonalizatzea eta zabaltzea, oinezkoek erabil ditzaten.
- Trenbide azpiegiturak eta linealak oinezkoentzat birmoldatzea.
- Biodibertsitateko mikro-espazioak diseinatzea.
- Mugikortasun-azpiegitura alternatiboak, hala nola bizikletentzako erreiak.
- Parkeak eraikitzea eta birgaitzea.
- Drainatze jasangarriko sistemak ezartzea.
- Eraikinaz gaindiko energia-instalazioak (*district heating*...).

## ETEen zibersegurtasun-gaitasunak indartzea eta Zibersegurtasunaren industria bultzatzea, Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren barruan

Gai Ekonomikoak eta Eraldaketa Digitala (MINECO)

Konektibitate digitala, zibersegurtasuna bultzatzea eta 5G hedatzea

Tresna, ekimen edo jarduera zehatz eta espezifikoak identifikatzea, honako hauek ahalbidetzeko:

Enpresa txiki eta ertainen zibersegurtasun-gaitasunak indartzea:

- Espainiako ETEen zibersegurtasuna indartzea.
- ETEek eta ekonomia- eta enpresa-sareak zibersegurtasunean duten kontzientziazio- eta gaitasun-maila handitzea.
- ETEek zibersegurtasun-zerbitzuak eska ditzaten bultzatzea, ETEek zibersegurtasun-zerbitzuak har ditzaten sustatuz.
- ETEen erresilientzia-gaitasuna hobetzea mehatxu eta arrisku digitalen eta komunikazio-sareen aurrean.
- Zibersegurtasuneko teknologiaren dibulgazioa eta ezagutza sustatzea Espainiako enpresa-egituran.

Zibersegurtasunaren industria bultzatzea:

- Zibersegurtasunaren sektoreko Espainiako enpresen hazkundea dinamizatzea eta bultzatzea.
- Zibersegurtasunaren arloko ekintzailetza bultzatzea.
- Espainiako zibersegurtasuneko enpresak, produktuak eta zerbitzuak hazten eta nazioartekotzen laguntzea.
- Zibersegurtasunari lotutako I+G+b gaitasunak handitzea eta hobetzea.
- Zibersegurtasuneko talentua identifikatzea, sortzea eta garatzea.
- Zibersegurtasuneko zerbitzu eta soluzio lehiakorrak garatzea, gero eta premia handiagoei erantzuteko: prebentzioa, babesa eta zibersegurtasuneko gorabeherei/ebentuei erantzutea.

| INTERESEKO ADIERAZPENA | MINISTERIOA | OSAGAIAK |
|---|---|---|
| **Toolkit Programa Digitala**<br>ETEak eta autonomoak Suspertzeko, Eraldatzeko eta Erresilientzia Planaren barruan digitalizatzeko laguntza ekonomikoei buruzko intereseko adierazpena | Gai Ekonomikoak eta Eraldaketa Digitala (MINECO) | ETEak bultzatzea |

**Digital Toolkit (DTK) Programaren helburua enpresei lehiarik gabeko diru-laguntzak ematea da, funtsak agortu arte, DTK paketeak izeneko oinarrizko digitalizazio-pakete jakin batzuk ezartzeko, heldutasun digital mailan aurrerapen nabarmena lortu ahal izateko. Hasieran, honako DTK paketeak identifikatu dira:**

- **1. Marketin digitala:** presentzia digitala, webguneen eta aplikazioen garapena, ostatu-zerbitzua, posizionamendua eta marketin digitaleko kanalak, produktuen katalogoen garapena, bezeroak kudeatzeko eta aztertzeko soluzioak (CRM), etab.
- **2. Merkataritza elektronikoa:** Merkataritza elektronikorako gaitasunak, saltokiko terminala, etab.
- **3. Enpresa digitalaren administrazioa:** enpresa-baliabideak planifikatzeko sistemak (ERP), negozio-prozesuak digitalizatzeko eta automatizatzeko aplikazioak (adibidez, kontabilitatea, inbentarioen kudeaketa, logistika, etab.), faktura elektronikoa, administrazio elektronikoarekin integratzea eta sinadura digitala, lanpostu digitala, mugikortasun-soluzioak, fitxaketa digitala eta telelana, lankidetza-ingurunea, komunikazioa eta bideokonferentzia, ofimatika, biltegiratzea eta back-up, zibersegurtasuna, etab.

**Hala ere, aurkeztutako intereseko adierazpenean beste DTK pakete gehigarri batzuk iradoki ahal izango dira, baita horien agregazioak ere, horiek kontuan hartzeko arrazoiak behar bezala justifikatuz.**

**Interesa duten eragileei gonbita egiten zaie “intereseko manifestazio” horretan parte har dezaten, honako irizpide hauetan oinarrituta:**

- “Intereseko adierazpena” proposamenean interesa izan dezaketen ETE eta autonomo guztientzat dago irekita, haiek ordezkatzen dituzten elkarteentzat, ETEen digitalizazioan inplikatuta dauden mota guztietako eragileentzat eta autonomo pribatu eta publikoentzat, eta, bereziki, intereseko adierazpen honen definizioen arabera eragile bideratzaile eta eragile digitalizatzaile gisa jardun dezaketenentzat.
- Interesa duten enpresek eta eragileek aurkeztu ahal izango dituzte, banaka nahiz partzuergo baten ordezkari gisa.
- Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioak interes berezia du

  (1) Enpresa edo partzuergo pribatu edo publiko-pribatuetatik datozen proposamenak biltzeko, bai soluzio eta zerbitzu digitalen paketeen konplexutasunari dagokionez, bai lurralde osoan eskala eta handitasunari dagokionez, eta

  (2) Proposamenak herrialdeko ekonomian izan dezakeen eraginaren zenbatespenak jasotzeko (adibidez, Espainian sortutako enpleguak, enpresa-jardueran eta -produktibitatean izandako mozkinak, ETEen hazkundea, estatistika-intereseko beste datu batzuk, etab.).

# Jomugetako jasangarritasun turistikoko estrategia / Jomugetako jasangarritasun turistikoaren plan autonomikoa

MINCOTUR: turismoko estatu-idazkaritza: garapen eta jasangarritasun turistikoko zuzendariordetza

Turismo-sektorearen modernizazio- eta lehiakortasun-plana

Jomugetako jasangarritasun turistikoko estrategia Jomugetako jasangarritasun turistikoko planen programen inguruan gauzatzen da, eta administrazio turistikoen hiru mailek hartzen dute parte: Estatuko administrazio orokorrak, autonomia erkidegoek eta toki-erakundeek.

Zehazki, estrategia hori bi programa bereizitan gauzatzen da:

- Batetik, jomugetako jasangarritasun turistikoko programa arrunta, urtero deitzen dena eta hiru administrazioen aurrekontuekin finantzatzen dena: nazionala, autonomikoa eta tokikoa.
- Bestalde, 2021-2024 Jomugetako Turismo-jasangarritasuneko Aparteko Programa, turismo-sektorearen lehiakortasun- eta modernizazio-planaren jarduera nagusia. Jomugetako Turismo-jasangarritasuneko Planen Ezohiko Programaren zehaztapen operatiboa Jomugetako Turismo-jasangarritasuneko Plan Autonomikoetan (JTJPA-PASTD) dago.

Bi programak Turismoko Estatu Idazkaritzak (SETUR) prestatzen ditu, autonomia erkidegoen eta Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioaren (FEMP) parte-hartzearekin, Turismoko Batzorde Sektorialaren bidez.

SETURrek bezeroarentzat balio erantsi handia duten turismo-produktuen berrikuntza, kalitatea, jasangarritasuna eta lehiakortasuna sustatzen dituzten planak eta programak diseinatzeko eta ezartzeko funtzioa betetzen du, hori guztia lankidetza publiko-publikoan eta publiko-pribatuan oinarrituta, eta autonomia erkidegoak dira beren lurraldeetan turismo-politikaren eta -estrategiaren arduradunak.

Espero diren emaitzak:

- Jomuga turistikoak hobetzea, haien lehiakortasuna handitzeko funtsezko jarduketetan egindako inbertsioari esker, turismo-eskarian eragin bultzatzailea eta sektore turistiko pribatuaren efektu dinamizatzailea izan dezaten.
- Jomugetako baliabide, azpiegitura eta produktu turistikoen kudeaketan jasangarritasuna eta digitalizazioa eraginkortasunez txertatzea.
- Jomuga turistikoen eskaintza dibertsifikatzea, enplegu- eta jarduera-aukerak sortzen laguntzeko, errenta turistikoa birbanatzeko eta lurralde-kohesioa eta eskariaren deskontzentrazioa eta urtarokotasuna errazteko, bereziki landa-eremuetan.
- Sistema turistikoaren kapital naturala hobetzea, haren iraunkortasuna bermatuz isurketak murriztuz, hondakinen eta uren kudeaketa hobetuz, ekosistemen babesa, zaharberritzea eta aprobetxamendu turistikoa sustatuz, ekosistemak birnaturalizatuz eta klima-aldaketaren ondorioak prebenitzeko edo arintzeko jarduerak sartuz.

4 SEEP-PRTRren helburuekin lotutako lehentasunezko ardatzak.

**1. ARDATZA. Trantsizio berdearen eta jasangarriaren esparruko jarduketak.**

Ardatz honek hiri-birmoldaketa eta espazio publikoak edertzeko, eraikinak harrotzeko, eraikinak modu jasangarrian birgaitzeko, ingurumena lehengoratzeko, naturguneak kudeatzeko, ekonomia zirkularra ezartzeko eta klima-aldaketara egokitzeko jarduerak barne hartzen ditu.

**2. ARDATZA. Energia-eraginkortasuna hobetzeko jarduketak.**

Ardatz honetan energia-eraginkortasuneko jarduketak sartzen dira, aldaketa arintzekoak barne, turismo-produktuak eta -zerbitzuak emateko behar den energia murriztera bideratutako jarduketak barne, karbono-kutsadura mugatuz eta energia berriztagarrietarako trantsizioa eta mugikortasun jasangarriko jarduketak sustatuz.

**Jomuga turistikoen sailkapena:**

1. Eguzki eta hondartza jomuga turistikoa
2. Landa jomuga turistikoa
3. Hiri jomuga turistikoa

**3. ARDATZA. Trantsizio digitalaren esparruko jarduketak.**

Ardatz honetan sartzen dira teknologia erabiliz turismo-balioaren katean sartutako prozesuak etengabe hobetzen laguntzen duten jarduketa guztiak.

**4. ARDATZA. Lehiakortasunaren arloko jarduketak.**

Ardatz honetan eskaintza sortzeko, produktua hobetzeko eta ekipamenduak sortzeko ekintza guztiak sartzen dira, eta baita jomugaren kudeaketa etengabe hobetzearekin lotutako guztia ere.

| INTERESEKO ADIERAZPENA | MINISTERIOA | OSAGAIAK |
|---|---|---|
| **Ikus-entzunezko sektorea bultzatzeko planari (Spain Audiovisual HUB) buruzko adierazpen interesgarriak, Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren barruan** | Gai Ekonomikoak eta Eraldaketa Digitala (MINECO) | Espainia Europako ikus-entzunezko hub-a ( Spain AVS Hub) 25. osagaia |




Suspertze Planeko Spain Audiovisual Hub 25. osagaiaren barruan aurreikusitako ekintzak antolatzeko ideiak, proposamenak eta proiektuak identifikatzea. Horretarako, lau gai-multzori buruzko proposamenak aurkezteko gonbidapena egiten da:

1) Teknologiak:

- Enpresa-lehiakortasuna hobetzeko teknologia berriak, ministerioak Erosketa Publiko Berritzaile gisa enkargatu ahal izango dituenak, besteak beste, postprodukzio digitalean, animazioan eta bideo-jokoetan izandako aurrerapenekin lotuta (prozesu batzuen automatismoan adimen artifiziala sartzea barne), edukien etiketatze automatikoa eta on line eduki digitalak eskuratzeko adina egiaztatzea, eremu digitaleko audientzien neurketa, jabetza-eskubideen kudeaketari lotutako teknologien aplikazioa. Bideo-jokoen berezko teknologiak beste batzuetan ezartzen laguntzea.
- Eduki digitalen garapen berritzailea, hala nola bideo-jokoak eta prototipoak sortzeko proiektuetarako laguntza, eta 5G teknologian oinarritu daitezkeen proiektuak.

2) Ekoizpen digitalerako guneak eta azpiegiturak:

- Ikus-entzunezko grabazio- eta postprodukzio-estudio aurreratu berriak garatzea, teknologia digitala barne hartzen eta ikus-entzunezko ekoizpeneko hub digitalak sortzeko aukera ematen dutenak, ikus-entzunezko ekoizpenaren balio-kateko jarduera guztiak bertan daudela.
- Ikus-entzunezko edukien gaztelaniazko plataforma bat garatzea.

3) Eskumen digitalak:

- Gaitasun digitalei buruzko prestakuntza (tutoretzak barne) eta sektoreko jardueren profesionalizazioa.
- Ikus-entzunezko sektorean jarduera (esanahi zabalean) duten ETEen eraldaketa digitala bultzatzea.

4) Aurrekoak ez diren beste lerro batzuk.

## 1.5/

# Otsailaren 11ko 1/2021 Legea

**Euskal Autonomia Erkidegoko 2021. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen otsailaren 11ko 1/2021 Legeak oso esfortzu ekonomiko garrantzitsua eskatzen du, eta, horrekin batera, esfortzu exogenoa ere egingo da, susperraldirako eta erresilientziarako Europako funtsen bidez.**




Hain zuzen ere, Euskadiko 2021erako Aurrekontu Orokorrak 12.442 milioi eurokoak dira, eta aurrekontu operatiboa –hau da, finantza-aktiboak alde batera utziz politika publikoetan gastatzeko eskuragarri dagoena– 2020an aurkeztutako proiektua baino, hau da, iaz baino % 7,1 handiagoa. Inbertsio publikoa –euskal Y-a eta hegoaldeko saihesbidea kontuan hartu gabe– 955 milioi eurotik gorakoa izango da, hau da, % 6,4 handiagoa. I+Gko inbertsioa, berriz, 536 milioi euro ingurukoa izango da, hau da, % 9,7 handiagoa (2020an baino 47,2 milioi euro gehiago). Inbertsio-ahalegin endogeno hori osatzeko, suspertze eta erresilientzia mekanismotik datozen diru-sarrerak erabiliko dira.

Horretarako, Aurrekontuen Lege horrek V. kapituluan (26. artikulutik 33. artikulura) Estatuko Administrazio Orokorretik datozen diru-sarrerak aurrekontu arruntean nola sartuko diren ezartzen du, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari Suspertze eta erresilientzia mekanismoaren funtsei dagokienez dagokion kudeaketaren barruan.

Horrela, 2021eko ekitaldian Next Generation EU ekimenetik eratorritako funtsak banatzearen ondorioz diru-sarrera handiagoak lortzen badira, ordainketa-kredituak eta, hala badagokio, konpromiso-kredituak sortuko dira. Egiten diren hitzarmenetatik edo onartzen diren beste egintza juridiko batzuetatik eratorritako diru-sarrera horiek Next Generation EU Suspertze-planari lotutako jarduera eta proiektuen finantzaketa espezifikoari lotuta geratuko dira, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren aurrekontuko diru-sarreren egoeraren orrian sartuko dira.

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailak aurrekontu-programa berri bat sortuko du. Programa horren zuzkidura Estatuko Administrazioak edo Europar Batasunak Next Generation EU Suspertze-planari lotutako funtsetatik eratorritako transferentzien eta ekarpenen kargura finantzatuko da. Programa horren aurrekontu-zuzkiduretan, Next Generation EU Suspertze-planari lotutako jarduerak eta proiektuak finantzatzeko ordainketa-kredituak eta, hala badagokio, konpromiso-kredituak sartuko dira. Next Generation EU Suspertze-planari lotutako ordainketa-kredituak handitu ahal izango dira ekitaldian zehar. Handitze horiek Gobernu Kontseiluak egin ahal izango ditu, kreditu globalaren edo diruzaintzako gerakinen kontura.





# 2 / SEM-MRR-ren kudeaketa eta gobernantza hobetzeko iradokizunak

ERALDATU HAZTEKO

# 2.1 / Ikuspegi estrategikoa: Eraldaketatik eta Erresilientziatik Susperraldira

Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren (SEM-MRR) funtsak Next Generation EU (NGEU) ekimenaren parte dira, NGEUn jasotako tresna garrantzitsu eta asmo handienekoetakoak. Ekimen horrek, izenak berak dioen bezala, EBren aurrerabidearen eta oparotasunaren oinarriak ezarri nahi ditu hurrengo belaunaldientzat. Hori dela eta, ekimen hori energia-trantsizio ekologikoaren erronkari aurre egiteko bideratu da, klima-aldaketa murrizteko eta haren eraginak arintzeko. Eraldaketa digitalaren erronka EB modernizatzeko palanka gisa ere agertzen da.

Covid19ak Espainian izan duen eraginaren ondorioz, Espainiako Estatua izan da SEM-MRR funtsen onuradun nagusia, 70.000 milioi euro esleitu baitzaizkio transferentzietan. Zenbateko horren eta funtsen xedearen ondorioz, SEM-MRRk, Europako kohesio-politikari forma ematen dioten egitura-funtsen parte ez izan arren, benetako kohesio-palanka gisa erabil dezake, eta, aldi berean, pandemiaren ondorio ekonomikoei aurre egiteko lehen neurriak estatuen esku uzteagatik desoreka handiak jasan zituen merkatu bakarrari eutsi diezaioke.

Arestian aipatutako eraldaketa bikoitza bere gain hartuta, Espainiak plana "España puede" Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana izenarekin bataiatu du. Horrela, eraldaketa terminoa modu egokian agertzen da Planaren aurrealdean.

Hala ere, ez du hala egiten Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren (SEM-MRR) izendapenean, bi energia-eraldaketak, ekologikoa eta digitala, mekanismoaren bektore nagusi gisa sartzen diren arren. Bi eraldaketa horiek, matrioska-joko bat bailiran, era askotako eraldaketa teknologikoak, sozialak, antolamenduzkoak… gordetzen dituzte.

Hain zuzen ere, izaera eraldatzaile horri eman behar zaio lehentasuna, gure ustez, funtsak behar bezala erabiltzeko apustuak egitean. Eraldaketaren aldeko apustuak, baita erresilientziak ere, susperraldia orientatuko du, efektu biderkatzaile handiagoarekin, eta are garrantzitsuagoa dena, etorkizunera begira, eta ez berehalakotasunera. Ildo horretan, trade-off bat dago suspertzearen eta eraldaketaren artean. Faktoreen ordenak produktua aldatzen du, hau da, leheneratzeak ez du nahitaez eraldaketara eramango, eta eraldaketak eta erresilientziak, berriz, leheneratzea dakarte era inplizituan. Agian ez du egingo susperraldia lehenetsiko balitz egingo lukeen abiadurarekin, baina trukean, intentsitatean eta jasangarritasunean irabaziko da. Pandemiaren ondorioz behera egin ondoren BPGren susperraldi indartsua ikusteko tentazioak hipotekatu egin dezake funtsen erabilera eta eraldaketarako palanka gisa duten garrantzia. 2021eko aurrekontuetan SEM-MRRren 24.168 milioi euro sartu izana zenbateko horiek urtean (urte erdian, egia esan) egikaritzeko asmoz, eraldaketaren ideia duen planteamendu kontraesankorra da, eta, gainera, arriskuan jartzen du SEM-MRRren erregelamenduan jasotako gehigarritasun-printzipioa.

Eraldaketak urte anitzeko eta goranzko planteamendua eskatzen du funtsen exekuzioaren intentsitatean.



# 2.2 /

# Baliabideen banaketa bat dator funtsen izaera eraldatzailearekin

Suspertzerako, eraldaketarako eta erresilientziarako planteamendu estrategikoa eduki aurretik, hau da, SEEP-PRTRa eduki aurretik, 2021eko Estatuko aurrekontu orokorren bidez ministerioen artean funtsak ex - ante banatzeak, horien erabilera eraldatzailea ere zailtzen du. Beharrezkoa al zen 2021eko Estatuko Aurrekontu Orokorretan sartutako funtsen % 100 ministerioen artean banatzea? Ez al zen egokiagoa izango administrazio-egitura gainditzen duten proiektu eraldatzaileei ekiteko baliabideak biltzea? Eta asmoa baliabide horiek ahalik eta lasterren edukitzea bazen, suspertzeari ekiteko, Bruselak SEEP-PRTR onartu arte itxaron gabe, zergatik ez dira oraindik funts horiek xedatu?

Baliabideak ministerioen artean banatzeak funtsak eraldatzeko boterea murriztu dezake. Kasurik onenean, zaildu egingo du proiektua gauzatzea; izan ere, proiektu eraldatzaileak, diziplina anitzekoak, sektore anitzekoak, urte anitzekoak, jarduera anitzekoak eta abar izateagatik konplexuak izan ohi direnak, zatitu egin beharko dira "leihatiletara" egokitzeko, egokiena proiektuetara ahalik eta ondoen egokitu ahal izatea denean, horrela, bideragarritasuna eta egingarritasuna arriskuan jarri gabe.

Baina egiten den banaketak berak ahalmen eraldatzaile horri eragin diezaioke. Zentzu horretan, Estatuaren eraldaketa ekonomikoaren aldeko apustuak industria, zientzia eta teknologiako inbertsioak lehenetsi behar dituela ulertzen da. Arlo horiek, normalean, inbertsioan intentsiboagoak dira, baina produktibitatea handitzeko gaitasun handiagoa ere badute. Beste ekoizpen-sektore batzuen eraldaketak inbertsio-intentsitate txikiagoa eskatzen du, energia-eraldaketa ekologikoari edo digitalizazioari ekitean batez ere.



Beste sektore horiek garrantzi handia izango dute susperraldian; izan ere, COVID-19aren pandemiari erantzuteko enpresa-kaudimena babesteko ezohiko neurriei buruzko martxoaren 12ko 5/2021 Errege Lege Dekretuan jasotako zuzeneko laguntzak gehien zigortutako sektoreei zuzenduta daude, eta horien artean daude ostalaritza eta haren hornidura-katea, merkataritza edo turismoa, kutsatzeen kurba arintzeko ezarritako neurriengatik. Alde horretatik, beharrezkoa da diskriminazio positiboa egitea, jarduera-adar jakin batzuetan jasandako ondorio ekonomikoei aurre egiteko.

Inork ez du eztabaidan jartzen sektore horiekiko diskriminazio positibo hori. Baina apustu eraldatzaileak ere industriarekiko diskriminazio positiboa eskatzen du suspertze eta erresilientzia funtsen erabileran, kasu honetan aipatutako politiken alde, eta hori bi arrazoirengatik. Lehenik eta behin, industriaren sustapena eta lehiakortasuna funtsezko palanka direlako lortu nahi den Estatuaren eraldaketa sozioekonomikorako. Eta bigarrenik, inbertsio-intentsitatea handiagoa delako industria-sektorean beste sektore batzuetan baino, energia-eraldaketa ekologikoari zein digitalari aurre egiteko. Eta horrek balio du bai ekoizpen-egiturako inbertsio zuzenetarako, bai industria-ekosistema bere osotasunean modernizatzea bilatzen duten inbertsioetarako. Hala, adibide gisa, 4.0 industria garatzeko lanbide-heziketan ikasgela teknologikoak eta digitalak izateko inbertsio teknologikoak ezin dira izan zerbitzu-sektoreko jarduerekin lotutako lanbide-heziketako ikasgelek behar dituzten berberak. Eta, hala ere, zerbitzu jakin batzuetako beharrak berdin-berdin beteko dituen inbertsio-estandar bat zehaztu da, baina ez da nahikoa 4.0 industrian lan egin behar duten pertsonak prestatzeko ikasgelen kasuan.

Errealitateak, ordea, industria-sektorearen aldeko apustu zuzen ahula islatzen du, eta horrek ahuldu egiten du SEM-MRR funtsen erabileraren izaera eraldatzailea. Izan ere, Industria, Merkataritza eta Turismo Ministeriora (MINCOTUR) bideratutako 2021erako SEM-MRRren 24.168 milioi euroko partidatik, 233 milioi baino ez dira industriara eta energiara bideratzen, eta horietatik 110 baino ez dira bideratzen trantsizio industrialerako proiektuetara. Inbertsio-ildo horri dagokion MDIak, 200.000 milioitik gorako inbertsio osoa jasotzen duten 750 proiektu jaso ditu.

Egia da, MINCOTURrek berak industriara bideratutako baliabideez gain, beste ministerio batzuek ere industriari mesede egin diezaioketen baliabideak dituztela, baina egia da beste edozein jarduera-sektoreri ere mesede egin diezaioketela. Horrela, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren ekonomia zirkularra edo eraginkortasun energetikoa bultzatzeko neurriek sektore produktibo guztiei egingo diete mesede, ez soilik industriari.

# 2.3 /

# Norberaren indarguneak eraldaketa-palanka gisa hartuko dituen baliabideen banaketa

SEEP-PRTRa, Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana, diseinatzeko orduan alderdirik deigarrienetako bat autonomia erkidegoekin kontsultarik, kontrasterik eta lankidetzarik ez izatea izan da. Ildo horretan, argi eta garbi urratu da Suspertze eta Erresistentzia Mekanismoaren Erregelamendua. Horrek, lehen aipatu bezala, 18. artikuluan ezartzen ditu suspertze eta erresilientzia plana prestatzeko eta aplikatzeko, beharrezkoa dela tokiko eta lurraldeko agintariek, besteak beste, esparru juridiko nazionalaren arabera egindako kontsulta-prozesu bat gauzatzea, eta Planak egindako ekarpenak islatu beharko zituela ere zehazten zen.

Jarduteko modu horrek funtsak eraldatzeko gaitasuna murrizten du, hainbat arrazoirengatik:

- **Lehenik eta behin, ez direlako kontuan hartu autonomia erkidegoen indarguneak, eraldaketa sostengatzeko eta bultzatzeko palanka gisa erabiltzeko.** Autonomia erkidegoek, Europako Batzordearen urte anitzeko finantza-esparrutik (2014-2020), espezializazio adimenduneko estrategiak dituzte, Batzordeak berak kohesio-politikaren eta egitura-funtsen erabileraren esparruan sustatutakoak. Espezializazio adimenduneko estrategiak, RIS3, izatez, egitura-funtsak lortzeko baldintza gaitzaileak bihurtu ziren, eta EBko eskualde-politikaren parte zirenez, eskualde mailan hedatu ziren, ez estatu mailan. Euskadik azkar bereganatu zuen batez ere PCTI 2020ren bidez bideratutako eta berriki PCTI 2030ekin berritutako estrategia hori. Gainera, grafikoan jasotako Euskadiko RIS3 espezializazio adimenduneko estrategia guztiz bat dator SEM-MRR funtsen bitartez sustatu nahi den eraldaketa bikoitzarekin, energetiko-ekologiko eta digitalarekin, alegia. Autonomia erkidego bakoitzean desberdina den errealitate hori kontuan hartzeak, SEEP-PRTRren osagaiak eta dagozkien inbertsio-ildoak hobeto diseinatzeko aukera emango zukeen. Lurralde batzuetarako motz eta beste batzuentzat handi geratzen diren Estatu osorako planteamendu estandarrak aplikatu ordez, espezializazio adimenduneko estrategia horiek kontuan hartzea komeniko zatekeen.

- **Bigarrenik, ez direlako aintzat hartu hainbat autonomia erkidegotan gauzatutako politika publikoak, industria-politikan edo zientzia eta teknologiako politikan dituzten eskumenen esparruan.** Horiek birzentralizatu egin dira SEM-MRR funtsen kudeaketaren testuinguruan. Politika publiko horiek kontuan ez hartzeak, azkenean, urratu egin dezake SEM-MRRren Erregelamenduaren 9. artikulua. Bertan ezartzen da Mekanismoak Batasunaren finantzaketaren gehigarritasun-printzipioa errespetatzen duten proiektuak babestu behar dituela, eta printzipio horrek ez dituela gastu nazional arruntak ordeztu behar, behar bezala justifikatutako kasuetan izan ezik.

## RIS3 estrategia berrikusia PCTI 2030en esparruan




- **Hirugarrenik, arlo jakin batzuetako indarguneek eragin penalizatzailea izan dutelako funtsak autonomia erkidegoen artean banatzeko irizpideak ezartzerakoan.** Kohesio-irizpideak sartzeak banaketa, ahuleziak indarguneen aurrean nagusitu diren abiapuntuko diagnostikoa duten lurraldeetarantz okertu du, eta beren baliabide propioekin politika publiko jakin batzuetan, ingurumenari edo lanbide-heziketari dagokienez, adibidez, ahalegin handiena egin duten lurraldeak baliabide gutxiagorekin utzi dituzte.

Azken batean, SEEP-PRTR osatzen duten inbertsio-ildoak diseinatzeko ez da esparru juridiko nazionala, Autonomien Estatua, baliatu. Alde horretatik, komenigarria izango zatekeen oreka handiagoa lortzea Autonomien Estatua osatzen duten administrazio-mailen eginkizunean. Egitura-funtsen kudeaketa, autonomia erkidegoek programa operatiboekin (PO), Estatuak Batzordearekin sinatzen duen Elkartze Akordioarekin lerrokatuta, gehi Estatuak berak kudeatzen duen Estatuko Eskualde Anitzeko Programa Operatiboa (POPE) maila anitzeko gobernantza-eredu egokiagoa da SEM-MRR kudeatzearen erronka izugarriari aurre egiteko. Autonomia erkidegoak ahalduntzea, funtsen diseinuan eta ezarpenean lidergo banatua sortzean, autonomien estatua azken ondorioetaraino eramatea da. Benetako gobernantza baterakoa izango litzateke. Hala ere, Estatuak "kudeaketa agindu" eredua aukeratu du, eta eredu horrek estandar desegokiak ditu autonomia erkidegoen abiapuntuko egoeretan dauden desberdintasunen aurrean. Euskadiren kasuan horrek kalte nabarmena dakar, ez soilik autogobernuari dagokionez, baita eta indarguneak aprobetxatzeari dagokionez ere, Estatuaren eraldaketa sozioekonomikoa apaltzeko.

Maila anitzeko gobernantza horren esparruan, egitura-funtsen kudeaketan oso kontrastatutako dinamika horiek aprobetxatzea egokia dela berresten duten erakundeen arteko lankidetzaren adibide argiak daude. Hala berresten dute proiektu konplexuen garapenak, eta neutroi bidezko espalazio-iturriak, POPEaren eta PO Euskadiren kofinantzaketa jasotzen dituen ESS Bilbaok, hain zuzen ere.

# 2.4 /
# Zatiketaren aurkako Xede ikuspegia

Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak Mariana Mazzucatok, suspertze eta erresilientzia mekanismoaren funtsen kudeaketan aplika litezkeen xedeetara bideratutako gobernantzaren defentsarekin lotuta egindako proposamenen berri eman du. Izan ere, PERTEen planteamendua Mazzukatok Europako Batzordeari proposatu zizkion xedeen antzekoa izan liteke[4]. Berrikiago, aurten argitaratutako liburuan, ekonomialari italoamerikarrak gai horren inguruan sakontzen du, Gerra Hotzaren testuinguruan gauzatu ziren misio espazialak eta AEBetako konplexu militar industrialaren garapena adibidetzat hartuz. Oraingoan, Mazzucatok helburu lurtarragoetara bideratzeko nola jokatu behar den defendatzen du, Nazio Batuen 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburuekin (GIH) lotuta. Testuingurua ez da Gerra Hotza, Planetaren berotzearen aurkako Gerra baizik.

Erronka izugarria da, ohituta ez gauden inbertsio-ahalegina eskatzen duelako, eta, aldi berean, gure egiteko moduak eraldatzea eskatzen duelako, administrazio publikoa antolatzeko, konplexutasunari heltzeko lana zailtzen duen siloen araberako antolakunde batean instalatuta, dimentsio anitzeko xede konplexuei ekitera bideratutako antolakunde batean.

SEEP-PRTRaren kudeaketa eta gobernantza ereduak politika publikoen konplexutasunaren paradoxa hori jasaten du, eta balizko "xede-ikuspegia" oso mugatuta geratzen da Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planean. PERTEen planteamenduak bakarrik eman diezaioke erantzun partziala eta oso herabea planteamendu horri. Ez dakigu zenbat baliabide bideratuko diren ikuspegi horretatik, baina, itxura guztien arabera, baliabide gutxi bideratuko dira, eta, gainera, eskuragarri dauden hiru urteetan zehar dosifikatuko da, ia 70.000 milioiko diru-laguntza konprometitzeko. Estatu osoan urtean 2 edo 3 PERTEko eraketak, antza denez, 6 eta 9 artean jartzen du aldi osoko zifra, 2022an edo 2023an onartzen diren PERTEen egikaritzedenbora laburtuz. 2021ean Estatu osoan 6 PERTE aurkeztu izanak murriztu egiten du aurreikuspenen arabera 2022an edo 2023an onartuko diren beste 4 PERTEak gauzatzeko epea.

> *"Risk taking and learning in government require working outside of the usual silos, coordinating across policy fields and finding the synergies that turn the components of cooperation into a whole that is larger than the sum of its parts.*
>
> *A mission can easily span ministries, departments, regional and local government bodies. But the greater the need for organizational transformation, the harder it is to accomplish.*
>
> *This is the "complexity paradox" of modern public policy: the more complex policy issues are, the more compartmentalized policymaking becomes, fragmented into different and sometimes competing government departments and initiatives"* [5].
>
> *Mariana Mazzucato, ekonomialaria.*

---

[4] Mission-Oriented Research & Innovation in the European Union: A problem-solving approach to fuel innovation-led growth: https://ec.europa.eu/info/sites/info/files/mazzucato_report_2018.pdf

[5] Op. Cit.

# 2.5 / Proiektu eraldatzaileen konplexutasuna eta urte anitzeko izaera bere gain hartzen dituen ikuspegi operatiboa

Aurreko atalarekin estu lotuta, proiektu eraldatzaileen konplexutasuna aitortzeak EBk ematen dituen egikaritze-epeak azkartzeko beharra dakar berekin, 2026/08/31ra arte egikaritzea ahalbidetzen baitu. Hala ere, ministerio batzuek urteko esleipena urtean gauzatzea eskatzen ari dira. Eskakizun horrek berriro urra dezake gehigarritasun-printzipioa, eta, aldi berean, zaildu egiten du funtsak eraldaketaproiektuetara bideratzea, horien gauzatze-mailak aurrekontu-urtea baino epe luzeagoak eskatzen baititu.

Gainera, ministerio batzuk ez dira 2021-2023 aldirako inbertsioaren ikuspegia ematen ari, eta horrek zaildu egiten du SEM-MRR funtsekin egin nahi diren proiektu eraldatzaileak ondo dimentsionatzea eta planifikatzea.



# 2.6 / Baliabideak bateratzea eta lerrokatzea, eraldaketarako baliabideak biltzeko

Dokumentu honen lehen paragrafoan azaldu bezala, SEM-MRR erregelamenduaren 9. artikuluak, “Gehigarritasuna eta finantzaketa osagarria” izenekoak, honako hau ezartzen du: “Mekanismoaren esparruan emandako laguntza Batasunaren beste programa eta tresna batzuen arabera emandakoari gehituko zaio. Erreformek eta inbertsio-proiektuek Batasunaren beste programa eta tresna batzuen laguntza jaso ahal izango dute, betiere laguntza horrek kostu bera estaltzen ez badu.”

Aukera horren ildotik, Euskadik funtsen erabileran egiten duen apustu eraldatzailearen ondorioz, Europako funts guztiak bideratzen dira, gehigarritasun-irizpidearekin eta eraldaketarako orientazioarekin erabil daitezen. Horrela, Euskadirako FEDER eta FSE funtsen esleipena 2021-2027 urte anitzeko finantza-esparruan lerrokatzeko egingo da lan, hau da, SEM-MRRrekin batera, Next Generation EU ekimenaren eta suspertze eta erresilientzia mekanismoa beraren bizkarrezurra den REACT-EUren 426 milioi euroak. Hori guztia, euskal administrazioen (Jaurlaritza, Aldundiak eta Udalak) aurrekontuetako funts propioen konkurrentziarekin batera, inbertsio publikoari eta inbertsio publiko-pribatuari bultzada indartsua emateko.

Horrez gain, uneotan inbertsio-aukerak handitzeko, edozein unetan, 2023ko abuztuaren 31ra arte, Estatua laguntza horiek mailegu gisa eskatzera animatuko da gutxienez beste. Kasu horretan, eskaerarekin batera, 2021eko apirilean aurkezten direnekiko mugarri eta helburu gehigarriak jasoko dituen suspertze eta erresilientzia plan berrikusi bat aurkeztu beharko da.

# 2.7 /

# Estatuko eta lurraldeko PERTEak, eraldaketaren erronkari erantzuteko

Aurreko ataletan jasotako printzipioak kontuan hartuta, jarraian, SEM-MRR funtsen erabileran izaera eraldatzailea hobetzeko zenbait iradokizun azaltzen dira, xede-ikuspegia berriz ere dinamika eraldatzailearen erdigunean jartzeko asmoz, proiektu eraldatzaileen konplexutasuna, urte anitzeko izaera, dimentsio anitzekoa, ministerioartekoa, erakundeartekoa eta abar biltzeko eta kontuan hartzeko.

Alde horretatik, piramide-formako esku-hartzeen egitura bat planteatzen da. Honako grafiko honetan jaso eta jarraian azaltzen da:



1

## Estatuko PERTEak

Lehenik eta behin, beren xede-ikuspegiagatik enblematikoa den ekimen gisa, estatuko PERTEak egongo lirateke, 36/2020 Errege Lege Dekretuak jasotzen duen bezala, Estatuko sektore estrategikoetan jauzi kualitatibo eta kuantitatiboa bultzatzeko eremu gisa ulertuta, eta EBko IPCEIetan inspiratuta, balio-kate osoa arrastatzeko gaitasunarekin, teknologikoki puntakoak, baina merkatuko akatsak gainditzeko premiarekin, teknologia heldu beharrarengatik, hain zuzen ere, eta baita etengabeko prestakuntza, unibertsitate-prestakuntza, lanbide-heziketa, etab. lantzeko beharrarengatik ere.

2

## Lurraldeetako PERTEak

Bigarrenik, lurraldeetako PERTEak, estatuko PERTEak bezala, IPCEIetan inspiratzen dira, eta, aldi berean, AEI[6], izenekoen esperientzian ere oinarritu daitezke, mekanismo hori doituz horrelako proiektu konplexuak errazteko eta katalizatzeko. Lurraldeetako PERTE horiek estatuko PERTE baten baldintzak betetzen dituzte, izaera estrategikoari, eraldatzaileari, lehiakortasun globalari, munduko lidergodun merkatu-hobiei, abangoardiako garapen teknologikoari, ekoizpen-ehunaren trakzio-gaitasunari eta abarri dagokienez. Bien arteko aldea, lehenengoen xedeek estatuko estrategiei erantzuten dietela, eta bigarrenen xedeak, berriz, autonomia erkidegoen espezializazio adimenduneko estrategietara mugatzen direla da.

**Estatuko nahiz lurraldeko PERTEak funtsezko bektorea dira herrialdearen eraldaketa sozioekonomikoari aurre egiteko. Lidergo banatua eta maila instituzional guztiak zuzenean inplikatzea ahalbidetzen dute, berriro aurkeztuko ez den aukera historiko hau aprobetxatzeko erantzunkidetasunean. Aurrekaririk gabeko krisi hau aurrekaririk gabeko aukera bihurtzeko aukera da, eta horretarako gaitasun guztiak aktibatu behar dira, publikoak zein pribatuak.**

3

## Diru-laguntzak eta beste finantza-tresna batzuk

Hirugarrenik, SEM-MRR baliabideak diru-laguntzen deialdietara eta politika publikoak hedatzeko beste tresna tradizional batzuetara bideratzea dago, hala nola partaidetza-maileguetara, kapitalean parte hartzera (Luzaro, Finkatuz, etab.), gastu fiskalera, etab. Ulertzen da administrazioek (estatua, autonomia erkidegoak, EE.LL) kudeatzen duten mota horretako edozein tresna dela. Tresna horien onuradunak eragile pribatuak (Enpresa handiak, ETEak, hirugarren sektoreko CC.TTak) zein erakunde publikoak (unibertsitateak, udalak, mankomunitateak, tokiko garapen-agentziak, etab.) dira.

4

## Lizitazioak, erosketa publikoa...

Azkenik, laugarrenik, lizitazioak, erosketa publikoak, administrazioek berek azpiegiturak, ekipamenduak eta abar hornitzeko dituzten eskumenak gauzatzean egiten dituzten teknologia berritzaileko erosketa publikoak daude.

Lau modalitate horiek susperraldiari, eraldaketari eta erresilientziari modu orekatuan aurre egiteko aukera ematen dute. Eraldaketaren pisua estatuko eta lurraldeetako PERTEen eskutik etorriko da, baina baita gainerako tresnen eskutik ere. Hori guztia suspertzearen onerako izango da, eraldaketak eta erresilientziak duten lehentasunaren bidez.

6 https://www.boe.es/boe/dias/2014/08/01/pdfs/BOE-A-2014-8353.pdf eta https://www.boe.es/boe/dias/2016/06/23/pdfs/BOE-A-2016-6122.pdf


H2
ENERGY
STORAGE

# 3 /

# Euskadi Next

**ERREKUPERAZIOAREN, ERALDAKETAREN ETA ERRESILIENTZIAREN ZERBITZURA DAGOEN ESPEZIALIZAZIO ADIMENDUNEKO ESTRATEGIA**

# 3.1 / Planteamendu orokorra

**Euskadi Next programaren bigarren bertsioaren planteamendua ez da aldatzen 2020ko abenduaren 29an aurkeztutako dokumentuan aurkeztutakotik. Ildo horretan, suspertzerako, eraldaketarako eta erresilientziarako inbertsio-lehentasunak islatzen dituzten 8 osagaiei eutsi zaie, eta, beraz, koherenteak dira Europako Batzordeak adierazitako zazpi esparru enblematikoekin, eta baita apirilaren 13an aurkeztutako "España Puede" Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren bigarren bertsioan jasotako 10 palankekin eta 30 osagaiekin ere. Eta bertan, osagaiak osatzen dituzten erreformak eta inbertsio-ildoak zehazten dira.**

Euskadi Next programaren 8 osagai SEEP-PRTR programaren 30 osagaiekin lotzen dituen grafikoa



Horrela, Euskadi Next programako 8 osagaien eta SEEP-PRTRko 30 osagaien arteko harremanari eutsi egin zaio, Euskadi Next programaren lehen bertsioan aurkeztu zen bezala.

Lehen bertsioarekiko desberdintasuna oraingo honetan esfortzu eta baliabideak eraldaketaren alde iraultzeko premian datza, eta ez hainbeste susperraldiaren alde, berehalako susperraldiaren ondoriozko lehenespenaren kontrapisu gisa, Espainiako ekonomiaren lehiakortasuna eta produktibitatea hobetzeko balio behar duten baliabideen ahalmen eraldatzailea alferrik galtzea ekar baitezake. Ildo horretan, ez da ulertzen Estatuko aurrekontu orokorretan jasotako SEM-MRRko 24.168 milioiak urtearen barruan egikaritzeko obsesioa, aurtengo BPGren hazkundeari zuzenean lotuz. Kontua ez da galdutakoa berreskuratzea, baizik eta aberastasuna sortzeko oinarriak eraldatzeko aukera baliatzea, lurralde-kohesio handiagoa lortu nahi baita. Kontua ez da 2021ean pentsatzea, 2030ean baizik. Ildo horretan, ahuleziak arintzeko planteamendu zabalduarekin kontrajartzen da indarguneak bultzatzearen aldeko apustua, indargune horiek eraldaketarako ahalmen katalizatzaile handiagoa dutelako. Oreka handiagoa behar da ahuleziak murrizteko, indarguneak bultzatzearekin batera. Horrek guztiak esan nahi du eraldaketak ekonomiaren susperraldia ekarriko duela, eta susperraldi ekonomikoak, berriz, ez duela ezinbestean ekarriko behar den eraldaketa.

Horren guztiaren ondorioz, garrantzi handiagoa eman zaie eraldaketaren oinarri izan daitezkeen proiektuei; izan ere, proiektu konplexuak direnez, erantzun berritzaileak eta asmo handikoak behar dituzte, hala nola PERTEak, “prozesu guztiak arintzeko aukera ematen duen autobide administratibo” gisa ulertuta. Hori dela eta, ziurrenik datozen urteetan gauzatuko diren estatuko 10 PERTEetatik 6 ezagutzen direnez, Euskadin PERTE horietan lekua izan dezaketen eta palanka eraldatzaile gisa jardun dezaketen proiektuak formulatzen ari dira.

Baina, horrez gain, aurreikusten da PERTE mekanismo hori bera artikulatu behar dela, estatuko PERTEetan jasota ez egon arren, espezializazio adimenduneko estrategien esparruan autonomia erkidegoen mailan indarguneak ordezkatzen dituzten eremuetarako. Hain zuzen ere, Europako Batzordeak 2014-2020 Urte Anitzeko Finantza Esparrua dela-eta sustatutako RIS3 espezializazio adimenduneko estrategiei esker (FEDER eta FSE egiturazko funtsak lortzeko baldintzapekotasun gaitzaile gisa eskatzen dira), egiturazko funtsen ahaleginak Europako eskualde bakoitzak zituen indarretan bildu ahal izan dira, eskualde bakoitzak lehiakortasuna hobetuko duen bereizketaren eta espezializazioaren aldeko apustua egin dezan. Une honetan arduragabekeria litzateke baliabide propioekin eta baliabide europarrekin bultzatutako indargune horiek ez erabiltzea, eta SEM-MRRtik datozen baliabideen zati handi bat horietara bideratzea. Horregatik, lurraldeetako PERTE figura garatzearen aldeko apustua egiten da, autonomia erkidegoek RIS3 espezializazio adimenduneko estrategietan sakondu ahal izan dezaten.

Gainera, Euskadiko RIS3 estrategiaren espezializazio-arloek lotura zuzena dute eraldaketa energetiko-ekologikoarekin eta eraldaketa digitalarekin lotutako erronkekin, eta guztiz bat datoz Euskadi Next programari forma ematen dioten 8 osagaiekin, hurrengo grafikoan ikus daitekeen bezala.

8 osagaiak RIS3ren 7 arlo estrategikoekin erlazionatzen dituen grafikoa




Horrekguztiaknorabidebereraeramatendu,hauda, ekoizpen-, zientzia-, teknologia- eta prestakuntza-gaitasunen emari hori guztia alferrik ez aprobetxatzera, aurrean dugun eraldaketa-erronka izugarriaren aurrean. Horietan sakontzea da suspertze aldia katalizatzeko inbertsiorik onena, etorkizuneko belaunaldientzat pentsatutako egiturazko eta ibilbide luzeko planteamendutik abiatuta. Planteamendu horrek berehalako ondorioak izango ditu suspertze gisa.

# 3.2 / Estatuko PERTEei laguntzen dieten trakzio-proiektuak

Euskadik gaitasun eta proiektu garrantzitsuak ditu, oraingoz Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planean identifikatutako estatuko sei PERTEen esparruan. Gaitasun eta proiektu horiek PERTE bakoitzari lotutako erronkei aurre egiteko berme dira, eta, zalantzarik gabe, beharrezkoak diren eraldaketak katalizatuko dituzte. Gaitasun zientifikoak, prestakuntzakoak, teknologikoak, industrialak dira, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren lehen eraldaketa sozioekonomikotik ari dira garatzen eta sustatzen, zientzia-, teknologia- eta berrikuntza-politika irmoen, industria-politikaren, LHko politikaren, unibertsitate-politikaren eta abarren bidez. Gaitasun teknikoak ez ezik, antolaketa-gaitasunak ere badira. Alde horretatik, adibide argia da bultzatu nahi den PERTE ikuspegiak aurrekariak dituela Euskadin, eta "*know how*" bat eskuratzea ahalbidetu dutela lankidetza publiko-pribatuaren arloan eta produkzio-sarea eraldatzen duten sektoreak dinamizatzearen eta dibertsifikatzearen arloan. Duela 30 urte existitzen ez zen, baina, bai aeroegituren azpisektorean, bai motorren azpisektorean, gaur egun klusterra eta trakzio-enpresak dituen Euskal industria aeroespazialaren kasua da. "*Savoir faire*" hori, estatu-mailako eta lurralde-mailako PERTEak garatzeko aktibo bat da.




Estatuko PERTEei dagokienez, Euskadik eremu publikotik zein pribatutik egiten du ekarpena, eta zeharka eskaintzen du bere ezagutza eta kultura-ondarea, xede-ikuspegi hori sustatzeko, eta baita lortu nahi diren eraldaketak katalogatuko dituzten gaitasun zientifikoak, teknologikoak, industrialak eta prestakuntzakoak ere, gure produkzio-sarearen lehiakortasun handiagoa lortzeko.

Euskadi Next-en osagaien eta Estatuko PERTEen arteko erlazioa




Oraingoz, hauek dira Euskadin detektatutako gaitasun eta proiektuak, estatuko PERTEekin guztiz bat datozenak. Gainera, gaitasun eta proiektu horiek Euskadiko RIS3 espezializazio adimendunaren estrategiaren parte dira. Hona hemen:

## AUTOMOBILGINTZA ADIMENDUNAREN INDUSTRIA

Automobilgintzaren sektoreko balio-katean digitalizazioa bultzatzeko proiektuak.

| Euskadi Next Proiektua | Inbertsioa guztira M€ |
|---|---|
| **Automobilgintzako fabrikazio aurreratuko zentroa: 4.0 industria**<br>Lankidetza publiko-pribatuko zentroa Mercedes-Benzekin eta bere hornitzaileekin, teknologia jasangarriak eta digitalak aplikatzeko, gaitasun berriei eta lanbide-profilei buruzko prestakuntza emateko eta industrializazioa bultzatzeko lankidetzan oinarritutako I+G+b jarduerak garatzeko. | 30,0 |
| **Smart Factory etorkizuneko mugikortasun iraunkorrerako**<br>Konektatutako fabrika adimenduna, birtualizatua, segurua eta eskalagarria garatzea (Gestamp), etorkizunean eskalatu beharreko bi planta piloturen bidez, Estatuko beste zazpi autonomia erkidegotan eta EBko sei lantegitan. Prestakuntza eta enplegua proiektuaren berezko zati dira, “*upskilling*” eta “*reskilling*” bidez. | 202,9 |



## EUSKADI BATTERY INITIATIVE

Euskadin, maila globalean lehiakorra den industria-jardueraren sektore bat bateria elektrikoen fabrikazioaren balio-katean artikulatzeko trakzio-proiektuak. Proiektuek manufaktura-metodo aurreratuenak eta jasangarritasunaren eta ekonomia zirkularraren estandar altuenak jasotzen dituzte, eta Europako automobil-industriarekiko mendekotasuna eta Txinaren gero eta mendekotasun handiagoa apurtzea dute helburu.

| Euskadi Next Proiektua | Inbertsioa guztira M€ |
|---|---|
| **Battery Pack Multimobility**<br>Mugikortasun mota desberdinetara eta erabilera behar desberdinetara bideratutako “Battery pack-ak” garatzeko eta fabrikatzeko proiektua.<br>“Battery pack-ak” funtsezko elementuak izango dira mugikortasun elektrikoa ibilgailu mota desberdinetan integratzeko, hala nola furgonetetan, autobusetan, trenetan… gelaxken potentziala eta Power trains ezberdinen funtzionamendua maximizatzeko xedez.<br>Proiektuaren ardatza nazioarteko erreferentzia diren CAF, Irizar eta Mercedes bezalako hiru OEMei lotutako “Battery packs” izenekoen garapenean zentratzen da. | 50,0 |
| **Basquevolt Gigafactory**<br>Espainian ibilgailu elektrikoaren balio-katea osatzeko proiektua, Arabako lurraldean egoera solidoko bateriak fabrikatuz. Horrela, Europako estrategiari ekarpena egingo da 2028an baterien munduko merkatu-kuotaren % 25 lortzeko.<br>Txinaren egungo mendekotasun teknologikoaren aurrean, norbere teknologia (subiranotasun teknologikoa) garatzeko herri-proiektu estrategikoa. Basquevolt fabrikak Estatuko OEM eta Europa osoko beste gigafaktoriak hornituko ditu. Horretarako, Basque voltek 4.0 industria, digitalizazioa, birziklapena eta baterien bigarren bizitza bultzatuko ditu. BASQUEVOLT proiektua KIC INNOENERGY Iberia S.L. buru duen BATTCHAIN proiektuaren barruan dago, eta Industria Lehiakortasuneko eta Iraunkortasuneko trakzio-proiektuak bultzatzeko MDIan aurkeztu da.<br>Proiektu horrek, oro har, balio-kate industrial oso eta zirkular bat garatzea bilatzen du, arinak eta ingurumenaren aldetik jasangarriak izango diren, eta kostu txikiagoa, ahalmen handiagoa eta balio-bizitza luzeagoa izango duten bateriak ekoizteko. Balio-kate horrek honako hauek hartzen ditu barne:<br>• Lehengaia (litioa) ateratzea eta bihurtzea.<br>• Gelaxken 10GWh arteko ekoizpena.<br>• Automobilentzako eta ibilgailu arinentzako battery packen fabrikazioa azken miliako banaketarako.<br>• Ibilgailu arinak mihiztatzea.<br>• Bateriak birziklatu eta berrerabili arte, kasu batzuetan tokian tokiko aplikazioetarako bigarren bizitza bat emanez.<br>**MDI ›** Energia-sistemaren, azpiegitura elektrikoaren eta sare adimendunen malgutasuna eta energia-biltegiratzearen hedapena<br>Ekonomia zirkularra sustatzea enpresaren esparruan<br>Industria Lehiakortasuneko eta Jasangarritasuneko Trakzio-proiektuak Bultzatzeko Programa | 882,0<br>(Basquevolten inbertsioaren zenbatekoa adierazten da, ez Battchainena) |
| **Battery packs & Mubil**<br>**Hazkunde handiko sektoreei eta Gipuzkoa eta Euskadirako estrategikoak direnei zuzendutako baterien diseinu- eta ekoizpen-fabrika**<br>Helburu nagusia Li-Ion baterien diseinu-, ekoizpen- eta mihiztatze-fabrika bat sortzea da, tokiko teknologiarekin garatutako eta etengabeko bilakaeran dagoen produktu bat izateko. | 75,0 |

## EUSKADI GIDATZE AUTONOMOA

Euskadi gidatze autonomoaren eta mugikortasun jasangarriaren esparruan enpresa-garapenerako dituen aukeren segmentuan sartzeko hazia izango diren ekimenak eta proiektuak bultzatzea. Hori guztia, elektrifikazioaren, zibersegurtasunaren eta mugikortasunaren aurrerapenekin batera, sektorearen bilakaera eta balio-katea markatuko dituzten alderdiak izango dira. Geolokalizazioa, adimen artifiziala, sentsoreak, kamerak, gailu laguntzaileak, radarrak, komunikazio-elementuak, etab. bezalako elementuak, gero eta gehiago, ibilgailu berrien gero eta zati garrantzitsuagoak dira, eta, horrela, arlo horietan soluzioak ematen dituzten enpresa berrien eskaria bultzatzen da.

| Euskadi Next Proiektua | Inbertsioa guztira M€ |
|---|---|
| **Basque CCAM LAB**<br>Automobilgintzaren sektorea trantsizioan murgilduta dago. Trantsizio horretan, fabrikazioari edo motorizazioari lotutako alderdiak aldatzeaz gain, mugikortasunaren kontzeptu berri baterako bide zuzena ikusten da, ibilgailuak egiteaz harago. Elektrifikazioa, gidatze autonomoa eta konektatua, zibersegurtasuna edo mugikortasuna, zerbitzu gisa, sektorearen eta balio-katearen bilakaera markatuko duten alderdiak izango dira.<br>Horrela, gidatzeari lotutako softwarearen TIER hornitzaile berriak gero eta gehiago sortzen dira. Zenbait alderdi, hala nola zibersegurtasuna, geolokalizazioa, adimen artifiziala, etab., edo sentsoreak, kamerak, laguntzaileak, radarrak, komunikazio-elementuak, etab., ibilgailu berrien zati garrantzitsu bihurtzen ari dira, eta, horrekin batera, mugikortasunarekin lotutako zerbitzuak azaleratzen ari dira. Horrek guztiak automobilgintzaren balio-katearen eta mugikortasunaren aldaketa nabarmena dakar, eta hori datozen urteetan areagotu egingo da, eta horretara egokitu beharko da gure industria-sarea.<br>Testuinguru horretan, euskal industria-ehuna, bai I+G ikuspegitik, bai industria-garapenaren, trebakuntzaren eta negozio-aukera berriak sortzearen ikuspegitik mugikortasun-ingurune berri horretara eramango duen proiektu bat planteatzen da.<br>MDI › Industria Lehiakortasuneko eta Jasangarritasunerako trakzio-proiektuak Bultzatzeko programa | 152,0 |
| **Erreferentziazko MUBIL Poloa Mugikortasun Adimendunean eta Jasangarrian**<br>Mugikortasunaren eta garraioaren sektoreko joeren ezaugarri dira, 2030era arte, elektrifikazioa (250 milioi ibilgailu elektriko), konektagarritasuna (700 milioi ibilgailu) eta automobilen autonomia (90 milioi ibilgailu) areagotzea, eta kontsumitzaileen ohiturak mugikortasun partekatura aldatzea (600 milioi erabiltzaile). Horrek guztiak mugikortasun berria deritzona osatzen du. Joera horien alde egiten dute sektoreko eragile nagusiek, eta baita maila guztietara hedatzen ari diren erakunde eta politika publikoek ere.<br>Behar horren aurrean, MUBIL Poloak elkartzeko, elkarreragiteko eta integratzeko ekosistema bat eratu nahi du, aukera berriak sortzeko eta mugikortasun berriaren esparruko erronkei erantzuteko, zerbitzu-eskaintza integral baten bidez. MUBIL POLOaren proiektuaren zati bat BH2C (Basque Hydrogen Corridor) proiektuan dago jasota, hidrogenoarekin lotutako azpiegitura teknologikoko eta produktuaren garapeneko proiektuekin.<br>MDI › Industria Lehiakortasuneko eta Jasangarritasunerako trakzio-proiektuak Bultzatzeko programa | 156,0 |
| **Mugaz gaindiko korridore estrategikoa mugikortasun elektrikoan eta konektatuan**<br>Europako Mugaz gaindiko bigarren living lab-a, Alemania/Austriakoarekin batera. Gipuzkoa Living Labek muga lehenetsiko du, eta balizak jartzen hasiko dira Behobian; ondoren, lurraldeak dituen 108 kilometroekin jarraituko da, egunero AP-8 eta AP-1 autobideak erabiltzen dituzten 50 mila ibilgailu baino gehiagori zerbitzua emateko. Balizek eta sentsoreek ITS-5G komunikazio-sistemarekin funtzionatuko dute. Sistema horrek datuak transmititu eta jasoko ditu, azpiegiturak, ibilgailuak eta bide-sarearen kudeatzaileak datuak eta informazioa denbora errealean parteka ditzaten. Sentsoreetatik eta hainbat iturritatik jasotako datu guztiak Big Data plataforma batean sartuko dira, eta adimen artifizialeko algoritmoen bidez, mugikortasun adimendun, konektatu eta segururako balio erantsia duten zerbitzuak sortuko dira. | 45,0 |

## MUGIKORTASUN-AZPIEGITUREN SARE ADIMENDUNA

Ibilgailuak eta kudeaketa-sistemak digitalizatzeaz gain, mugikortasun jasangarriko eredu berriek adimena eman beharko diote sareari, zerbitzu aurreratuak ahalbidetzeko eta ibilgailuen eta azpiegituren automatizaziorako eta konektibitaterako trantsizio egokia ahalbidetzeko, horrela, garraio-sistema seguruagoa, eraginkorragoa, irisgarriagoa eta gutxiago kutsatzen duena lortzeko.

| Euskadi Next Proiektua | Inbertsioa guztira M€ |
|---|---|
| **Foru-errepideen sarea digitalizatzea**<br>Ibilgailuen eta azpiegituren automatizaziorako eta konektibitaterako trantsizio egokia bultzatzea, eta garraio-sistema seguruagoa, eraginkorragoa, irisgarriagoa eta gutxiago kutsatzen duena lortzeko behar den teknologia aplikatzea. Inbertsioa bide-sare seguruagoa, digitalizatuagoa eta horren kudeaketa eraginkorragoa lortzera bideratuta dago. | 181,6 |

**MDI >** Garraio sektorearen eraldaketa digital eta jasangarriari buruzko MDI

## EUSKADI MOBILITY LABS

Proiektu pilotuak abian jartzea, ingurune errealetan mugikortasun-teknologia eta -sistema aurreratuak probatzeko. Teknologiak hobetzeko eta haien ezarpena eskalatzeko jardunbide egoki eta eredu izan behar duten proiektuak.

| Euskadi Next Proiektua | Inbertsioa guztira M€ |
|---|---|
| **Vitoria-Gasteiz Mobility Lab**<br>Vitoria Mobility Lab-ek berrikuntza-zentro bat izan nahi du, hiri-garraioko joera berriak Gasteizen eta Araban aztertzeko, probatzeko eta aplikatzeko, hala nola:<br>• Kale adimendunak.<br>• Autobus eta automobil autonomoak.<br>• Ibilgailu elektrikoa, aparkaleku adimendunak.<br>• Trafikoari aplikatutako "Big data".<br>• Zamalanetarako sistema adimendunak.<br>• Etab. | 327,5 |
| **Gipuzkoa Living Lab**<br>Helburua da Gipuzkoako errepideen foru-sarean garraio-sistema adimendunen living lab bat martxan jartzea mugikortasun adimendun, kooperatibo, konektatu eta autonomorako (CCAM), eragileek beren produktuak berritu eta probatzeko aukera izan dezaten, eta baita administrazioak eraginkorragoa izateko eta herritarrei zerbitzu hobea eskaintzeko soluzio berritzaileak gara ditzan ere.<br>Living Lab hori, Frantziarekiko mugan dagoen Gipuzkoako egoera estrategikoagatik, mugaz gaindikoa izango da, eta, horri esker, hainbat herrialderen arteko sistemen elkarreragingarritasuna frogatu ahal izango da, eta TEN – T errepide-sareko ardatz atlantikoan erreferentzia izan ahal izango da.<br>Europa barneko garraio-sareko proiektu mota hori da Europako Batzordea bilatzen ari dena, Europako eragileak mugikortasunaren mundu seguruan, konektatuan eta autonomoan sortzen ari den disrupziorako prestatzeko. | 3,9 |

# Energia sorkuntza hidrogeno berdearen bitartez

| Euskadi Next Proiektua | Inbertsioa guztira M€ |
|---|---|

## BENORTH2
### Industrial Scale Green H2

30,0

20 MW-eko hidrogeno berdeko ekoizpen-planta, Zornotzako (Bizkaia) ziklo konbinatuko plantan, 2030ean ekoizpena 200 MWra heltzeko asmoz.

**MDI ›** Energia-trantsizio justu eta inklusibo baterako trakzio-proiektuak: Hidrogeno Berriztagarria

## Hidrogenoaren Euskal Korridorea-BH2C

1.300,0

Hidrogenoaren ekosistema sortzea Euskadin. Gaur egun, 34 proiektuko “kluster” bat du, energiaren, garraioaren, industria- eta zerbitzu-sektoreen deskarbonizazioan aurrera egiteko, eta baita biltegiratzearen erronkari heltzeko ere, balio-katea integratuz, hidrogenoaren ekonomiaren garapena industria eta teknologia bultzatzeko aukera gisa erabiliz. Horrek guztiak, enpresak erakartzeko, produktu berriak garatzeko, I+G arloko gaitasunak garatzeko, unibertsitateekin eta LHrekin prestakuntza jasotzeko, etab. aukera emango du.

**MDI ›** Energia-trantsizio justu eta inklusibo baterako trakzio-proiektuak: Hidrogeno Berriztagarria

Industria Lehiakortasuneko eta Jasangarritasunerako trakzio-proiektuak Bultzatzeko Pograma

## IBERLYZER
### Hidrogenoaren balio-katearen garapena herrialdean

80,4

Hidrogenoa sortzeko elektrolisi-plantak garatu, industrializatu eta hornitzeko proiektua. Sistema horiek instalazio bakoitzeko hamarnaka MW-tik ehundaka MW-ra bitarteko mailan egongo dira. Horrela, Europar Batasunean 2030era arte 40 GW elektrolizagailu garatzeko erronkari lagunduko zaio, eta horietatik 4GW Espainiari dagozkio.

**MDI ›** Energia-trantsizio justu eta inklusibo baterako trakzio-proiektuak: Hidrogeno Berriztagarria



# Industria aeroespaziala

## Euskadi Next Proiektua

Inbertsioa guztira
M€

### Aerostructures sMart fActory ZerO lateNcY

41,9

Proiektuak Aire-egituren Sektore Aeronautikoan eragiten du: TIER1 eta TIER2 hornitzaileen sarean (Composite teknologiak eta Metalikoak).

Smart Factory eta *"Digital Supply Network"* izenekoetarako industria-trantsizioak sektorearen hornidura-katearen maila guztiak integratuko ditu, egitura eta osagai aeronautikoak muntatzeko eta fabrikatzeko jardueraren industria-kudeaketan informazioa automatizatzean eta integratzean oinarrituta. Horrek, aurrezkien bidez lehiakortasuna hobetzea dakar: fabrikazio-kostuetan, instalazioen mantentze-lanetan, zirkulatzailean eta aire-egituren jardueraren fabrikazio-zikloetan.

**MDI ›** Industria Lehiakortasuneko eta Jasangarritasunerako trakzio-proiektuak Bultzatzeko programa

### HAPS-4-All / A Space Venture

59,5

Proiektua lurreko behaketa-sistema bat garatu eta abian jartzean eta espaziotik 5G komunikazioak hobetzean datza. Berrikuntza teknologiko aeronautiko-espazialean oinarritutako ekimena da, eta I+G, prozesuen antolaketa, ekipo, software eta material berriak, hegaldiak kudeatzeko prozedura berriak eta datuen tratamendua –'*technological break-through*' garrantzitsua– eskatzen ditu.

Trantsizio Ekologikoa, Jasangarritasuna, Big Data, Adimen Artifiziala eta 5G alderdiak barne hartzen ditu.

### Orbita

42,5

Gasteizko Forondako aireportutik (VIT) satelite txikiak jaurtitzea, Virgin Orbiten LauncherOne anezkaren bidez, eta ibilgailu orbitala (OTV) garatzea, sateliteak beren azken orbitan kokatzeko.

### Propaero / Propultsio aeronautikoa

190,4

Pandemiak industria aeronautikoan duen eragina gainditzeko, ITP Aerok, bere hornidura-katearekin lankidetzan, produktu berrietara hedatzeko eta lehiakortasuna hobetzeko proiektu integratu bat abiarazi du, covid osteko merkatuan birkokatzeko. Merkatu hori oldarkorragoa izango da merkataritzaren aldetik, eta energia- eta ingurumen-helburuen osagai nabarmenagoa izango du. Beraz, proiektu integratuak hainbat jarduera-tipologia hartzen ditu barne, hala nola:

- Industria-trantsizioa.
- Prozesuen berrikuntza eta antolaketa-berrikuntza.
- Prozesuen eta produktuen digitalizazioa.
- I+G+b.

**MDI ›** Industria Lehiakortasuneko eta Jasangarritasunerako trakzio-proiektuak Bultzatzeko programa

# Nekazaritza jasangarria eta eraginkorra

| Euskadi Next Proiektua | Inbertsioa guztira M€ |
|---|---|
| **Basque Food Ecosystem**<br>**Euskal elikadura-sistema seguru, iraunkor eta osasungarria garatzea**<br>Balio-kate osoa barne hartzen duen elikaduraren paradigma berri batean aurrera egitea, populazio zahartuaren elikadura osasungarriak dituen erronkei erantzuteko, proteina-iturri berriak garatzeko, teknologia berri eraginkorragoak eta jasangarriagoak garatzeko. Hori guztia bat dator "*from farm to fork*" Europako estrategiarekin eta Europako "*Green recovery*" itun berdearekin. | 82,0 |
| **Smart_Food Country 4.0**<br>**Euskadiko elikadura-katearen digitalizazioa**<br>Euskadiko elikagaien balio-katea digitalizatzea, kalitatezko produktu osasungarriak eta prezio lehiakorrak eskaintzeko, enpresek kalitatezko balioa eta enplegua sor dezaten. Elikagaien digitalizazioa, iraunkortasuna eta segurtasuna dira elikadura-katearen eraldaketaren oinarria. | 171,0 |
| **Nekazaritzako eta basogintzako bioekonomiaren garapena**<br>**Desarrollo de un sistema agroforestal sostenible e innovador que garantice el aprovechamiento de residuos y materias primas agroforestales para el desarrollo de nuevos productos innovadores**<br>Ekimenak, epe labur-ertainean, nekazaritzako eta basogintzako bioekonomiaren erreferentziazko eragile global bilakatu nahi du Euskadi. Hauek dira sustatu beharreko proiektuak:<br>1) Enpresa berriak sortzea (egurraren zelulosa-ehunak, landare-hazkuntzako ehunak ugaritzea, latxa ardi-artiletik egindako ehunak, intsektuen ekoizpena, algen ekoizpena, bioenergia sortzea, etab.).<br>2) Negozio-ildo berriak bioekonomian lanean ari diren euskal enpresetan (belar biodegradagarriaren aurkako sarea, packaging jasangarria, koloratzaile artifizialak azaletik sortzea, biotxarra mikroorganismo eraginkorrekin aberastea animalien elikaduraren gehigarri eta ongarri gisa aplikatzeko, hiri-altzarietarako biokonpositeak ekoiztea, etab.)<br>3) Bioekonomiarako Euskal Aliantza eta ekintzaileetzako eta berrikuntzako hub-a sendotzea. | 96,2 |
| **Ardoa Wine Center**<br>Mahastizaintzako eta ardogintzako ekoizpenaren balio-katea aztertzeko eta eraldatzeko zentro bat diseinatzea eta abian jartzea, teknologia berrien erabileran oinarrituta (zehaztasuneko nekazaritza, iot, sentsorikoa...) eta ekoizpen- eta merkaturatze-prozesuak hobetzea.<br>**MDI ›** Zientzia eta Berrikuntza Ministerioaren I+G programa osagarria | 9,1 |
| **Akuikultura ekoizpenerako lurreko parkea Basordasen**<br>Proiektuaren helburua akuikultura ekoizpenerako poligono berritzaile eta iraunkorra sortzea da, akuikulturaren balio-kate osoan zehar, Ekoizpen, I+G+b, Eraldaketa, Kontserbazioa eta Logistika faseen barruan. Urtean 5.000 eta 10.000 tona artean ekoiztea eta 200 lanpostu zuzen eta 360 zeharkako sortzea aurreikusten da.<br>**MDI ›** Industria Lehiakortasuneko eta Jasangarritasunerako trakzio-proiektuak Bultzatzeko programa | 105,0 |
| **Food hub / Euskadiko nekazaritzako elikagaien poloa**<br>Nekazaritzako elikagaien euskal ekosistemako enpresak erakarri eta bilduko dituen azpiegitura bat garatzea. Mercabilbaoko egungo instalazioak Espainia iparralderako elikadura-logistikaren gune estrategiko bat dira, eta IV. eta V. gamako produktuak garatzeko instalazio berriak behar dira; horrela, hazkunde adimentsu eta jasangarriko estrategiak bultzatuko dira. | 20,0 |

# Punta-puntako osasun-sistema nazionalaren garapena

| Euskadi Next Proiektua | Inbertsioa guztira M€ |
|---|---|
| **Euskadiko Terapia Aurreratuen garapenaren eta ezarpenaren bizkortzea**<br>Proiektuaren helburua Euskal Autonomia Erkidegoan Terapia Aurreratuak garatzeko eta ezartzeko ekosistema jasangarri publiko-pribatu bat sendotzea da, garapen terapeutikorako eta asistentzialerako ezagutza sortzeko eta integratzeko ikerketaren bidez, pazienteen tratamendurako. | 9,4 |
| **ISARDNAT**<br>Plataforma integral eta modularra, giza osasunaren arloan gaixotasun infekziosoak diagnostikatzeko eta kontrolatzeko sentsibilitate handiko immuno-saiakuntzak eta analisi molekular multiplexatuak egiteko gaitasun handiko prozesamendurako. | 353,1 |
| **Osasunberri**<br>Covid-19 eta etorkizuneko pandemiak kudeatzeko diagnostikoaren eta terapien soluzio integrala. Lau lan-ildo garatzea aurreikusten du:<br>1) Testak ekoiztea (D bitamina mailak, Covid19 antigenoaren detekzioa, SARS-COV-2ren aurreko antigorputzak detektatzea, osagai osagarriak, etab.).<br>2) Terapiak garatzea (D bitaminaren defizitaren aurrean, terapia immunomodulatzailea covid19 pazienteentzat, terapia zelularra covid19 pazienteentzat.<br>3) Fabrikazio industrialeko lerroak martxan jartzea.<br>4) Lehiaren zaintza, industria-diseinua, digitalizazioa, ziurtapena eta industria-babesa.<br>MDI › Industria Lehiakortasuneko eta Jasangarritasunerako trakzio-proiektuak Bultzatzeko programa | 199,0 |
| **Nodo Farmacéutico Alavés**<br>Erreferentzia-nodoa honela osatuta egongo litzateke:3. Terapia pertsonalizatuak genetikaren eta genomika funtzionalaren barruan. 4. Osagaiak, elikagaiak eta elikadura-osagarri funtzionalak garatzea:<br>1) BPL 4.0: Garapen galenikoko I+G+b arlotik ikerketa klinikora, eskatutako fase esperimentalak eta analitikoak hartzen ditu barne.<br>2) Bioinprimaketa: 3Dko bioinprimaketa aplikatzea terapia farmazeutiko pertsonalizatuetan, farmakoen inprimaketatik ikerketa toxikologikotik ehunen eta organoen inprimaketaraino.<br>3) Terapia pertsonalizatuak genetikaren eta genomika funtzionalaren barruan.<br>4) Osagaiak, elikagaiak eta elikadura-osagarri funtzionalak garatzea. | 59,4 |
| **Project GANTT**<br>**Gipuzkoa Advanced New Therapies Territory**<br>Terapia aurreratuak garatzea; besteak beste, terapia genikoa, zelularra edo tisularra, orientazio industrialarekin. | 130,0 |

# 3.3 /

# 3.3. Lurraldeko PERTEak osatzen dituzten trakzio-proiektuak

Euskadik, gainera, “Lurraldeko PERTE” kontzeptuan sartzen diren zenbait trakzio-proiektu ditu. Proiektu horien artean hurrengo taulan jasotzen proiektuak daude. Ez du taula zehatza izan nahi, baina bai horrelako proiektuek duten garrantziaz jabetzeko bezain garatua. Bere izaera konplexuak, sektore anitzekoak, askotariko jarduerak barne hartzen dituztenak, hala nola inbertsioa, I+G, prestakuntza, etab., Estatuko PERTEn antzeko figura bat garatzeko beharra irudikatzeko balio dute, proiektuak zatitzea eta bideragarritasun ekonomikoari edo bideragarritasun teknikoari kalte egitea saihesteko.



**Euskadiko “Lurraldeko PERTEen” artean, honako hauek daude:**

- **Lurraldeko 1. PERTEa ›** Bizitza luzea, ongizatea eta erresilientzia.
- **Lurraldeko 2. PERTEa ›** Banaketa adimenduneko sareak (ura, gasa eta elektrizitatea).
- **Lurraldeko 3. PERTEa ›** Itsas jatorriko energia berriztagarriak.
- **Lurraldeko 4. PERTEa ›** Gaitasun zientifikoa eta teknologikoa.
- **Lurraldeko 5. PERTEa ›** Big Data, Cloud, Adimen Artifiziala, eta Zibersegurtasuna.
- **Lurraldeko 6. PERTEa ›** Euskadi sortzailea.
- **Lurraldeko 7. PERTEa ›** Hiri jasangarriak.
- **Lurraldeko 8. PERTEa ›** Klima-aldaketaren aurreko erresilientzia, ekosistemak eta biodibertsitatea.
- **Lurraldeko 9. PERTEa ›** Ekoberrikuntza.

## Lurraldeko 1. PERTEa › **Bizitza luzea, ongizatea eta erresilientzia**

Bizi-luzatze-, ongizate- eta erresilientzia-PERTEa osasunaren eta pertsonen zaintzaren osagaiaren parte da, eta pertsonak zaintzeko ereduaren jasangarritasun sozial eta ekonomikoa bermatzeko ekimen eraldatzaileen multzo bat biltzen du, biztanleriaren zahartze eta bizitza-luzetasun handiagoko testuinguru demografiko batean. Horretarako, politiketan eraldaketa sakona sustatzen da, eta horrek eragina du genero-ikuspegian, arreta- eta zaintza-eredu berrietan, sistemetan, zerbitzuetan, produktuetan eta eragileen arteko lankidetzan. Gizarte-berrikuntzako proiektu bat, lankidetza publiko-publikoarekin, publiko-pribatuarekin (enpresak eta hirugarren sektorea) eta ezagutza-zentroekin. Zahartze osasungarri eta aktiborako, autonomia pertsonalerako eta abarrerako berrikuntza-unitate gisa jardungo du. Ekimenak, halaber, eragina du zainketen arloko profil profesional berrien eta zerbitzuen prestazioaren kalitatea hobetuko duten gaitasun berrien garapenean. Lurralde-PERTEaren proposamen horrek talka egiten du, oraingoz, gobernu zentralak egindako planteamenduarekin. Ministerioaren “funtsak banatzeko” proposamenak, gaur egun behintzat, proiektuak deskonektatzea eragin dezake estrategia integral autonomiko batean aurreikusitako lehentasunei, eraldaketei eta arau-garapenei dagokienez, eta are gehiago euskal administrazioek (Eusko Jaurlaritzak eta Foru-aldundiek) kudeaketa-ahalmena, araudia... duten gaietan, bai gizarte-zerbitzuen arloan, bai osasun-zerbitzuen arloan. Eremu horretan lurraldeko PERTE planteamenduak apustu kualitatibo eta kuantitatibo argia egin nahi du zainketen esparruan eraldaketa –soziala, ekonomikoa, digitala– bultzatzeko. Eremu horretan PERTE bat kontuan hartzen ez bada, erantzunak zatitu egingo dira. Zainketa sozialen eta sanitarioen arteko funtsezko lotura hautsiko da. Gizarte-zerbitzuen esparruan, herrialde-estrategia integral baten parte diren proiektuak zatikatzera behartzen da. Ondorioz, alde batera uzten da gure ustez autonomia erkidego gisa egin behar dugun apustu estrategikoa, Ekonomia Itunaren araubidearekin, eta are gehiago eskumen esklusiboko gaietan, hargatik Estatuarekiko loturak ezartzea eragotzi gabe.

## Lurraldeko 2. PERTEa › **Banaketa adimenduneko sareak (ura, gasa eta elektrizitatea)**

Digitalizazioaren eta berrikuntzaren osagaiaren parte den Banaketa Sare adimendunen PERTEak, “ENERGIBASQUE” Euskal estrategia teknologikoan ditu sustraiak. Estrategia horrek zazpi teknologia lehenesten ditu, Euskal Autonomia Erkidegoko industria-, teknologia- eta ikerketa-sarearen indarguneak kontuan hartuta. Energia elektrikoaren garraioaren eta banaketaren eremuan, “sare adimendunak edo smart grid” izenekoak hautatu dira, Euskadiko sektore elektrikoa munduko erreferente gisa kokatzeko. Beste *utilities* (gasa, ura,

etab.), batzuen banaketaren esparruan lurraldeko PERTE horrek sektore honen eta ezkutuko txapeldunen[7] lehiakortasuna garatzen jarraitu nahi du. Banaketa-sare elektrikoei eta horien digitalizazioari buruzko ikuspegi hori beste *utilities* batzuen eremuetan ere errepikatzen da, hala nola, urean, gasean eta abarretan.

## Lurraldeko 3. PERTEa › **Gaitasun zientifikoa eta teknologikoa**

Itsas jatorriko energia berriztagarriak ENERGIBASQUE estrategiaren beste apustu bat dira, eta lurraldeko PERTEtzat hartzeko ezaugarri guztiak betetzen ditu. PERTE hori energia berriztagarriak sortzeko osagaiaren barruan sar-tzen da. Euskal Autonomia Erkidegoa eskualde liderra da olatuen energiaren garapenean, industria-ehuna eta intentsitate teknologikoa eta baliabide undimotorrak konbinatzen baititu, eta, ondorioz, euskal kostaldea leku ezin hobea da olatuen energia sortzeko gailuak garatzeko eta probatzeko. Gaur egun, Euskadi, olatuen energiaren garapenean 50 enpresa baino gehiago dituen balio-kateko funtsezko jarduera guztietan eragileen presentzia duen munduko eskualde bakanetako bat da. Euskadin, halaber, olatuen energiaren esparruan erreferentzia globaleko bi azpiegitura daude: Armintza (itsas energien osagaiak eta sistemak eskala errealean entseatzeko eta balioztatzeko azpiegitura berezia) eta Mutriku (sarera olatuen energiatik datorren elektrizitate gehien isuri duen instalazioa). Euskal erakundeek, olatuen energiaren arloan garrantzitsuak diren I+G arloko lankidetza-proiektu europar ia guztietan hartzen dute parte eta prestakuntzarekin (UPV/EHUk koordinatutako Erasmus Mundus REM Masterra), entseguekin edo nazioarteko irismenarekin (Offshore JRL-ORE Energia Berriztagarria Ikertzeko Laborategi Bateratua, edo Harsh-Lab, Europako laborategi flotagarri berria) lotutako beste ekimen batzuetan. Horretan, Euskadi bazkide aktiboa da, Europako beste eskualde batzuekin.

## Lurraldeko 4. PERTEa › **Capacitación científica y tecnológica**

Digitalizazioaren eta berrikuntzaren osagaian integratutako gaikuntza zientifiko eta teknologikoko lurralde PERTEa oinarrizko zientzia, zientzia aplikatua eta garapen teknologikoa bultzatuko dituen eskaintza zientifiko teknologikoaren garapenean aurrera egiten jarraitzeko beharraren ondorio da. Ildo horretan, beharrezkoa da zientziaren eta teknologiaren aldeko apustuak dakarren potentzialari balioa ematea; izan ere, ekonomian eta gizartean *spillover*-ak sortzen dituen iturria da, eta horiek ezin dira beti hauteman hedapenaren trazagarritasun lineala jarraitzen denean[8]. Zientzia eta teknologia ezaren kostua gero eta handiagoa da, eta, ildo horretan, beharrezkoa da garapena bultzatzen jarraitzea. Eusko Jaurlaritzak 80ko hamarkadaz geroztik garapen teknologikoaren alde egin duen apustua Euskadiko lehenengo eraldaketa sozioekonomiko handiaren palanka kritikotzat jo da. Apustu horri esker, I+G arloan defizit kroniko bat gainditu ahal izan zen, estatu mailan I+G arloko ahaleginean lurraldeen arteko buruan jarri arte, enpresa-ehunaren maila teknologikoa igotzen lagunduz eta, horrela, dibertsifikazio-apustuei aurre eginez, aeronautikari edo biozientziei, besteak beste. Etenik gabe garatutako zientzia- eta teknologia-politikak zientzia-, teknologia- eta berrikuntza-ekosistema baten banaketa bultzatu du, eta ekosistema horren etengabeko bultzadarekin, eraikitako indarguneetan oinarrituta, jarraitu behar da, erronka berriei heltzeko behar den intentsitate teknologiko eta zientifikoak etengabe hazten jarraitzen duelako, eta beharrezkoa da zientzia- eta teknologia-gaitasun berrien aldeko apustua egiten jarraitzea, Europako ikerketa-esparruari laguntzen jarraitzeko.

7 https://www.euskadi.eus/web01-a2reveko/es/k86aEkonomiazWar/ekonomiaz/abrirArticulo?idpubl=91&registro=1

8 Ikus, alde horretatik, Pedro Miguel Etxenike DIPCko Presidentearen alferrikako zientziaren erabilgarritasun bikainari buruzko hitzaldia: https://culturacientifica.com/2015/06/13/la-sublime-utilidad-de-la-ciencia-inutil-por-pedro-miguel-echenique/

## Lurraldeko 5. PERTEa ›
## Big Data, Cloud, Adimen Artifiziala, eta Zibersegurtasuna

Digitalizazioaren eta berrikuntzaren osagaian integratuta dagoen Big Data, Cloud, Adimen Artifiziala eta Zibersegurtasuneko PERTEak, teknologia digitalek lehiakortasuna, ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzeko eskaintzen dituzten aukeren aprobetxamendua maximizatzea du helburu. Espiritu horrekin egin zen Euskadiko 2020ko Agenda Digitala, eta espiritu horrekin jarraitu beharko da orain arte lau eremu handitan egindako lana, zeharka erantzun nahi baizaie PERTE honetan bildutako proiektuei:

- Gizartearen barruan erabateko jarduna izateko beharrezkoak diren gaitasun digitalak dituzten pertsonak.

- Merkatu digital globalizatu batean dauden enpresak, batez ere Basque Industry 4.0 Estrategian eta Euskadiko RIS3 Espezializazio Adimenduneko Estrategiak definitutako sektoreetara bideratutako industria adimendunaren garapenean aurrera egiten dutenak, horiek oinarri dituzten garapen teknologiko berriek eskaintzen duten ahalmenaren bidez (Big Data, Industria 4.0, Adimen Artifiziala, TIC...), baita teknologia horiek ahalbidetzen dituzten negozio-eredu berriak garatzea.

- Administrazioak ingurune digital batean bere funtzioa modu gardenagoan betetzeko, herritarren parte-hartzea eta kalitatezko zerbitzu publiko aurreratuen hornikuntza bultzatuz.

- Lurralde adimendunak eta kohesionatuak azpiegitura teknologikoak eskatzen ditu, hiri- eta landa-eremuetan balio erantsi handiko zerbitzuak garatu ahal izateko eta, horrela, kohesio handiagoa bermatzeko.

Erronka horretarako erantzunak eskaintzen dituzten proiektuen helburua berrikuntza zientifikoan eta teknologikoan aurrera egitea, laugarren industria-iraultzari aurre egitea eta enpresaren eraldaketa digitala bultzatzea da, digitalizazioaren dimentsio soziala ahaztu gabe, gizartean eten digitala murrizteko.

## Lurraldeko 6. PERTEa ›
## Euskadi sortzailea

Euskadi Creativa Euskadi lurraldeko PERTEak, hori ere digitalizazio- eta berrikuntza-osagaian txertatuta dagoena, erantzun egituratzailea izan nahi du Euskal Autonomia Erkidegoko kultura- eta sormen-industrien (KSI) sarea osatzen duten kultura- eta sormen-enpresen egungo “artxipelagoa” sendotzeko hedatzeko. Haren aberastasunak, sormena eta kultura ulertzeko eta adierazteko modu desberdinen aniztasunagatik, ekimen egituratzaileak eta lehiakortasuna bultzatzeko ekimenak behar ditu, teknologia txertatuz, eskaintza eta eskaria baldintzatzen dituen digitalizazioaren munduan sartzeko.

## Lurraldeko 7. PERTEa ›
## Hiri jasangarriak

Hiri Jasangarrien Lurraldeko PERTEa hiri-habitataren osagaian sartuta dago. Euskadik badu esperientzia bat, auzo kalteberetako hiri-berroneratze integralaren esparruan gizarte-berrikuntzako eredu bat sustatzeko bermea ematen diona. Izan ere, esperientzia hori Estatu osorako aktibo bat da, eta ekimenak beste hiri eta autonomia erkidego batzuetan duen eskalagarritasunaren onura jaso dezake, hiri-agendaren ministerioko arduradunek aitortu dutenez.

Hiri-berroneratzeari ikuspegi integral batetik heltzeko beharra, iraunkortasuna barne hartzen duten alderdi guztiak (sozialak, ingurumenekoak eta ekonomikoak) kontuan hartuta, alde batetik, hiri-errealitateari lotutako konplexutasunak “eraikuntza jasangarria” edo “energia-eraginkortasuna” bezalako elementuetara bakarrik mugatu ezin direnaren ebidentziatik eratortzen da, eta, bestetik, euskal estrategiak arlo horretan nazioarteko Agenden barruan (bai mundu mailan, bai Europa mailan) kokatzeko beharretik. Ikuspegi horren helburua hirukoitza da. Batetik, EAE lurralde orekatua, kohesionatua eta iraunkorra izatea lortu nahi du. Bestetik, lurralde-plangintzan eta hiri-berroneratze integralean eskuratutako ezagutza indartu nahi du, eta Euskadiko Espezializazio Adimenduneko Estrategiaren (RIS3) garapena ahalbidetu nahi du, hiri-berroneratze integralean I+G+b aplikatzearen bidez.

Eta, azkenik, Euskadi Europako erreferente gisa kokatu nahi du hiri-berroneratze integralari dagokionez, herritarren parte-hartzea izaera berritzailearen bektore izan dadin. Izan ere, azken hiru urteetan lanean aritu gara, Euskadiko eremu kalteberenetan esku hartuz, Hiri Agenda ezartzeko oinarriak ezartzeko. Zabaldu diren esperientzia pilotuekin lortutako esperientziari eta ezagutzari esker, jarrera egoki batetik abiatzea ahalbidetzen da, esku-hartze holistikoak dituen ekintza-plan bat sustatzeko, egoera okerrenean dauden eremuen kalteberatasun-baldintzak irauli ahal izateko. Planteamendu horretan, Euskadiko Hiri Agenda–BULTZATU 2050ean zeharkako izaeraz jasotzen diren ekintza asko jasotzen dira. Helburua da Hirirako Eskubidea gauzatu ahal izango den hiri-eredu baterako trantsizioa bultzatzea, pertsonak ekintzaren erdigunean jarriz eta dauden kapital nagusien balioa berreskuratzen saiatuz: giza kapitala, lurralde-kapitala eta administrazio-kapitala.

## Lurraldeko 8. PERTEa › **Klima-aldaketaren aurreko erresilientzia, ekosistemak eta biodibertsitatea**

Klima-aldaketaren, ekosistemen eta biodibertsitatearen aurkako erresilientzia duen lurraldeko PERTEa habitat naturalaren osagaian eta hondamendi naturalen prebentzioan dago txertatuta, eta Euskadin proiekzio eraldatzaile handiena duten proiektuak biltzen ditu, bai hondamendi naturalen aurreko erresilientzia hobetzeari dagokionez, bai ekosistemak eta haien biodibertsitatea kontserbatzeari eta lehengoratzeari dagokionez. Horretarako, beharrezkoa da uraren ziklo integrala, saneamendua eta arazketa kontuan hartzea.

## Lurraldeko 9. PERTEa › **Ekoberrikuntza**

Azkenik, Ekoberrikuntzako lurraldeko PERTEa ekonomia zirkularraren osagaiaren barruan dago. PERTE horrek Ekonomia Zirkularraren erronkari erantzun nahi dio, ekodiseinua (produktu eta zerbitzu baten ingurumen-inpaktuen (eta kostuen) % 80 diseinu-etapan zehazten da), "iraunkortasunerako zerbitizazioa" (erabileraren araberako ordainketara bideratutako negozio-eredu berriak), konponketa aurreratua eta osagaien eta ekipoen birfrabrikazioa eta birmanufaktura landuz. Azken finean, helburuak, osagaiak eta ekipoak ikuskatu, diagnostikatu, garbitu, konpondu, muntatu eta balioztatzea, xahutzearen prebentzioa, energia aurreztea eta materialen bi korronte birziklatzea dira: metalak eta plastikoak.

**Euskadi Nexten eta Lurraldeko PERTEen osagaien zerrenda**




Jarraian, eskualdeetako PERTEak elikatzeko oraingoz identifikatu diren proiektuak zehazten dira.

# Bizitza luzea, ongizatea eta erresilientzia

## PRESTAKUNTZA ETA I+G

Zahartze-prozesuen, premia soziosanitarioen eta biztanleriarentzako produktu eta zerbitzu espezializatuen garapenaren azterketan prestakuntza espezializatua eta I+G+b proiektuak bultzatzeko proiektuak.

| Euskadi Next Proiektua | Inbertsioa guztira M€ |
|---|---|
| **Profil profesional berriak eta gaitasun berriak zainketen erronkari erantzuteko**<br>Gaitasunen Euskal Agenda sortzea, zainketen arloko lanbide-profilak identifikatu eta zehaztu ahal izateko. Agenda horrek oinarri hauek izango ditu: zainketen sektorea profesionalizatzea, kalitatezko eskaintza egituratzea eta eskaria sendotzea. | 5,0 |
| **Zahartzeari eta bizitza-luzeari buruzko mugaz gaindiko polo europarra**<br>Poloak prospekzio-, ikerketa-, berrikuntza- eta prestakuntza-ekimenak sustatu eta konektatu nahi ditu mugaz gaindiko lankidetzan oinarrituta, Akitania Berriaren, Euskadiren eta Nafarroaren (NAEN euroeskualdea) artean eta tokian bertan aktibo diren gizarte-eragile guztien (botere publikoak, unibertsitateak eta beste ezagutza-zentro batzuk, hirugarren sektore soziala, enpresak...) artean, adinekoen erabateko autonomia eta bizitza sustatzeko, erantzukizun publikotik eta merkatuaren, gizarte zibil antolatuaren eta komunitatearen parte-hartzearekin.<br>Proiektuaren diseinuan elkarrekin ari gara aurrera egiten, eta helburua da sarean espezializatutako 5 berrikuntza-unitate (polo) konektatzea, adimen aurreratuko behatoki baten, ikaskuntza-plataforma baten eta hainbat lantalderen (talde eragilea eta ikerketa, berrikuntza eta prestakuntzaren arloko talde sektorialak) bidez. Sareak eskalako ekonomiak sortzea ahalbidetuko du, eta gizartearen zahartzearen erronkei erantzuteko eta bizi-itxaropena handitzeko aukerak aprobetxatzeko gaitasuna handitzen du.<br>**MDI ›** Gizarte Gaietarako Ministerioaren informazio-eskaerara eta 2030erako agendara aurkeztua, SEEP-PRTRaren 22. osagaia definitzeko | 2,1 |
| **Araba Health Intelligence Center**<br>**Zahartzeari buruzko Arabako Ikerketa eta Berrikuntza Zentroa**<br>Zahartzeari buruzko Arabako Ikerketa eta Berrikuntza Zentroa / Araba Health Intelligence Center sortzea. Arabako biztanleriaren zahartzea aztertzea eta ulertzea, zahartze erabatekoa, aktiboa eta osasuntsua bultzatzea, autonomia pertsonala, eta zahartzaroarekin lotutako arazoei aurre egitea ditu helburu nagusi.<br>Ikerketaren, berrikuntzaren eta ekintzailetzaren arloko bikaintasun-zentro erreferente gisa finkatzeko asmoa du, lankidetzako lidergoaren eta ezagutzaren sorkuntzaren bidez.<br>Proiektua bi eremu hauetan garatuko da:<br>1) Zahartze osasuntsurako terapia aurreratuak garatzeko Arabako hub teknologikoa.<br>2) Araba *Silver Economy* proiektua. | 75,0 |
| **Bizkaiko egoitza-zentroetako profesionalen prestakuntza eta trebakuntza hobetzeko plana.**<br>Mendekotasun-egoeran dauden adinekoentzako egoitza-zentroetan lan egiten duten eremu soziosanitarioko profesionalen kualifikazio- eta gaitasun-maila handitu nahi da, arretaren kalitatea hobetzeko, ezagutzak, gaitasunak, prozedurak eta lan-dinamikak iraupen luzeko zainketen etorkizuneko eredura egokituz.<br>**MDI ›** Gizarte Gaietarako Ministerioaren informazio-eskaerara eta 2030erako agendara aurkeztua, SEEP-PRTRaren 22. osagaia definitzeko (5,1M€) | 15,6 |

| | |
|---|---|
| **Adinberri**<br>**City Science Lab Mit-Tecnun-Gipuzkoa**<br>Gipuzkoako lurraldearen eta herritarren etorkizuneko zahartze- eta mugikortasun-beharrei erantzutea. | 1,6 |

## ADINEKOEN AHALDUNTZEA

Adinekoentzako zerbitzu soziosanitarioen eredu berri bat diseinatzeko eta ezartzeko proiektuak, haien gaitasunak aprobetxatzeko eta beraien bizitza autonomoa bultzatzeko.

| Euskadi Next Proiektua | Inbertsioa guztira M€ |
|---|---|
| **Altxor 7.0**<br>**Adinekoen bizi-proiektuei laguntzeko zerbitzu pilotua**<br>65 urtetik gorakoei edo erretirotik gertu daudenei, erretiroa hartzeko adinetik hasi eta bizitza amaitu arte dituzten bizi-proiektuei buruz pertsonalizatutako informazioa, orientazioa eta bitartekotza ematea da proiektu honen helburua, bizitza osoa garatzeko eta gizartean parte hartzeko aukera izan dezaten. Horretarako, online zerbitzu zentralizatu bat –web interaktiboa, bizi-proiektuei laguntzeko aplikazioa– eta hiru bulego pilotu deszentralizatu eta erdipresentzial (lurralde historiko bakoitzeko bat) diseinatu eta martxan jarriko dira.<br>**MDI >** Gizarte Gaietarako Ministerioaren informazio-eskaerara eta 2030erako agendara aurkeztua, SEEP-PRTRaren 22. osagaia definitzeko | 5,1 |
| **Etorkizuneko etxea eta pertsonen zaintza**<br>MCCk etorkizuneko etxeko ingurunean enpresa-jarduera berriak eta berritzaileak abiaraztea eta pertsonak zaintzea planteatzen du, hiru lan-ildo garatuz:<br>1) Pertsonak ahalduntzeko etxerako ekipamenduen diseinua eta fabrikazioa, beren beharren zati handi bat (bereziki mendekotasuna duten edo premia bereziak dituzten pertsonentzat) ase dezakeen ingurunea etxean aurki dezaten.<br>2) Elikagai aurreratuen garapena, osasuna, bizi-kalitatea eta zahartze osasungarria hobetzeko.<br>3) Osasuna kontrolatzeko eta nork bere burua zaintzeko ekipoak eta gailuak garatzea (diagnostikoa, jarraipen medikoa, erregistro kardiologikoak, etab…). | 122,7 |
| **Etxean & Residence Bai**<br>Sistema oso eta antolatu bat sortzea adinekoak beren etxeetan gera daitezen sustatzeko, era guztietako arreta eta zaintzarekin; eta egungo foru-egoitzetako baldintzak berregituratzea, erosotasun mota berarekin. Erabateko zahartzea, aktiboa eta osasuntsua eta autonomia pertsonala modu egokian garatzea, zahartzaroarekin lotutako arazoei aurre egiteko helburuarekin.<br>**MDI >** Zainketen ekonomia eta berdintasun- eta inklusio-politikak indartzea | 80,0 |
| **Erreferentziazko eskualdeko zentro soziosanitarioak**<br>Bizkaiko eskualde-mailan erreferentziazko egoitza-zentroak garatzea inguruko egoitza-zentro guztientzat, eremu soziosanitarioan laguntza espezializatua emateko, prestakuntza espezializatua, asistentzia-laguntza, orientazioa, koordinazioa eta partekatutako baliabideak, besteak beste.<br>**MDI >** Gizarte Gaietarako Ministerioaren informazio-eskaerara eta 2030erako agendara aurkeztua, SEEP-PRTRaren 22. osagaia definitzeko | 11,3 |

## SILVER ECONOMY

Adinekoen segmenturako produktu eta zerbitzu espezializatuak eskaintzen dituzten enpresa lehiakorrak garatzeko trakzio-proiektuak.

| Euskadi Next Proiektua | Inbertsioa guztira M€ |
|---|---|
| **Nagusi Intelligent Centre**<br>Prestakuntza, ekintzailetza eta digitalizazioa bateratuko dituen *Living lab* bat sortzea, zahartzearen eta osasunaren inguruko industria-sektore berri bat sortzeko. Lankidetza publiko-pribatuko gunea da, eta sinergiak bilatuko ditu industria- eta zerbitzu-sektoreen artean, adinekoentzako produktuak eta zerbitzuak garatzeko. | 17,4 |
| **Adinberri**<br>**Erreferentziazko zentroa eta berrikuntza-poloa**<br>Ekimen horren helburua pertsonen bizitza autonomo eta osasungarria sustatzea da, zerbitzu soziosanitarioen bikaintasuna eta iraunkortasuna bermatzea eta zahartzeari lotutako ekonomia (*Silver economy*) garatzera bideratutako enpresa-sarea aktibatzea. | 105,0 |

## ZAINTZA-EREDUA EGOKITZEA

Premia bereziak dituzten adineko biztanleak zaintzeko eredu berritzaile bat diseinatzeko eta ezartzeko proiektuak, pertsonak gizarte- eta familia-ingurunean jarraitzea ahalbidetzen duena, teknologia digitaletan oinarrituta eskura dauden baliabideak ahalik eta gehien aprobetxatuz.

| Euskadi Next Proiektua | Inbertsioa guztira M€ |
|---|---|
| **Gipuzkoa Zaintza Lurraldea eta “OK etxean” izenekoaren eskalatzea EAE osora**<br>Arreta, zaintza eta laguntzarako tokiko ekosistemak sor daitezela bultzatzea (komunitate- eta erakunde-euskarria duten etxeak eta egoitzak), gizarte-berrikuntzan eta -esperimentazioan oinarrituta.<br>**MDI ›** Gizarte Gaietarako Gizarte Gaietarako Ministerioaren informazio-eskaerara eta 2030erako agendara aurkeztua, SEEP-PRTRaren 22. osagaia definitzeko | 12,6 |
| **Historia sozial elektronikoa eta osasun-arloko gizarte-zerbitzuak digitalizatzeko laguntza**<br>Gizarte.eus+ garatzeko eta ezartzeko proiektua. Euskarri-sistema berria, informazio digital pertsonalizatu, integral eta elkarreragingarriarekin, Historia Sozial Elektroniko Integratua, esku-hartze sozialerako: zerbitzu sozialak, sozio-laboralak, sozio-sanitarioak, sozio-judizialak, sozio-bizitokikoak... Sistema aurrerapen nabarmena da gaur egun erabilgarri dagoen tresnaren aurrean; Gizarte.eus.<br>**MDI ›** Gizarte Gaietarako Ministerioaren informazio-eskaerara eta 2030erako agendara aurkeztua, SEEP-PRTRaren 22. osagaia definitzeko | 6,8 |

## Historia soziosanitario elektronikoa

5,9

Euskadiko historia soziosanitario elektronikoa diseinatzea, eraikitzea eta hedatzea. Historia soziosanitario elektronikoa Euskadin arreta soziosanitarioa garatzeko proiektu estrategikoetako bat da. Proiektua, Euskal Osasun Sistemaren arduraduna den Eusko Jaurlaritzaren adostasunaren eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren (GZES) eta Foru Aldundien eta EUDELen arteko koordinazioaren emaitza da. Azken horiekin partekatzen du Jaurlaritzak SVSSaren gaineko ardura.

**MDI >** Gizarte Gaietarako Ministerioaren informazio-eskaerara eta 2030erako agendara aurkeztua, SEEP-PRTRaren 22. osagaia definitzeko

## Etxetic Proiektua

56,5

Mendekotasun egoeran dauden pertsonek etxean jarraitzeko arreta eta laguntza zerbitzua, teknologia berrietan oinarritutako arriskuen monitorizazio, prebentzio eta detekzioaren bidez.

**MDI >** Gizarte Gaietarako Ministerioaren informazio-eskaerara eta 2030erako agendara aurkeztua, SEEP-PRTRaren 22. osagaia definitzeko

## Adinekoentzako egoitza-zentroen sarea pertsona ardatz duten bizikidetza-ereduetara egokitzea

120,0

Horren helburu nagusia Gipuzkoako Lurralde Historikoaren egungo bizitegi-eredua alda dadin sustatzea da, ikuspegi orokor batekin: pertsonak ahalik eta etxekoietan ostatu hartzea, haien intimitatea eta duintasuna errespetatuz eta pertsona eta laguntza- eta zaintza-beharrak arretaren erdigune izanda.

**MDI >** Gizarte Gaietarako Ministerioaren informazio-eskaerara eta 2030erako agendara aurkeztua, SEEP-PRTRaren 22. osagaia definitzeko

## Etxeko iraupen luzeko zainketen berrikuntzarako estrategia

1,1

Proiektuak, adinekoen eta mendekoen etxeetan autonomia pertsonala mantentzen edo hobetzen, narriadurari aurrea hartzen eta erabiltzaileen autonomia-galera konpentsatzen laguntzen duten teknologiak sartzeko aukera emango du.

## Gipuzkoa Zaintza Lurraldea 2030

3,0

Proiektuaren helburu orokorra zainketarako tokiko ekosistemak sortzea (etxeetan eta egoitzetan) da, laguntza instituzional eta komunitarioarekin, berrikuntza eta esperimentazio sozialean oinarrituta. Ekimen sozialak eta sanitarioak konbinatzen dira, erantzukizun publikoko sistemen eta zerbitzuen parte-hartzearekin, batez ere lehen mailako arretakoak, eta baita hirugarren sektore sozialeko erakundeenak ere, eta, kasu batzuetan, ekimen komunitarioenak eta, orobat, enpresak, zainketen tokiko ekosistema bat sortzeko, sistemen (gizarte-zerbitzuen euskal sistema eta osasun-sistema) eta proiektuen arteko interakzioaren bidez.

**MDI >** Gizarte Gaietarako Ministerioaren informazio-eskaerara eta 2030erako agendara aurkeztua, SEEP-PRTRaren 22. osagaia definitzeko



# Banaketa adimenduneko sareak (ura, gasa eta elektrizitatea)

| Euskadi Next Proiektua | Inbertsioa guztira M€ |
|---|---|
| **Basque Digital Water**<br>Inbertsioak eredu hidrauliko zehatzetan, adimen artifiziala sareen sentsorizazioa optimizatzeko, predikzio-ereduak, sareko anomalien detekzio goiztiarra, ur-kontagailuen kudeaketa optimizatzea, agertokien simulazioa, herritarrentzako zerbitzu digitalak, aginte-koadro automatizatuak, kontagailu adimendunak, sentsoreak (emari-neurgailuak, presio-sentsoreak, kutsatzaileak kontrolatzeko, etab.). | 543,0 |
| **Bidegas**<br>**Euskadiko gas naturalaren banaketa-sarea digitalizatzea, kudeatutako tele kontagailu adimendunak erabiliz**<br>EAEko gas-sareen eragiketarako eta kudeaketarako elementu elektronikoak eta telekomunikaziokoak emateko Nortegas–EEE lankidetza-hitzarmenaren barruko proiektua da. Etxeko 552.000 gas-kontagailuren ordez smart meter izenekoak instalatuko dira, irrati bidezko komunikazio-sare bat zabalduko da Euskadiko udalerri bakoitzean, eta Nortegas banatzaileak erabilitako energia-kudeaketarako plataforma bat eta azken kontsumitzailearentzako APP bat garatuko dira. | 68,0 |
| **Digitalizazioa eta proiektu berritzaileak (URA)**<br>Uraren kudeaketa publikoaren, saneamenduen, ibaien egoeraren eta abarren arloan zerbitzu publikoak hobetzeko hainbat inbertsio hartzen ditu barne. | 11,4 |
| **Sare elektriko digitalizatu eta jasangarrietarako ekipo eta sistema berriak**<br>Proiektu hau energia berriztagarria, sorguneetatik azken kontsumoetaraino, integratu, garraiatu, banatu eta kudeatzea ahalbidetzen duten produktu eta sistemen garapen berrietan sartzen da. Garatu behar diren 5 jardun-arlo identifikatzen dira: berriztagarrien integrazioa, sarearen digitalizazioa, elektro-mugikortasuna, Asset Management (aktiboen kudeaketa) eta Jasangarritasuna.<br>**MDI ›** Industria Lehiakortasuneko eta Iraunkortasuneko trakzio-proiektuak bultzatzeko programa | 72,5 |
| **Banaketa elektriko adimenduneko sareak, ekonomia deskarbonizatzeko**<br>Sarea digitalizatzeko proiektuak, adimena eta malgutasuna hobetzeko, automatizazio-mailak handitzeko, autokontsumorako ahalmen erabilgarria maximizatzeko, energia-eraginkortasuneko neurrietarako informazioa eskuragarri izateko, sarearen gaitasuna denbora errealean maximizatzeko edo bezeroen eta banatutako baliabideen parte-hartzea errazteko.<br>**MDI ›** Energia-azpiegituraren, sare adimendunen eta energia-biltegiratzearen MDI | 226,1 |
| **Elektrizitatea banatzeko sareen eraldaketa digitala**<br>Etorkizuneko sare elektrikoen erronkekin erlazionatutako enpresa-berrikuntzako proiektua bultzatzea: gero eta digitalizazio handiagoa, sare-azpiegiturek sortzen dituzten datuen tratamendua eta sare elektrikoaren erantzuna, sendotasunari eta malgutasunari dagokienez, kontsumo-eredu berriei, mugikortasun elektrikoari eta autokontsumoari, besteak beste.<br>Proiektuaren helburuak hauek dira:<br>• Sare-azpiegitura modernizatzea energia-trantsiziorako tresna gisa, berriztagarriak sisteman sartzea erraztuz.<br>• Produktu eta zerbitzu digital berrien bidez berrikuntza teknologikoa bultzatzea, sare elektrikoek etorkizuneko erronkei aurre egin ahal izan diezaieten.<br>• Balio-katearen garapena sustatzea, i-DEAren trakzio-efektua banaketa-operadore gisa konbinatuz enpresen eta start-up-en gaitasun teknologiko eta industrialarekin. | 489,0 |

## Elektrizitatea banatzeko sare adimendunen zentroa

108,6

*Global Smartgrids Innovation Hub* (GSIH) , sektore elektrikoko enpresen lehiakortasuna bultzatzeko zentro publiko-pribatu bat da, adimen lehiakorrean, garapen teknologikoan, ezagutzaren sorkuntzan eta merkatu aurreratuenetarako sarbidean oinarrituta, betiere lankidetzan, konpromiso publiko-pribatuan eta Euskadiko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako ekosistemarekiko lankidetzan oinarrituta.

**MDI ›** Energia-azpiegituraren, sare adimendunen eta energia-biltegiratzearen MDI

LURRALDEKO 3. PERTEA

# Itsas jatorriko energia berriztagarriak

## Euskadi Next Proiektua

Inbertsioa guztira M€

### Dimentsio handiko *offshore* monopil eolikoen fabrikazio-gaitasunak eta balio-katea garatzea, ekonomia deskarbonizatzeko

69,0

Proiektu honen helburua datozen urteetan instalatuko diren itsas parkeak estruktura eolikoz hornitzea da. Horretarako, monopil handiak (XXL) fabrikatzeko gaitasuna sortu behar da, balio-kate oso bat garatuz.

Mota horretako itsas zimenduak beharrezkoak dira, industriaren joera turbina handiagoekin energia sakonago sortzea delako eta, horregatik, merkatuan gaur egun dauden monopilekin alderatuta dimentsio eta konplexutasun handiagoko monopilak egin behar direlako.

**MDI ›** Industria Lehiakortasuneko eta Jasangarritasuneko trakzio-proiektuak bultzatzeko programa

### Energy Intelligence Centre

39,8

Erreferentziazko zentroa energia-trantsizioari ekiteko, saiakuntza-bankuetan oinarritutako azpiegitura bat garatuz energia garbiagoetan eta offshore-etan posizionatzeko. Horrek enpresei euskarria emango die probak, saiakuntzak eta I+G garatzeko TRL altuenetan.

### Eoliko flotatzaileko hub industriala eta teknologikoa

40,0

Europa hegoaldean energia eoliko flotatzailearen garapen teknologikoa eta industriala bultzatzeko proiektua, garapen teknologikoaren azken faseei ekin ahal izateko inbertsio handiak eskatzen dituena.

### Euskadin olatuen energia sustatzeko ekimena

64,0

Proiektuaren helburua teknologia undimotorra 2030erako merkataritza-errentagarritasunera eramatea da. Horretarako, olatuen lehen energia-parkea garatzea proposatzen da, gailu anitzekoa eta hidrogenoan oinarritutako energia biltegiratzeko sistema bati konektatua BiMEPen, diseinu-, fabrikazio-, eragiketa- eta mantentze-faseak estaliz.

Teknologiaren bideragarritasuna eta ahalmena aldez aurreko garapen-faseetan erakutsi ondoren (MARMOK-A-5 gailua BiMEPen, EEEren CPPk finantzatua), garapen teknologikoaren hurrengo urratsari ekiteko unea dela uste da. Proiektu horren bidez honako hau lortu nahi da:

- Euskadi/BiMEP olatuen energia garatzeko eta hidrogenoarekin integratzeko foku bihurtzea, eta baita, oro har, offshore teknologietan ere.
- Balio erantsi handiko industria-sektore berri bat sortzea nazioartean ospe handia duten ezagutza, erakunde eta enpresetan oinarrituta.
- Euskadiri energia berriztagarrien iturri berri bat ematea, sistema isolatuetan aplikatzeko eta energia-mixari beste offshore iturri batzuekin (adib.: itsasoko eolikoa) sinergia handiz laguntzeko.

| | |
|---|---|
| **Energia berriztagarrien eta hidrogenoaren saiakuntzarako eta garapen teknologikorako *offshore* azpiegiturak**<br>Helburua offshore laborategi bat martxan jartzea da, enpresek *offshore* berriztagarriekin (haizea, olatuak eta eguzki-energia) lotutako produktuak eta zerbitzuak probatu eta frogatu ahal izateko, elektrizitatea zein hidrogenoa sortzeko. | 60,0 |

LURRALDEKO 4. PERTEA

## Gaikuntza zientifikoa eta teknologikoa

| Euskadi Next Proiektua | Inbertsioa guztira M€ |
|---|---|
| **Basque Research & Technology Alliance (BRTA)**<br>Azpiegitura zientifiko-teknologiko berriak Euskal Autonomia Erkidegoko 16 ikerketa-zentrok eta zentro teknologikok I+G+b bidez euskal industriaren lehiakortasuna bultzatzeko erronkekin (erakusleak, proba-bankuak, *living-lab*-ak, etab.) egindako aliantza honetarako. | 108,0 |
| **RIS3 esparruetan lankidetzako bikaintasuneko oinarrizko ikerketako IKUR 2030 estrategia**<br>Espezializazio adimenduneko RIS 3 estrategiaren euskarri diren bikaintasuneko ikerketa-proiektuak bultzatzea eta garatzea. | 30,0 |
| **LINKER Programa**<br>Bikaintasuneko euskal ikerkuntzaren euskarri diren azpiegitura zientifikoen Sarea osatzea. | 29,4 |
| **I+G+b programa osagarriak**<br>Bikaintasuneko ikerketa-proiektuak bultzatzea.<br>MDI › Zientzia eta Berrikuntza Ministerioaren I+G programa osagarria | 53,4 |
| **CIC Energigune**<br>Energia elektrokimikoa eta termikoa biltegiratzeko ikerketa-zentroa. Ekimen estrategikoa. Hiru ildo nagusi:<br>• Biltegiratze elektrokimikoa (EES): Euskadiko balio-katea indartzeko funtsezko jardueren hedapena.<br>• Biltegiratze termikoa eta soluzioak (TE): posizionamendua finkatzeko eta biltegiratze termikoaren industria bultzatzeko arloko plana.<br>• Hidrogeno berdea: hidrogeno berdea sortzea, biltegiratzea, erregai-pilak eta mugikortasuna, soluzio disruptiboen bidez. Jarduera indartzea. | 62,2 |
| **Gipuzkoa Quantum**<br>Teknologia kuantikoen ekosistema integral bat eraikitzea, mekanika kuantikoan oinarritutako teknologietan Gipuzkoa erreferente gisa kokatzeko eta lurraldea teknologia kuantikoetan enpresak berritzeko eta garatzeko "*hub*" bihurtzeko. Bikaintasuneko ikerketa eta prestakuntza, *Deep Tech* erronketara bideratutako ikerketa, enpresen bizkortzea, berrikuntza irekia, komunikazioa eta sentsibilizazioa.<br>MDI › Industria Lehiakortasuneko eta Jasangarritasuneko trakzio-proiektuak bultzatzeko programa | 96,0 |

## Azpiegitura irudi aurrekliniko aurreratuan

**1,6**

CIC biomaGUNEko Irudi Molekularreko eta Funtzionaleko Unitatearen irudi funtzionaleko eta molekularreko tekniken katalogoa zabaltzea, gaur egun jorratu ezin diren eskaerei erantzuteko.

- Irudi-plataforma multimodal bat eskuratzea (VEVO LAZR-X ekipoa baloratu da), ultrasoinuen (ekografia eta ekokardiografia) potentzia eta fotoakustikaren teknika berritzailea konbinatzen dituena.
- 3 dimentsioko "in vivo" irudi optikoak tomografiaren bidez lortzeko ekipoa eskuratzea (IVI Spectrum CT).
- Ehun biologikoetan erradiotrazatzaile berrien banaketa espaziala ebaluatzeko autoerradiografia-ekipo berria.

LURRALDEKO 5. PERTEA

# Big Data – Cloud – AA - Zibersegurtasuna

## ADIMEN ARTIFIZIALA

**Bi helburu dituzten proiektuak bultzatzea. Batetik, EAEko enpresetan AAren ezarpena bultzatzea eta, bestetik, AAn oinarritutako produktu eta zerbitzuen puntako sektore lehiakorra egituratzeko oinarriak ezartzea.**

| Euskadi Next Proiektua | Inbertsioa guztira M€ |
|---|---|

### Adimen Artifizialaren Euskal Zentroa (BAIC)

**40,0**

Euskadin Adimen artifizialaren garapena bultzatzeko eta ardatz hauetako bakoitzean jarduerak garatzeko euskal zentro bat sortzea:

1. ARDATZA: Euskadiren I+G gaitasunak sortzea eta indartzea.
2. ARDATZA: Adituen tokiko komunitatea eratzea eta talentua sortzea eta erakartzea.
3. ARDATZA: AAri lotutako negozio-eredu berriak garatzea.
4. ARDATZA: AAren kontzeptuei buruzko sentsibilizazioa eta bizitza osoko gaikuntza.
5. ARDATZA: Administrazioko hainbat eremutara zuzenduta adimen artifiziala erabiltzen den kasuak garatzea.
6. ARDATZA: Euskadin Datuaren estrategia garatzea.
7. ARDATZA: Ekimen guztietan alderdi etikoak eta legalak txertatzea.
8. ARDATZA: Posizionamendua eta parte-hartzea nazioarteko sareetan.

## ZIBERSEGURTASUNA

**Trakzio-proiektuak bultzatzea zibersegurtasunaren esparruan, euskal enpresen, erakundeen eta gizarte osoaren digitalizazio-prozesuari laguntza estrategikoa emateko. Era berean, proiektuak dira Euskal Autonomia Erkidegoko zibersegurtasunaren esparruan produktu eta soluzio aurreratuak artikulatzeko oinarria.**

| Euskadi Next Proiektua | Inbertsioa guztira M€ |
|---|---|

### Basque Cybersecurity Center (BCSC)

**44,9**

BCSC indartzea, industria-zibersegurtasun auto-jasangarria eta nazioarteko erreferentea izango den hub bat garatzeko, RIS3 estrategiaren espezializazio-arloetara bideratuta.

### CBCV 2030: Catapult Basque Cyber Vision 2030

**124,0**

Produktu ziberseguruak sortzeko bizi-ziklo osoari eusteko plataforma bat sortzea: garapena, ziurtapena, hedapena, eragiketa, eguneratzea/mantentzea eta etengabeko monitorizazioa.

Plataformaren arabera, produktuen fabrikatzaile industrialek modu natiboan produktu zibersegurru berriak sortzeko beharrezko ezagutza, euskarria eta tresnak izango dituzte.

| | |
|---|---|
| **ZIUR, zibersegurtasun industrialeko zentroa**<br>Gipuzkoako enpresen zibersegurtasun-gaitasunak indartzea, lurralde historikoaren lehiakortasun-helburu gisa, eta Gipuzkoako industria-enpresentzat erreferente independente eta fidagarri gisa posizionatzea ICS (industria-kontroleko sistemak) prebentzioan, eta baita zibersegurtasun industrialeko nazioarteko zentro garrantzitsu bat izatea ere. | 13,8 |

## CLOUD EUSKARRIA

**Hodeiaren erabilera malgua, askotarikoa eta segurua ahalbidetzeko proiektuak, informazioa biltegiratu, kudeatu eta tratatzeko.**

| Euskadi Next Proiektua | Inbertsioa guztira M€ |
|---|---|
| **Elkarreragingarritasun eredua Euskadin**<br>Datu bakarraren eredua, zerbitzuak emateko administrazio publikoekin eta erakunde pribatuekin egin behar diren izapideak arintzeko, automatizatzeko eta sinplifikatzeko, datuen konfidentzialtasuna, subiranotasuna eta zibersegurtasuna bermatuz. Horretarako, inbertsioak egin behar dira, enpresa eta herritarrentzat interoperabilitate publiko-pribatuko zerbitzuen katalogoa diseinatu eta kudeatzeko eta elkarreragingarritasun-plataforma publikoak garatzeko. | 80,0 |
| **Data Center berria abian jartzea Euskadin**<br>4.0 industriaren garapenak eta 5G sareen hedapenak datuak ostatatzeko gero eta eskari handiagoa sortzen dute, bai industria- eta enpresa-ehunari dagokionez, batez ere ETEei dagokienez, bai administrazioari berari dagokionez. Testuinguru horretan, Euskadin Data Centre berri bat martxan jartzea planteatzen da, eredu publiko-pribatu batean oinarrituta, segurtasunari, datuen erabilgarritasunari, energia-efizientzia handiari buruzko eskari maila handiarekin diseinatua eta beste data centre batzuekin erlazionatuta. | 117,0 |

## AZPIEGITURAK

**Euskal Autonomia Erkidegoa telekomunikazio-azpiegitura aurreratuez hornitzeko proiektuak, lehiakortasun handiko zerbitzu eta eduki digitalak garatzeko euskarri izan daitezen.**

| Euskadi Next Proiektua | Inbertsioa guztira M€ |
|---|---|
| **5G sarearen hedapena Euskadin**<br>5G sarea hedatzea Euskadin, Euskadi osoan5G sarea sustatzeko eta bizkortzeko, teknologia hori izan dezan eta, horrela, 4.0 industria eta hiperkonektibitatean oinarritutako ekoizpen-eredua indartzeko. | 65,0 |

**MDI ›** Lankidetza publiko-pribatuko eredu bat garatzea ahalbidetzen duten proiektuak, mugikortasuneko banda zabala eta oso abiadura handiko banda zabala lurralde osora hedatzeko eta landa-eremuetako 5G estaldura aurreratzeko

# Euskadi Next Proiektua

Inbertsioa guztira M€

## EiTBren eraldaketa digitala — 63,2

- Big data, adimen artifiziala eta aplikazio berriak plataformetan, EiTB mediaren edukietarako sarbide adimenduna errazteko, erabiltzaile-esperientziarik onenarekin.
- Irrati-programen eta edukien produkzio-sistemen lan-fluxuak, ekitaldiak, podcastak, sare sozialak eta, oro har, multimedia-edukiak kudeatzeko erraztasunak emateko, Interneteko plataforma berrietan argitaratzeko.
- Edukiak ekoizteko azpiegiturak migratzea, horiek merkatuan eskuragarri dauden kalitate goreneko estandarretarako (HDR, 4K, UHD) bateragarri eginez eta egokituz.
- Azken erabiltzaileen segurtasun osoa bermatzen duten elementuak (etxeko zibersegurtasuna) Smart TV fabrikatzaileen eta telekomunikazio-operadoreen esku jartzea.

## THE 8th, Bilbao Bizkaia Media District / Hub audiovisual — 18,1

“THE 8th” negozio-aukera bat da Bilbo Bizkaiarentzat, errodajeen jomuga gisa. Tokiko ikus-entzunezko ekosistema integratzen duen hiri eta lurralde mailako proiektu partekatua da. Eraldaketa teknologikoaren eta digitalaren aldeko apustu baten barruan sartzen da, hazteko potentziala duen sektore bati lotuta –edukien eskari globala–.

Hainbat espazio izango ditu. Handienak 100.000 $m^2$ baino gehiago hartuko ditu Bilboko Zorrotza auzoan, 8. barrutian. Era berean, erabiltzen ez diren industria-espazioak jarriko dira beste eskualde batzuetan, hala nola altzarien industria indartsua finkatu zen Enkarterrin, Gernikako eta Ezkerraldeko Guggenheimen hurrengo proiektuak erakargarritasuna indartuko dion Busturialdean eta Bizkaiko lurraldearen ezaugarri izan den industria siderurgikoaren eta ontzigintzaren eta eremu horren idiosinkrasiaren isla den Ezkerraldean.

Horrekin guztiarekin, lurraldeak arrasto horri jarraitu gura dio, eta nazioarteko erreferentziazko gune profesional, lehiakor eta aurreratu gisa finkatu gura du bere burua, erakargarria baita ikus-entzunezko ekoizpenak, negozioak eta inbertsioak hartzeko.

## 2deo: ikus-entzunezko laborategia — 2,5

Euskarazko ikus-entzunezkoen ekoizpena eta kontsumoa areagotzea du helburu nagusi, ekoizpen-eredu berriak eta formatu berriak esperimentatuz eta banaketa-kanalak biderkatuz.

## Albaola, Itsas Ondarea — 9,4

### Herrialdearen itsas nortasunaren ezaugarriak

Jarduera nagusi gisa itsasontzi historikoak eraikitzearekin batera, Pasai San Pedron (Pasaia, Gipuzkoa) dagoen Albaola Euskal Itsas Faktoria, itsasoko artisau-teknologia berreskuratzen eta balioesten duen espazio berritzailea da. Faktoria jendeari irekita dago, eta dinamismoa, jardueren aniztasuna eta nazioarteko proiekzioa ditu ezaugarri.

Ontzigintzak, ibaiertzeko zurgintzaren nazioarteko eskolak, nabigazio-eskolak, itsas modelismoaren tailerrak, grumetearen txokoak, itsas antzerkiko arte eszenikoen programazioak eta Auzolan boluntariotza-taldeak Euskal Herriko itsas iragana ezagutarazteko asmoa duen sormen-unibertso bat osatzen dute.

Proiektuan inbertsioak egingo dira eraikuntzan eta ekipamenduan, eraikina handitzeko eta hobetzeko, Albaolak eskaintzen duen kultur jarduera gauzatzen laguntzeko eta hobetzeko.

## Elkar Taldearen eraldaketa operatibo eta digitala — 15,5

### B2B eta B2C online merkataritza-prozesuetara bideratua, Euskadiko Kulturaren eta Sormenaren Industrien sektorean.

Elkar Taldearen berrantolaketa operatiboa zentro logistiko sortu berri eta oso teknifikatu bakarrean, Adunan (Gipuzkoa), B2B eta B2C merkataritza elektronikora bideratuta, Liburuaren Industrian. 2. Antolamendu-aldaketa bultzatzea, prozesu operatiboak eta merkaturatze-prozesuak digitalizatuz, Supply Chain eta Salmenta prozesu nagusietatik hasi eta prozesu osagarrietara arte. 3. Merkataritza elektronikoko plataforma aurreratu bat garatzea, Elkar Taldearen eta kanpoko hainbat eragileren erronken zerbitzura. 4. Bere sektoreko erreferentziazko enpresa den aldetik, berrikuntzaren eta digitalizazioaren bidez, kultura-industrien balio-katean eta euskarazko sorkuntzan etorkizuneko garapena bultzatuko duten aldaketei ekitea.

LURRALDEKO 7. PERTEA

# Hiri jasangarriak

| Euskadi Next Proiektua | Inbertsioa guztira M€ |
|---|---|
| **Hiri-berroneratze integrala EAEko eremu kalteberetan** | 1.130,4 |

Euskadin, azken hiru urteetan, Hiri Agenda ezartzeko oinarriak inplementatzeko lanean aritu gara, gure lurraldeko eremu ahulenetan esku hartuz. Esperientzia pilotuekin lortutako esperientziak eta ezagutzak egoera ezin hobean jartzen gaitu Euskadiko lurralde osora hedatutako ekintza-plan bat bultzatzeko.

Plan horretan, esku-hartze holistikoak egingo dira, egoera okerrenean dauden eremuen kalteberatasun-baldintzak berroneratu ahal izateko. Plan horretan, Euskadiko Hiri Agenda – BULTZATU 2050ean eta NextGeneration EU planean zeharkako izaeraz jasotzen diren ekintza asko jasotzen dira.

Helburua Hirirako Eskubidea gauzatu ahal izango den hiri-eredurako trantsizioa bultzatzea da, pertsonak ekintzaren erdigunean jarriz eta dauden kapital nagusien balioa berreskuratzen saiatuz: giza kapitala, lurralde-kapitala eta administrazio-kapitala.

**MDI ›** Energia-komunitateak.
› Hori da proiektu holistiko bat MDIko eta etorkizuneko deialdietako “leihatila” desberdinetan zatikatzeak dakarren zailtasunaren adibide paradigmatikoa.

LURRALDEKO 8. PERTEA

# Klima-aldaketaren, ekosistemen eta biodibertsitatearen aurreko erresilientzia

| Euskadi Next Proiektua | Inbertsioa guztira M€ |
|---|---|
| **Ekosistemak eta haien biodibertsitatea kontserbatzea eta berroneratzea**<br>Ekosistemak eta haien biodibertsitatea kontserbatzea eta leheneratzea da helburua, baliabide naturalen erabilera jasangarria bermatzeko eta ekosistema-zerbitzuak babesteko eta hobetzeko, uretako eta lurreko ekosistemen funtzionaltasuna berreskuratuz. | 127,0 |
| **Saneamendu- eta arazketa-zerbitzuen bermea**<br>Proiektu honen bidez, Euskadiko saneamendu-planak bete nahi dira, beharrezkoak diren interes orokorreko obrak sustatuz eta haien eraginkortasuna hobetuz. | 95,4 |
| **Uholdeen aurreko erresilientzia hobetzea**<br>Ezaugarri orografikoengatik eta presio antropiko handiagatik lurraldearen kalteberatasunari aurre egiteko proiektua. Hala, uholde-arriskuko eremuan lurzoruaren erabilerak antolatzeaz gain, uholdeek inpaktu handiena eragin dezaketen eta uholdeekiko erresilientzia hobetu behar duten hirigune askori eragiten dieten eremuetan arriskua murrizteko jarduketak hartu behar dira kontuan. | 101,0 |
| **Hondamendi naturalen aurreko erresilientzia (RESINA)**<br>Informazioa denbora errealean kudeatzeko teknologia aurreratuak, irudia eta datu sateliteak eta iragarpen-eredu doituak garatzea azpiegiturak prestatzeko eta egokitzeko, muturreko klimaren gertaeren aurrean erresilienteagoak izan daitezen. | 60,0 |

# Ekoberrikuntza eta ekonomia zirkularra

| Euskadi Next Proiektua | Inbertsioa guztira M€ |
|---|---|
| **Ingurunet**<br>**Digitalizazioa eta proiektu berritzaileak**<br>Euskal Autonomia Erkidegoan hondakinen kudeaketari buruzko informazioa modernizatzen eta digitalizatzen laguntzeko, INGURUNET sistemara konektatutako aplikazioen bidez. Aplikazio horiek EAEn sortutako hondakinen balio-kateari buruzko informazio guztia zentralizatuko dute, eta horri esker, besteak beste, hondakinen kudeaketari buruzko informazioa berehala erabili ahal izango da, inbentarioak denbora errealean eginez, eta, aldi berean, administrazioa digitalizatzen aurrera egingo da eta kudeaketa publikoa hobetuko da. | 4,5 |
| **Industria-lurzoruari balioa ematea, birsortzeko eta proiektu estrategikoak kokatzeko**<br>Helburu nagusia EAE osoan industria-lurzorua berroneratzea da, lurzoru kutsatuak, urpean gera daitezkeenak eta eraikin zaharkituak edo erdi abandonatuak birgaituz. Industria Sailburuordetzak, Eusko Jaurlaritzako Proiektu Estrategikoen Zuzendaritzak, bultzatutako eta SPRILUR sozietate publikoak gidatutako proiektu handi hau EAEn zehar hainbat jarduketaren bidez garatzea aurreikusten da. | 885,0 |
| **Euskal altzairutegien eraldaketa**<br>Proiektu honek euskal ekonomian siderurgia-sektoreko erreferentziazko enpresa nagusiak batzen ditu, energia-eraginkortasuna, lehiakortasuna, produktibitatea eta ingurumen-jasangarritasuna sustatzeko hainbat ekintza integratuko dituen zeharkako trakzio-ekimen bat bultzatzeko. Ekonomia zirkularrean integratzea bilatzen du, eta, era berean, altzairugintzaren industriaren balio-kate osoan (ETEetan eta hornitzaileetan, oro har) inpaktua sustatzea. | 350,0 |
| **Arriskutsuak ez diren industria-hondakinen lehentasunezko korronteen balorazioa**<br>Ekonomia zirkularra eta eko-berrikuntza modu eraginkorrean inplementatzea du helburu, isurketa minimizatzeko eta Euskadin funtsezkoak diren industria-sektoreen (galdaketa, altzairutegiak eta paper-pastaren industria) jarraipena ziurtatzeko, ingurumen-sektorean hazteko eta dibertsifikatzeko aukerak sustatuz. | 73,0 |
| **Valogreene Paper BC**<br>Papergintza-industriako hondakinak balorizatzeko instalazioa. | 17,5 |
| **Aralar papera**<br>Zelulosan oinarritutako produktuen garapena eta ekoizpena, merkatuetan plastikoak ordezteko, hala nola umeentzako oihaltxoena, desinfektatzaileena, zigarro-iragazkiena, musukoena, ebakuntza-gelako arropa medikoarena. | 34,1 |
| **Karbonato-lohi hondakina balorizatzeko kare-labea**<br>Karbonato lohia hondakina balorizatzeko kare labe berria Smurfit Kappa Nerviónen. | 27,0 |
| **Sareak birziklatzeko proiektua**<br>Arrantza-sareen eraldaketa eta balorizazioa, Euskadiko atunontzi izozkailuen flotak baztertu egiten baitu sare horiek balio-bizitzaren amaierara iristen direnean. | 6,9 |

MDI › Ekonomia zirkularra

## Plastikoaren Ekonomia Zirkularrean Berrikuntza-Poloa sortzea

75,5

Soluzio orokor eta iraunkorra ezartzen du kutsadura plastikoa prebenitzen laguntzeko, birziklagarriak ez ziren hondakin plastikoak baliabide baliotsu bihurtzen baititu. Gaur egun birziklatzen ez diren hondakin plastikoak, balio-bizitzaren amaieran, lehengai ezin hobe bihurtzen ditu (TACOIL) plastiko birziklatu garbiak (Plastic2Plastic) edo karbono gutxiko erregai alternatiboak fabrikatzeko, konbertsio termiko anaerobioko (TAC) prozesu baten bidez.

MDI › Ekonomia zirkularra



# 3.4 / Euskadi Next programa osatzen duten gainerako ekimenak

**Azkenik, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren funtsen zati handi bat bideratzeko balioko duten diru-laguntzen deialdietara edo indarrean dauden beste tresna batzuetara joateko aukeraren bidez garatuko diren ekimen, inbertsio edo/eta proiektuak jasotzen dira. Hain zuzen ere, Europako finantzazio horretatik datozen baliabide gehienak administrazio publikoen (Estatua, autonomia-erkidegoak eta Toki Erakundeak) laguntza-deialdiek eskaintzen duten kapilaritatea aprobetxatuz banatuko dira.**

Formula hori, izatez, funtsak eragile sozioekonomiko guztietara bideratzeko biderik garrantzitsuena izango da, izan enpresak, bereziki ETEak, izan hirugarren sektoreko eragileak, izan toki-erakundeak. Azken horien kasuan, suspertze eta erresilientzia funtsetatik zuzenean jaso ditzaketen transferentziez gain, eta orain arte proiektuak aurkeztu ahal izan dituzten MDIak ikusita, toki-erakundeak berak izango dira Administrazio zentralak kudeatutako edo aldez aurretik autonomia erkidegoei transferitutako hainbat deialdiren onuradun edo hartzaile, hainbat arlotan, hala nola turismoan, energia-eraginkortasunean, hiri-berroneratzean eta abarretan.

Bestalde, inbertsio publikoko proiektuak Estatuak lizitazio eta konparazio publikoetarako dituen tresnen bidez gauzatuko dira, teknologia berritzailearen erosketa publikoa barne. Horretarako, 36/2020 Lege Dekretuak ezartzen ditu Espainiako Administrazio Publikoek eta, bereziki, Estatuko Administrazio Orokorrak, funtsen exekuzioa arintzeko bete behar dituzten jarraibideak, eta, horretarako, berrikusi egin behar dira araudian eta kudeaketa publikoko prozeduran eta tresnetan dauden oztopoak eta itoguneak. Ildo horretan, Susperraldirako Europako Tresnaren funtsei lotutako proiektuak gauzatzeak planteatzen duen erronkari erantzuteko gai izango den administrazio moderno eta arin bat izatea ahalbidetuko duten erreformak egitea aurreikusten da. Hori guztia kontrol-betebeharrak murriztu gabe.

Jarduketa horietako askok eragin argia izango dute udalerrietan, hiri-habitatak eta naturguneak hobetuko dituzten azpiegiturak baitira, hainbat gairi dagokienez: saneamendua eta uren arazketa, konektibitate digitala, bioekonomiaren sustapena, etab.




Hala, ingurumen-arloko izapideak sinplifikatzeko, kontratazioak egiteko, titulartasun publikoko edo pribatuko instalazioei ingurumen-baimen integratua emateko edo ingurumen-baimen integratu horiek ebazteko gehieneko epeak murrizteko prozesuak egingo dira, besteak beste.

Horrela, orain arte deialdietara joateko edo kontratazio, lizitazio edo erosketa publikoko prozeduren bidez gauzatzeko aukerarekin identifikatutako proiektuak, aipatutako zortzi osagaien arabera taldekatuta, honako hauek izango lirateke.

1. OSAGAIA

# Pertsonen osasuna eta zaintza

## OSASUN-SISTEMAREN MODERNIZAZIOA

Euskal osasun-sistema modernizatzeko proiektuak.

| Euskadi Next Proiektua | Inbertsioa guztira M€ |
|---|---|
| **Osakidetzaren azpiegiturak eguneratzea eta garatzea Lehen Mailako Arretan**<br>Osakidetzaren lehen mailako arretako azpiegitura hobetzea, lehendik dauden eraikinak eraberrituz, birmoldatuz edo aldatuz. | 79,0 |
| **Biozientziak eta Giza Osasuna**<br>Azpiegitura aurreratuetan funtsezko hobekuntzak egiten ditu, osasun pertsonalizatuaren, biologia molekularreko laborategiaren eta laguntza-robotikaren arloetan bikaintasuneko ikerketa-beharrei aurre egiteko. | 1,0 |
| **Osasun-prestazioaren digitalizazioa Euskadin**<br>Osakidetzaren eraldaketa digitalari heltzen dio, herritarrei osasun-prestazio digital bat emateko eskatzen diren oinarrizko azpiegiturekin batera, kanal anitzeko osasun-eredu konektatu batean, 360 ikuspegiarekin. | 88,1 |
| **Osasun Sailaren Business Intelligence (BI) estrategia**<br>Helburu nagusia BI osasun-zentro izatea da, informazioa ustiatzeko beharrak asetzeko soluzio bakarra emateko eta Osasun Sailaren zenbait erabilpen-arloren analisiak egiteko. | 3,5 |
| **Teknologia genomiko berriak sartzea Osakidetzako Diagnostiko Biologikoaren Sarean**<br>Proiektuak hainbat helburu ditu: medikuntza genomikoa sustatzea, Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sarean teknologia “omiko” berriak sartzea, pazienteen datu genomikoak lortzeko gaitasuna aprobetxatzea, eta teknologia berriak integratzea genomikaren ekintza-eremua zabaltzeko, banakako prebentzioa eta tratamendua barne. | 5,0 |
| **Medikuntza genomikoa**<br>Medikuntza Genomikoko edo Medikuntza Pertsonalizatuko Zentroa, azterketa genomiko biomedikoak, herritarren datu genomikoak eta medikuntza genomikoaren, Big Dataren eta Adimen artifizialaren arloko azken teknologietan oinarrituta harmonizatu eta bideratuko dituena, eta baita horiek gaixotasun genetikoetan aplikatzea ere. | 2,5 |
| **Medikuntza eta Erizaintza Fakultate berria**<br>UPV/EHUren Bilboko Medikuntza eta Erizaintza Fakultate berria eraikitzea eta abian jartzea. | 39,2 |
| **Sekuentziazio Masiboko eta Genotipatuko plataforma**<br>Sekuentziazio masiboko eta Genotipatuko nodo handi bat ematea Euskadiri, proiektu garrantzitsuak garatzeko paziente-talde handietan, eskala handian eta kostu txikian. | 2,4 |

| | |
|---|---|
| **Osasun Zientzietako Unibertsitate Prestakuntzako, Lankidetza Ikerketako eta Transferentziako (AFIT) Polo Aurreratua**<br>Osasun Zientzietako Unibertsitate Prestakuntzako, Lankidetza Ikerketako eta Transferentziako (AFIT) polo bat sortzea, UPV/EHUn eskura dauden gaitasunak baliatuta. | 11,0 |
| **Anatomia Patologikoko Zerbitzuen eraldaketa digitala**<br>Irudi digitaleko tresnak eta adimen artifizialeko algoritmoak inplementatzea bilatzen du, diagnostiko zehatzagoa eta seguruagoa egiteko. | 9,0 |
| **NovaSeq 6000**<br>Azken belaunaldiko NovaSeq 6000 sistema berria, Euskal Herriak medikuntza pertsonalizatuan eta zehaztasunean duen gaitasuna indartzeko. Sistemak aukera berriak eskaintzen ditu aplikazio-multzo, lagin-mota eta sekuentziazio-metodo guztietarako, NGSren (next generation sequencing) aukerak zabalduz. | 0,9 |

## ZAINTZA-EREDUA EGOKITZEA

Zaintza-eredua egokitzeko proiektuak, haren eraginkortasuna hobetzeko eta pertsona guztientzako zerbitzu hobea bermatzeko.

| Euskadi Next Proiektua | Inbertsioa guztira M€ |
|---|---|
| **Farmabide**<br>Farmabide proiektua egoitzetarako prestazio farmazeutikoaren kudeaketa zentralizatuan datza, pazienteei arreta farmazeutikoa emanez, botiken erosketa zentralizatua eginez, dosi pertsonalizatuetan (SDP) prestatuz eta egoitzak hornituz. | 2,9 |

## ARRETA ETA ZAINTZA ASKOTARIKO KOLEKTIBOETAN

Behar bereziak dituzten kolektiboen arreta soziosanitarioa hobetzera zuzendutako proiektuak.

| Euskadi Next Proiektua | Inbertsioa guztira M€ |
|---|---|
| **Arabako adingabeen zentroak**<br>Familia-ingurunean babesgabetasun-egoeran dauden adingabeei eta arazoen biktimei ematen zaien arreta hobetzea, izaera unibertsalarekin, haien jatorria edo gizarte-egoera edozein dela ere.<br>Zehazki, adingabeentzako bi harrera- eta larrialdi-zentro birmoldatzeko inbertsioa aurreikusten da: Hazaldi zentroa eta Arabako Estibalizko monasterioaren ekialdeko hegala birmoldatzea. | 3,0 |

**MDI ›** Gizarte Gaietarako Ministerioaren informazio-eskaerara eta 2030erako agendara aurkeztua, SEEP-PRTR 22. osagaia definitzeko

| | |
|---|---|
| **Elkar-Ekin**<br>**Bizitegi-bazterketa egoeran dauden pertsonentzako Harrera eta Arreta Integraturako Zentroa**<br>Bizitegi-zerbitzu malgua garatzea proposatzen duen proiektua, bizitegi-bazterketa egoeran, bizitokirik gabe eta arreta soziosanitarioko premiak dituzten pertsonei zuzendutaexclusión residencial, sin alojamiento y que presentan necesidades de atención sociosanitaria. | 3,1 |
| **MDI ›** Gizarte Gaietarako Ministerioaren informazio-eskaerara eta 2030erako agendara aurkeztua, SEEP-PRTR 22. osagaia definitzeko | |
| **Elkar-Ekin**<br>**Dibertsitate funtzionala duten pertsonen arretarako berrikuntza-zentroa**<br>Dibertsitate funtzionala duten eta laguntza zabala eta orokorra behar duten pertsonen zaintza eta arreta indibidualizatua eta integrala berritzeko helburua du, haien autonomia-maila hobetzeko edo mantentzeko. | 2,6 |
| **MDI ›** Gizarte Gaietarako Ministerioaren informazio-eskaerara eta 2030erako agendara aurkeztua, SEEP-PRTR 22. osagaia definitzeko | |
| **Elkar-Ekin**<br>**Emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko gizarte baterako estrategia. Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei arreta emateko berrikuntza-zentroa**<br>Pertsona ardatz duen arreta-eredu batean oinarritua, egungo zerbitzu-eskaintza osatzeko. | 3,0 |
| **MDI ›** Gizarte Gaietarako Ministerioaren informazio-eskaerara eta 2030erako agendara aurkeztua, SEEP-PRTR 22. osagaia definitzeko | |

## ADINEKOEN AHALDUNTZEA

Adinekoei beren ingurunean bizitza aktiboa eta autonomoa errazteko proiektuak.

| Euskadi Next Proiektua | Inbertsioa guztira<br>M€ |
|---|---|
| **Adinekoen bizi-proiektuei laguntzeko online zerbitzua eta 3 bulego pilotu deszentralizatu**<br>65 urtetik gora dituzten edo erretirotik gertu dauden pertsonei beren bizi-proiektuei buruzko informazioa, orientazioa eta bitartekotza pertsonalizatuak ematea da proiektu honen helburua. | 5,0 |
| **Autonomia eta osasunaren sustapenaren eraldaketa digitala zahartze aktiboko prozesuan**<br>Soluzio eta zerbitzu digitalak, biztanleriaren zahartzean autonomia eta osasuna sustatzeko: inguruneak, produktuak eta zerbitzuak, hauskortasuna balioesteko eta gaitasun funtzionala entrenatzeko, zahartze aktiboko prozesu batean, autonomia pertsonala eta osasun-mailak areagotzeko eta osasun-arretaren kostuak murrizteko edo kritikotasun-aldiak atzeratzeko. Zahartze aktiboan dauden herritarrei laguntzeko plataforma digital bat barne hartuko luke, autonomia pertsonala hobetzen laguntzeko gaitasunak, profesional sanitario eta soziosanitarioekin hitz egiteko bideak, administrazioaren zerbitzuak, etab. Hori guztia customer experiences eredu berrien arabera eta teknologia mugikorrak, IoT, Adimen artifiziala eta abar modu intentsiboan erabiliz. | 10,0 |

## Belaunaldien arteko Getxoko zentroa

13,3

Getxon belaunaldien arteko bizikidetzari lagunduko dion zentro berritzaile bat sortzea du helburu, adin desberdinetako pertsonak elkarrekin bizi daitezen, espazio komun horretan elkarri eraginez eta beren bizi-proiektuak garatuz, gizartean eta belaunaldien artean isolamendua saihestuz.



2. OSAGAIA

# Bizitza osoko ikaskuntza

## PRESTAKUNTZA-EREDUAREN DIGITALIZAZIOA

Teknologia digital aurreratuenak euskal hezkuntza-sisteman txertatzeko proiektuak bultzatzea.

| Euskadi Next Proiektua | Inbertsioa guztira M€ |
|---|---|
| **Informazioaren Analisia**<br>Hezkuntza-sistemaren eremuan informazioa kudeatzera bideratutako proiektuak. | 5,1 |
| **Ikasgela adimendunak**<br>Digitalizazioan beharrezkoak diren aurrerapenak barneratzen dituen ikasgela-eredu berri bat diseinatzeko eta ezartzeko proiektuak bultzatzea. | 76,0 |
| **Trebezia digitalak**<br>Hezkuntza-sisteman inplikatutako pertsonen trebezia digitaletan aurrera egiteko proiektuak bultzatzea. | 6,5 |
| **Lanbide Heziketa adimenduna garatzea. LH 5.0 zentroak**<br>Lanbide-heziketako kontzeptu digitalizatu eta aurreratu berri bat garatzeko proiektuak. | 20,9 |
| **Gailu digitalak**<br>**Ikasleei ordenagailu eramangarri bat ematea**<br>Ikasle guztiei ordenagailu eramangarri bat ematea. | 97,5 |
| **Hezkuntza-komunitateari konektibitatea ematea**<br>Ikastetxeei eta hezkuntza-komunitateari banda zabaleko konektibitatea emateko proiektuak, digitalizazioa errazteko. | 13,2 |
| **Energia garbiak**<br>Hezkuntza hobetzea eta energia garbiekin lotutako programa berriak. | 1,6 |
| **Fabrikazio adimenduna**<br>Industria-arloko lanbide-heziketako programak errazteko proiektuak bultzatzea, industria adimendunaren eta konektatuaren paradigmara egokitzeko. | 62,7 |
| **Digitalizazio jasangarrirako plan integrala eta sistema adimendunak euskal hezkuntza-sisteman**<br>Ikastetxeei digitalizazioa hezkuntza-eraldaketarako eta etengabeko hobekuntzarako palanka gisa erabiltzen lagunduko dien esparru digital berri bat bultzatu nahi du, bai Oinarrizko Hezkuntzan eta Batxilergoan, bai Lanbide Heziketan eta Unibertsitateetan. | 198,0 |

| | |
|---|---|
| **EAEko Lanbide Heziketan trantsizio berdea egiteko, pertsonak gaitzeko eta ETEen lehiakortasun jasangarriari laguntzeko plan integrala**<br>Proiektu honen helburua da pertsonek trantsizio berde baterantz behar dituzten gaitasunak garatzea, eta baita ETEei eta mikroETEei laguntzeko beharrezko jarduerak garatzea ere, lehiakortasun jasangarrirantz aurrera egin dezaten. | 3,1 |

## EKINTZAILETZA AURRERATUA BULTZATZEA

Euskal Autonomia Erkidegoko ekintzailetza-ekosistema aurreratua garatzea eta bultzatzea.

| Euskadi Next Proiektua | Inbertsioa guztira M€ |
|---|---|
| **Bizkaia Dorrea**<br>**Nazioarteko Ekintzailetza Zentroa sortzea**<br>Ekipamendu eta zerbitzu aurreratuak garatzea, enpresa-proiektuak, "Startup"-ak eta potentzial handiko korporazioak Euskadira erakartzeko eta lurraldea Europa hegoaldean erreferentziazko ekintzailetza-polo gisa posizionatzeko. | 36,0 |
| **LEINN Digital**<br>Proiektuak, nazioarteko ekintzailetza-komunitateen laguntza pertsonalizatua eta garapena ahalbidetuko duen plataforma digital bat sortzea bilatzen du (LEINN Digital twin). | 5,0 |
| **Zorrotzaurre Ekintzaile Gunea**<br>Proiektuaren helburua ekosistema ekintzaile bat sortzea da, hub bat, helize laukoitzak espazio bizi, fisiko eta birtual batean elkarreragina izan dezan. | 20,0 |
| **Donostia 1813**<br>**Enpresen ekintzailetza, berrikuntza eta eraldaketarako zentroa**<br>Zentro honen helburua Donostian ekintzailetzarako, berrikuntzarako eta enpresa-eraldaketarako erreferentziazko ekipamendu bat sortzea da. | 4,4 |

## HEZKUNTZA-AZPIEGITURAK HOBETZEA

Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-azpiegiturak hobetzea.

| Euskadi Next Proiektua | Inbertsioa guztira M€ |
|---|---|
| **EAEko ikastetxeetan hautemandako zaharberritze beharrak**<br>EAEko ikastetxeetan hautemandako botila-lepoak zuzentzeko proiektuak bultzatzea. 50 urtetik gorako eraikinak, arazoak dituzten estalkiak, eraikinen egiturak... berritzea. | 45,6 |

| | |
|---|---|
| **Hezkuntza Sailaren parte-hartzea Zorrotzaurreren birsorkuntzan (Bilbo)**<br>Zorrotzaurreko eraikin zaharrak eta abandonatuak birgaitzea, Hezkuntza Ikaskuntza eta Digitalizazio Zentro berriari, Arte Irakaskuntzen Goi Mailako Zentroari (Dantzerti), Zorrotzaurreko Ikastetxe Publiko Integratuari eta Lanbide Heziketako Zentroari lekua egiteko. | 46,0 |
| **Donostia Talent House 2, talentua erakartzeko zentroa**<br>Talentua hartzeko eta integratzeko (profesionalak eta ekintzaileak) zerbitzuen gune berria. | 12,0 |

## GAZTEEN AHALDUNTZEA

Gazteen garapen integrala bultzatzeko proiektuak, prestakuntza-gaitasun berriak emanez eta haien autonomia pertsonala eta soziala bultzatuz.

| Euskadi Next Proiektua | Inbertsioa guztira M€ |
|---|---|
| **Bizkaia 42. Eskola**<br>Apustu pedagogikoa da, enpresa txiki eta ertainak eta pertsonak trebatzen dituena, softwarearen, programazio informatikoaren, lanbide digitalen eta sare informatikoen arkitekturaren garapenaren eta sorkuntzaren arloan treba daitezen; hori guztia ikuspegi metodologiko batetik, gammifikazioaren eta “*Peer to peer*” izenekoaren (berdinen artean) bidez, irakaslerik gabe eta lankidetza ahalbidetzen duen espazio fisiko baten bidez. | 2,9 |
| **Elkar-Ekin Lanean**<br>**Kalitatezko enplegurako estrategia inklusiboa**<br>Proiektuak aurreikusten du, alde batetik, kalitatezko enplegua sustatzeko eta gizarte-egoera ahulean edo/eta baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak kontratatzeko neurri fiskalak aztertzea eta ezartzea, eta, bestetik, pertsonekin eta enpresekin egiten diren esku-hartzeak sistematizatzea, enplegagarritasun partekatua baloratzeko sistema bat definituta. | 90,0 |
| **Gazteak ahalduntzeko programa**<br>Helburua gazteen artean trebetasun bigunak (soft skills) garatzea da, pertsonei gaitasuna ematen dietenak beren ingurunean mugitzeko, beste batzuekin ondo lan egiteko, jarduera ona egiteko, trebetasun gogorrekin osatuta, beren helburuak lortzeko. | 1,4 |

3. OSAGAIA

# Energia berriztagarrien sorkuntza

## SORKUNTZA EOLIKOA BULTZATZEA

Energia eolikoa sortzera zuzendutako proiektuak bultzatzea.

| Euskadi Next Proiektua | Inbertsioa guztira M€ |
|---|---|
| **Aixeindar**<br>**2025erako Euskadiko garapen eolikorako jarduketa-plana**<br>5 parke eoliko eraikiko dira Euskadin: Iturrietako mendiak, Labraza, Azazeta, Arlabango mendiak eta Arkamo. Instalatu beharreko potentzia, guztira, 336 MW-koa da. | 270,0 |

## EGUZKI-ENERGIA FOTOVOLTAIKOA BULTZATZEA

Eguzki-energia fotovoltaikoa sortzeko proiektuak bultzatzea.

| Euskadi Next Proiektua | Inbertsioa guztira M€ |
|---|---|
| **EKIENEA**<br>**120 MWp-ko eguzki-planta fotovoltaikoa**<br>Arabako Armiñón udalerrian eguzki-instalazio fotovoltaiko bat eraikitzea eta ustiatzea, 120 MWp-ko potentzia instalatuarekin. | 90,0 |
| **Ekiola-Araba proiektua**<br>**Energia elektriko fotovoltaikoa kontsumo-komunitateetan sortzeko proiektua**<br>Irabazi asmorik gabeko kontsumitzaileen kooperatiba-erkidegoak sortzea proposatzen du, herritarrak kontsumo-komunitate gisa elkartzeko, beren sorkuntza-instalazioen titular izan daitezen, eta Araban energia-ekoizpen berriztagarri fotovoltaikoa sustatzea, 1MW eta 5 MW bitarteko instalazioetan.<br>**MDI ›** Erronka demografikoari eta despopulazioaren aurkako borrokari aurre egiteko trakzio-proiektuak<br>Tokiko komunitate energetikoak sustatzea, Covid19-aren aurrean ekonomia suspertzeko tresna gisa | 52,0 |
| **Bilbo, Hiri Jasangarria**<br>Proiektuak Bilbo hiriko energia-eredua eraldatzea proposatzen du, azpiegitura eta teknologia berriztagarri eta garbietan inbertituz (eguzki-energia, eolikoa, kudeaketa-eredu berriak garatuz eta arlo publiko-pribatuaren eta pribatu-pribatuaren arteko lankidetzarako eredu berriak garatuz). | 46,2 |
| **Energia garbiak bultzatzea, San Markosen eguzki-energia fotovoltaikoa sortzeko ekipamenduak instalatuz**<br>Energia berriztagarriak bultzatu nahi ditu, San Markoseko zabortegi zaharrean eguzki-energia fotovoltaikoa sortzeko ekipamenduak instalatuz, 10 MW-eko potentziarekin, eta $CO_2$ isuriak nabarmen murriztuz. | 12,0 |
| **Naturklima**<br>**Kooperatibak eta herritarren eguzki-komunitateak**<br>Eguzki-energiako kooperatiben eta komunitateen ezarpena sustatu nahi da. Herritar bakoitzak behar dituen panelen kopurua izango du, bere kontsumo-beharrizanen arabera. | 55,0 |
| **Naturklima**<br>**Komunitateak - eguzki-parkeak ezartzea Gipuzkoako industrialdeetan ETEentzat**<br>Garapen-eredu bat sortzea bultzatu nahi da, inbertsio horiek gauzatzeko lurralde-premiari eta industriak energia erosteko baldintza onuragarriak lortzeko duen beharrari erantzuteko eta inbertsio-eredu bankagarriak eraikitzeko zailtasunari aurre egiteko, horrek dakartzan segurtasun eta eskakizunengatik. | 7,5 |

## BIOMASAREN ETA BIOGASEN ENERGIA BULTZATZEA

Biomasaren eta biogasen energia sortzeko proiektuak bultzatzea.

| Euskadi Next Proiektua | Inbertsioa guztira M€ |
|---|---|
| **Biometanoaren garapena EAEn**<br>Proiektuaren helburua da hainbat iturritatik datorren biogasa garbitzeko eta aberasteko azpiegiturak ("*upgrading*") sustatzea, biometano bihurtzeko eta, ondoren, gas naturala banatzeko sarean injektatzeko edo garraiorako erregai gisa erabiltzeko (Gas Natural Behikularra - GNV). | 28,0 |
| **Biomasa duen elektrizitatea sortzeko instalazioa Lantaronen**<br>Basoko eta nekazaritzako zurezko materialak energetikoki balioztatzeko jarduketa. Instalatu beharreko potentzia, guztira, 20 MW-koa da. | 71,2 |
| **Hiri-hondakinen balorizazioa, hidrogeno berriztagarria eta com-posta sortuz Araban**<br>Proiektuak hiri-hondakin solidoak tratatzeko planta berri bat sortzea planteatzen du, balorizaziotik abiatuta hidrogenoa sortzeko. | 35,0 |
| **Naturklima**<br>**Hidrogeno berdearen estrategia, lurraldeko garraio publikoan bukaerako erabilera duen hiri-hondakin solidoen biogasetik abiatuta**<br>Biogasa hidrogeno bihurtzeko planta bat ezartzean datza. Instalazio horrek, era berean, $CO_2$ hartzeko eta biltegiratzeko planta izango du, eta baita dagokion hidrogeno-planta ere, erosiko diren hidrogenoko 5 autobus publiko berrientzat. | 16,0 |

## ERAIKINETAKO DISTRICT HEATING ETA ENERGIA-ERAGINKORTASUNA BULTZATZEA

District heating proiektuak bultzatzea eta eraikinen energia-eraginkortasuna bultzatzea.

| Euskadi Next Proiektua | Inbertsioa guztira M€ |
|---|---|
| **Monitorizazio zentralizatua eta energia-eraginkortasun arloko hobekuntzak** Donostiako Sustapenak kudeatutako zentroetan<br>Donostiako hainbat udal-eraikinen kudeaketa zentralizatua lortu nahi du, SCADA sisteman datuak Monito-rizatzeko eta Zentralizatzeko Tokiko Sistemak prestatzea barne, hala nola Pi@ eta Talent House eraikinetako klima-instalazioen egokitasuna eta eraginkortasuna hobetzea. | 0,8 |
| **Naturklima District Heating**<br>**Bero industrialaren aprobetxamendua hiriko bero-sare berriztagarri berrietarako**<br>Proiektuaren helburua hondakin-beroa berreskuratzea da, energia-eraginkortasuna hobetzeko eta energia berriztagarriz hornitzeko neurri gisa. | 12,0 |

| | |
|---|---|
| **Anoetako kirolgunerako District Heating bat egitea**<br><br>Biomasaren *District Heating* bat eraiki nahi da eskala handian, Anoetako kirol-gunea, eta bertan dauden eraikin publikoak barne hartuta, 4.000 tona $CO_2$ baino gehiago aurrezteko eta egungo energia berriztagarriaren kuotan ia % 30 lortzeko aukera emango lukeena. | 4,1 |

4. OSAGAIA

# Mugikortasun jasangarria

## ERREPIDEKO GARRAIOAREN ELEKTRIFIKAZIOA

Errepideko garraioaren elektrifikazio-prozesua bultzatzeko proiektuak.

| Euskadi Next Proiektua | Inbertsioa guztira M€ |
|---|---|
| **Ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuak ezartzea**<br><br>Garraio anbulantzia elektrikoen flotarako karga-puntuak instalatzea. | 1,0 |
| **Gasteizko hiri-autobus linea berria elektrifikatzea** | 7,1 |
| **Azpiegiturak egokitzea eta % 100 elektrikoak diren autobusak sartzea**<br><br>Azpiegiturak egokitzean eta 12 eta 18 metroko 53 autobus % 100 elektriko erostean datza, emisio kutsatzaileak eta energia-kontsumoak murrizteko. | 37,2 |
| **Bus Elektriko Adimenduna ezartzea Donostian eta plataforma eta azpiegitura garatzea**<br><br>Proiektuak autobusaren eraldaketa digitalerako prozesu bat aurreikusten du, plataforma teknologiko bat diseinatuz eta eraikiz, geldialdi adimendunak eginez, ordainketa-sistema unibertsal eta adimendunekin, eragiketa-sistemak eta birkarga-sistemak erabiliz, % 100 elektrikoak diren autobusak hornituz, % 100 elektrikoa den soluzio teknologikoa proposatu eta gauzatuz kablerik gabe, hornidura-puntuak diseinatuz eta eraikiz edo birkargatuz, zerbitzua etenik gabe eskaintzeko behar den autonomiari eustea ahalbidetuko duten soluzio teknologikoekin. | 56,5 |
| **Eskariaren araberako karga elektrikoko puntuen sare bat garatzea ibilgailu elektrikoentzat**<br><br>Proiektu honen bidez, Donostiako udalerrian partekatutako ibilgailu elektrikoak bultzatu nahi dira, hiriko hainbat eragileren bidez (aparkalekuak, hotelak...), errekuntza-motorrak dituzten ibilgailuen erabilera murriztuz, bai udalerriko biztanleen artean, bai bisitarien artean. | 2,9 |

| | |
|---|---|
| **Lurraldebus**<br>**Garraio publikoan sistema teknologikoak garatzea eta ezartzea**<br>Mugikortasun adimendun, ekologiko eta integraturako konektagarritasuna eta informazio-trukea bultzatuko ditu.<br>Informazioa, ordainbideak eta teknologikoki eguneratutako komunikazioak ustiatzeko laguntza-sistemak garatu eta ezarriko ditu, herritarrek hiriarteko garraio-zerbitzuari dagokionez egiten dituzten eskaera berriei kalitatez aurre egiteko. | 19,8 |
| **MUBIL**<br>**Lur arraroak berreskuratzeko eta iman iraunkorrak fabrikatzeko industria poloa, ibilgailu elektrikoentzako fabrikazio gehigarriaren – MAGMA bidez**<br>Europan erreferentziazko industria-jardueraren polo bat sortzea du helburu, lur arraroak berreskuratzeko, iman birziklatuetatik eta fabrikazio gehigarriaren bidezko iman iraunkorren fabrikaziotik abiatuta. | 33,0 |

## PARKE MUGIKORREN ELEKTRIFIKAZIOA ZERBITZU PUBLIKOAK EMATEKO

Zerbitzu publikoak hornitzeko ibilgailuen flotak elektrifikatzen laguntzeko eta bultzatzeko proiektuak.

| Euskadi Next Proiektua | Inbertsioa guztira M€ |
|---|---|
| **Hiri-hondakin solidoak biltzeko eta bide-garbiketako zerbitzuei atxikitako ibilgailuen flota berritzea, ibilgailu elektrikoak erosita**<br>Donostiako Udalaren proiektua, zerbitzu horiek ingurumenaren aldetik jasangarria izatea helburu duena, etorkizunean gas kutsatzaileen zero isurketaren helburura heltzeko. | 8,0 |
| **Udal Ibilgailuen Parkeko ibilgailuen flota berritzea, ibilgailu elektrikoak erosita**<br>Donostia hiriko zerbitzuei eta beharrei erantzuteko erabilgarri dauden 80 ibilgailuak ibilgailu elektrikoekin ordeztean datza, gas kutsatzaileen zero isurketaren helburua inplementatzeko. | 5,0 |

## BIZIKLETA BIDEZKO MUGIKORTASUNA BULTZATZEA

Bizikleta garraiobide jasangarri gisa bultzatzea.

| Euskadi Next Proiektua | Inbertsioa guztira M€ |
|---|---|
| **Bizikleta bidezko mugikortasun iraunkorraren plana**<br>Bizikletaz mugitzeko plan integral bat sustatzeko proiektuak. | 41,5 |

## TRENBIDE SAREA BULTZATZEA

Aldirietako trenbide sarea bultzatzeko proiektuak.

| Euskadi Next Proiektua | Inbertsioa guztira M€ |
|---|---|
| **5. linea: Sarratu (Basauri) -Galdakao eta Usansoloko Ospitalearen arteko trenbide lotura berria**<br>Euskotrenek ustiatutako 3. lineatik abiatuta, Sarratutik Galdakaoko hirigunera eta Usansoloko Ospitalera bidaiarientzako trenbide zerbitzuko hiru tarte emango dira, eta, ondoren, Usansolo inguruan Durangoko linearekin lotuko da.<br>MDI › MDI para ayuntamientos: Movilidad sostenible, segura y conectada en entornos urbanos y metropolitanos | 350,0 |
| **Trenbide azpiegituraren hiri-integrazioa Eibarren**<br>Trenbide segurtasuna hobetzea planteatzen du, trazadura estaltzearen eta alboko ezpondak egonkortzearen ondorioz, eta horrek zerbitzu-abiadura eta maiztasuna handitzea ahalbidetu behar du.<br>MDI › MDI para ayuntamientos: Movilidad sostenible, segura y conectada en entornos urbanos y metropolitanos | 20,0 |
| **Topoaren linea berria: Altza-Galtzalaborda tartea**<br>Funtsean, Irungo linean, Altza-Galtzalaborda tartean, topo linea berri bat egitean datza, Pasaia-Antxo erdialdean geltoki berri bat sortzeaz gain, Pasaia-Antxo inguruan trenbidearen hiri-integrazioa hobetuz.<br>MDI › MDI para ayuntamientos: Movilidad sostenible, segura y conectada en entornos urbanos y metropolitanos | 91,0 |
| **Naturklima**<br>**Errepide-azpiegituretan erabiltzeagatiko kobrantza kudeatzeko sistema aurreratuak ezartzea eta berritzea Gipuzkoako Lurralde Historikoan**<br>• Autobidearen erabiltzaileari igarotzeko arintasuna ahalbidetzea: berrikuntza teknologikoaren bidez, ezarri beharreko kobrantza-sistemek ibilgailua detektatu beharrik ez izatea ahalbidetuko dute, edo, gutxienez, hura minimizatzea, besteak beste, ordainlekuetako auto-ilarak saihestuz edo minimizatuz. Oztoporik gabeko igarobide-sistemen bidez ere, kamioiek ez dute zertan gelditu, erregaia aurrezteko, ibilgailua higatzeko eta garraioan eraginkortasuna izateko.<br>• Balio erantsi handiagoko lanak baimentzea: kobratzaile bakoitzak kabinan egiten duen kobrantza klasikoan ez bezala, balio erantsi handiko lanak egiteko aukerak sortzen dira, horietako asko teknologia-osagai handikoak edo zerbitzua ematekoak.<br>• Kobrantzan eraginkortasuna ahalbidetzea: kobrantza eraginkorrago baten bidez, kobrantzari lotutako kostuak murrizten dira, eta horien erabilera efizienteagoa ahalbidetzen da. | 32,1 |
| **European safe and secure truck pack network**<br>Bi aparkaleku eraikitzea, 505 plazarekin, Europako Batzordeak merkantzien garraiorako bultzatzen duen aparkaleku-sarea indartzeko. Horren guztiaren helburua, garraiolarien lan-baldintzak duintzea, errepideko garraioaren ingurumen-inpaktuaren segurtasunean, bideragarritasunean eta murrizketan inbertitzea eta merkantzien garraioaren inguruko eragileen elkarreragingarritasuna, intermodalitatea eta elkarreragingarritasuna da. | 18,0 |

| | |
|---|---|
| **Energia-eraginkortasuna Gipuzkoako Lurralde Historikoko errepideen foru-sarean**<br><br>Gipuzkoako Lurralde Historikoko bide-azpiegituren argiztapen-sistemak Gipuzkoako Foru Aldundiak kudeatzen dituen ondasunen energia-kontsumitzaile handienetakoak dira, eta administrazio horrek eskumen esklusiboa du lurralde horretan errepideen arloan. Proiektu honen helburua kontsumoa murriztea, eta, beraz, ingurumena gehiago errespetatzea, da. Errepideetako argiztapen-sistemetan erabili ohi den sodio-lurrunaren teknologia pixkanaka led argiztapen-teknologian oinarritutako sistemekin ordeztea barne hartzen du. | 18,3 |
| **Mass Transit Excellence Center**<br><br>Zentro berri honek ezagutza globalaren abangoardian jartzen du Euskadi elektromugikortasun- eta digitalizazio-teknologietan, eta espezializazio-eremuak ditu seinaleztapen-teknologietan, sistema integraletan eta EPKetan, adimen artifizialean, 5G komunikazioan, elektrifikazioan eta metatze-sistemetan, eta zibersegurtasunean. Esparru horretan, eta inplementazio-proiektu gisa, trenbidea digitalizatzeko eta seinaleztatzeko proiektuak landuko lirateke GoA2 eta GoA4 gidatze-sistemekin, eta baita azken belaunaldiko trenak erosteko proiektuak ere. Bestalde, autobusetan mugikortasun elektrikoko pilotuak garatzea aurreikusten da, Euskadin erregai-pilaren teknologia garatzeari garrantzi berezia emanez. | 650,0 |

5. OSAGAIA

# Digitalizazioa eta berrikuntza

## ADMINISTRAZIO DIGITALA

Administrazioaren digitalizazioa bultzatzea, haren eraginkortasuna, efizientzia eta gardentasuna hobetzeko.

| Euskadi Next Proiektua | Inbertsioa guztira M€ |
|---|---|
| **BUILD**<br>**Basque Urban Innovation Lab Districts**<br><br>Proiektuaren helburu orokorra hiri-azpiegituraren biki digital bat garatzea da, plataforma (Cloud) batean hainbat tresna eta funtzionalitate integratuko dituena, herritarrentzako zerbitzuak eta hiri-inguruneen/hirien kudeaketa, plangintza eta jardunaren jarraipena hobetzeko. | 13,5 |
| **Lanpostu Digitalaren hedapena**<br><br>Zerbitzu publikoak eta langileen esperientzia hobetzea bilatzen du, eta baita Eusko Jaurlaritzak eta haren sektore publikoak zerbitzu publikoa bermatzea ere, prozesu analogikoak dagozkien digitalekin ordezkatuz. | 112,9 |
| **Security First**<br><br>Segurtasuna monitorizatzeko eta balizko segurtasun-gorabeheren aurrean erantzuteko tresnak eta langileak eskura izatea errazteko proiektua, eta baita administrazio publikoetako erabiltzaileen nortasuna babesteko eta herritarrei zerbitzua ematen dieten webguneak era aktiboan babesteko aukera ematen duten tresnak izatea ere. | 45,2 |

| | |
|---|---|
| **Araba Smart Lurraldea**<br>**Arabako konektibitate digitala eta komunikabideetakoa**<br>Arabako lurraldeko konektibitate integral digitala areagotzea bilatzen duen proiektua.<br>**MDI ›** Erronka demografikoari eta despopulazioaren aurkako borrokari aurre egiteko trakzio-proiektuak | 18,0 |
| **Gasteiz-Araba Data Server (datAraba)**<br>Lurraldeko enpresei, ikerketa-zentroei eta erakundeei datuak biltegiratzeko eta prozesatzeko zerbitzu segurua eskaini nahi die, eta datuen subiranotasuna bermatu, ingurune teknologiko eta arautzaile berme-emaile eta fidagarri batean. | 8,5 |
| **Araba Digital 2026 Plana**<br>Arabako Foru Aldundiak sustatuta, Arabako administrazio publikoa eraldatzeko eta egokitzeko plan integrala izatea du helburu. | 49,7 |
| **Bilbo, Hiri Digitala**<br>Eraldaketa digitala bultzatzea proposatzen da, bai ekonomia digitalizatuaren esparruan jarduera ekonomikoa eta dinamismoa sortzeko, bai zerbitzu publikoak hobetzeko eta administrazio publikoa modernizatzeko, hiriko datuen analitikatik datozen aukerak eta eskarmentu handieneko erabiltzaile digitalen gero eta eskaera eta itxaropen handiagoak kontuan hartuta. | 117,7 |
| **Bizkaia GovTech Lab**<br>Bizkaiko Lurralde Historikoko administrazioa modernizatzeko eta digitalizatzeko programa bat da. | 45,5 |
| **Datu-biltegi partekatua**<br>**Datu-biltegi partekatu bat eraikitzea, analitika aurreratua egiteko eta herritarrei eta hainbat eragileri datuak irekitzeko**<br>Donostia hiriko trafikoa digitalizatzea eta monitorizatzea bilatzen duen datu-biltegia, edozein egoeratan espazio publikoaren erabilera arrazionalizatzeko balioko duten jarduketa puntual edo iraunkorrak aurreikusi eta planifikatu ahal izateko. | 0,5 |
| **Informazioko lurralde-aktiboak kudeatzea**<br>Euskadin erabilgarri dauden lurralde-aktiboen kudeaketa integral eta digitalerako proiektuak. | 0,4 |
| **Gipuzkoa Digitala**<br>Adimen artifiziala (AA) eta Gipuzkoa jasangarri eta aurreratu baterako digitalizazioa. Helburua da bai Foru Administrazioa bai Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalak eraginkortasunaren eta bikaintasunaren erreferente izatea beren prozeduretan, funtzionamenduan, gobernantzan eta herritarrentzako zerbitzuan, eta digitalizazioak eta AAk gizarte osoan duten garrantzi estrategikoa ikusaraztea. | 137,2 |

| | |
|---|---|
| **Prozeduren kudeaketa elektronikoa**<br>**Herritarrekin lotutako administrazio-prozesuak modernizatzea**<br><br>Donostiako Udalaren prozeduren kudeaketa elektronikoa errazteko proiektua, herritarrekiko interakzioan eta barne-prozesuetan, efizientzia eta eraginkortasuna hobetzeko. | 1,7 |

## ZERBITZU PUBLIKOEN DIGITALIZAZIOA

**Zerbitzu publikoen hornidura digitalizatzera bideratutako proiektuak, herritarrek zerbitzu horietara sarbide hobea izan dezaten.**

| Euskadi Next Proiektua | Inbertsioa guztira<br>M€ |
|---|---|
| **Arteder**<br>**Euskal Artearen Dokumentazio eta Azterketa Zentroa**<br><br>Proiektuaren helburua euskal artisten egungo datu-basea, ARTEDER, ezagutza-base bihurtzea da. Oinarri berri bat, eskuragarriagoa, intuitiboagoa eta elkarrizketakoa, artistei eta haien lanei buruzko ezagutza sortzeko gaitasuna izango duena. | 1,9 |
| **Eduki digitalak**<br><br>Goi-mailako eduki digitalak sortzea errazteko proiektuak. | 4,3 |
| **EAEn IOT azpiegitura hedatzea**<br><br>EAEko administrazio publikoa telekomunikazio-azpiegitura batez hornitzea bilatzen du, ur-kontagailu adimendunen telelaguntza jasotzeko, eta baita uraren sektoreko, hirietako eta eraikin adimendunetako beste sentsore mota batzuetarako ere. | 83,6 |
| **Euskadiko etxebizitzaren kudeaketa digitalizatzea**<br><br>Administrazioak izapidetze-instantzietan denbora eta kostua aurreztea, eta, gainera, ingurumena eta jasangarritasuna hobetzen laguntzea helburu duten 6 proiektu biltzen ditu. | 1,9 |
| **Ertzaintzaren eta Segurtasun Sailaren digitalizazioa**<br><br>Segurtasun Sailean eskuragarri dauden tresnak modernizatzea eta behar berrietara egokitzea proposatzen da, eta baita Larrialdien Euskal Sistemako agentzien arteko konektibitatea hobetzea eta larrialdietako aplikazioen mugikortasun-erabilera erraztea ere. | 11,5 |
| **Datu-gunea**<br><br>Estatuko Osasun Sistematik (OSN) datozen datuak biltegiratzeko, prozesatzeko eta era masiboan aztertzeko cloud plataforma bat diseinatzea eta martxan jartzea, jardunbide klinikoan eta ikerketan aplikatzeko.<br>Plataformak gune segmentatuak izango ditu autonomia erkidegoentzat, eta European Health Data Spaceko gainerako nodoekin elkarreragiteko prest egongo da. | 15,5 |

## Pazientearen omnikanalitate estrategia

10,0

Prozesu asistentzialetan gertatzen ari den eraldaketa sakonari erreparatuta, digitalizazioaren ondorioz, proiektuak pazientearekiko harremanari modu integralean heltzea planteatzen du, paziente aktibo eta ahaldunduaren rol berria bere gain hartuz. Azterlan horrek elementu teknologikoak, omnikanalitate-plataforma, pazientearen esperientzia edo analitika aurreratua hartzen ditu kontuan, eta baita eraldaketa-prozesuaren gobernu egokia bermatzen duten antolaketa-elementuak ere.

## NextEusBC-T
### Euskadi Basque Country Tourism Intelligence

68,2

Adimen zentro lehiakor bat sortzea Euskal Autonomia Erkidegoan turismoa kudeatzeko.

## Euskariana
### Euskadiko liburutegi digitala

2,9

Bere funtsak digitalizatzen jarraitu, eta herritarren eskura jarri nahi du.

## Kudeaketa digitala, mantentzea, logistika eta kudeaketa aktiboak

3,7

Osakidetzan aktiboak kudeatzeko sistema digital aurreratua ezartzearen helburuak honako hauek dira:

- Antolakundean aktiboak kudeatzeko prozesuak homogeneizatzea.
- Mantentze-lanetan erabiltzailearen esperientzia hobetzea.
- Mugikortasuna izatea mantentze-eragiketetarako.
- BIM (Building Information Modeling) metodologiarekin integratzea.
- Datuen analisi aurreratua izatea.
- 4.0 industriako funtzionalitateak izatea.

## Larrialdien Kudeaketa Adimenduna

3,0

Cloud plataforma digitala, azken belaunaldiko arkitektura teknologikoetan oinarritua. Adimen Artifizialaren eta analitiko aurreratuaren gaineko kudeaketa-gaitasunak sustatzen ditu, eta aukera ematen du gizarte- eta osasun-larrialdien sareko baliabide guztien kudeaketa adimenduna egiteko, bai publikoa bai pribatua, itxaronaldiak murriztuz, flotaren optimizatuz, langileen dedikazioa hobetuz, kostuak optimizatuz, kudeaketa- eta arreta-mailen jarraipena eginez, erabakiak hartzeko euskarria emanez, IoT teknologietan oinarritutako sistema automatizatuak sartuz, etab. Proiektu aitzindaria da, eta osasun- eta logistika-jardunbide egoki guztiak barne hartuko lituzke, eta zuzeneko eragina izango luke arreta-mailen hobekuntzan eta profesionalen eskura dauden bitartekoen optimizazioan.

## Osasun Historia Digitala

10,8

OHS Osasun Historia Digitala definitzea eta ezartzea egungo Historia Kliniko Elektronikoaren bilakaera gisa, 5P (Biztanleria, Prebentzioa, Aurreikuspena, Pertsonalizazioa eta Partaidetza) medikuntza berriaren esparruan, erabat digitala, nazioan eta nazioartean elkarreragingarria eta Herritarra/Pazientea ardatz duena, herritarren ongizatea, osasun-arretaren kalitatea eta lorpenaren eta neurketaren efizientzia hobetzeko helburuarekin.

## Irudi medikoa - Patologia Digitala

9,0

Irudi mediko bidezko Diagnostiko Prozesuen Eraldaketa Digitala (anatomia patologikoa, erradiologia, bularreko minbiziaren baheketa-kanpainak, oftalmologia, dermatologia, etab.), irudi bidezko diagnostiko-tekniken erabileratik eratorritako baliabideak (datuak, irudiak) eta emaitzak (txostenak, interpretazioa) behar bezala eta edozein lekutan osasun arloko profesionalen eskura jartzea ahalbidetuko duena, eta, aldi berean, horiek erabiltzea erraztuko duena, eta espezialistarik onenak eskuratzea, sistemaren eraginkortasuna handituz.

| | |
|---|---|
| **Adimen Artifiziala**<br>Irudi medikoan adimen artifizialeko algoritmoak sortzeko eta eraginkor bihurtzeko plataforma bat garatzea eta ezartzea.<br>Proiektuaren helburua irudi medikoan erabakiak hartzeko euskarri-sistema bat izatea da, ikerketak patologia bat izateko probabilitatearen arabera sailkatzeko.<br>Irudien biltegia, algoritmoen ostatatzea eta operatibizazio-plataforma laguntzeko azpiegiturak. Lizentziak. | 3,0 |
| **4.0 logistika**<br>Eredu logistiko bateratua definitzea osasun-sare osorako (ospitaleak eta lehen mailako arreta). Biltegia zentro logistiko bakar eta integratu batean robotizatzea barne hartzen du. | 48,9 |
| **Monitorizazio telematikoa, arnasketa-arazoak dituzten paziente kronikoen jarraipena egiteko**<br>Funtzionaltasunarekin erlazionatutako exekuzio-probak (proba fisikoak, oreka- eta mugikortasun-probak) Automatizatzeko eta Monitorizatzeko plataforma, arnas arazoak eta patologia kronikoak dituzten pazienteen telemonitorizazio-parametro klasikoekin integratuta.<br>Sistema hori teknologia digitaletan oinarritzen da, eta urruneko monitorizazio- eta arreta-plataforma berritzaile bat sortuko luke, guztiz berritzailea sektorean, eta erreferentziazko eredu bihurtuko litzateke paziente horientzat.<br>Erabiltzaileek plataforma hori modu intentsiboan erabiltzeak, mota horretako patologietara bideratutako baliabide teknikoak eta giza baliabideak optimizatzeko aukera emango luke. | 1,0 |
| **Justizia Digitalerako Plana (2021-2026)**<br>Proiektuaren helburua EAEko justizia-sistemak eta -tresnak teknologikoki modernizatzea da, benetako digitalizazioa lortzeko. | 37,5 |
| **Errehabilitazio-plataforma**<br>"*Rehabilitation Patient Journey*" (pazientearen esperientzia errehabilitazioan) definitzea, planifikatzea eta hobetzea, plataforma teknologiko global bat garatuz eta integratuz, eduki digital handiko teknologia berriak inplementatuz, oinarrizko funtzionalitate komun batzuk eskaintzeko eta errehabilitazioaren eremuko edozein ingurura eta konplexutasun-mailara egokitu daitekeen azpi-espezialitate bakoitzaren kontsulta, tratamendu eta jarraipen espezifikoa errazteko. | 10,0 |
| **Euskadiko museoetako produktuak eta zerbitzuak digitalizatzeko proiektua**<br>Museoak digitalizatzeko eskaintza bultzatzea bilatzen du, era guztietako jendearentzat eskuragarriagoak izan daitezen, eta museoetan gordetako erakusketen eta obren digitalizazioa bultzatu. | 2,9 |
| **Etxebizitza babestuen sustapenetan BIM metodologiaren bidez digitalizatzeko proiektuak**<br>Ekoizpen-denborak murriztea, energia aurreztea, etxebizitzen energia gehiago kontrolatzea, hondakinak murriztea eta Administrazioari kostuak aurreztea, eta herritarrei etorkizunean prezio hobeak ematea du helburu, bai erosketan bai alokairuan. | 0,2 |

| | |
|---|---|
| **Euskal Estatistika Erakundea (Eustat) Datu Adimendunen Euskal Bulegoa bihurtzea**<br>Ebidentzietan eta ebaluagarrietan oinarritutako erabakiak hartzea bideratu eta jasango duten tresna analitikoen diseinuan, garapenean eta ezarpenean erreferentziazko erakunde publiko bat sortzea du helburu. | 12,0 |
| **Osasun-zerbitzuen kudeaketaren eraldaketa digitala**<br>Eraldaketa digitaleko proiektuaren bidez, osasun-zerbitzuen kudeaketa-prozesuek ahalik eta euskarri digital zabalena izateko behar diren informazio-sistemak definitu eta ezarri nahi dira, informazio guztiaren eskuragarritasuna, datuen bateratasuna eta horien guztien integrazioa bermatzeko. | 14,0 |
| **Lanbide, Euskal Enplegu Zerbitzuaren eraldaketa digitala**<br>Lanbide modernizatzea du helburu, hainbat eraldaketa-jarduketaren bidez, antolaketa-gaitasunak, zerbitzuak definitzeko eta emateko gaitasunak eta kudeaketa-prozesuei aplikatutako digitalizazio-gaitasunak hobetzeko; bitartekotzarako, orientaziorako, prestakuntzarako, enpresentzako zerbitzuetarako eta DSBErako tresnak; eskatzailearen historia bakarra; eta pertsonei eta enpresei online arreta emateko kanala garatzea. | 5,3 |
| **Banda zabala Bizkaiko eskualde guztietara hedatzea**<br>Helburua landa-eremuen eta hiri-eremuen arteko eten digitala murriztea eta landa-inguruneko pertsonei eta enpresei aukera-berdintasuna eskaintzea da, banda zabal ultralasterreko sareak hedatuz "eremu zuri sortu berritzat (NGA)" hartzen diren Bizkaiko Lurralde Historikoko biztanleria-eremu sakabanatuetan. | 16,0 |
| **Iruzur fiskalaren aurkako Batuz proiektua**<br>Iruzur fiskalaren aurka borrokatzea du helburu, digitalizazioaren eta Adimen Artifizialaren bidez; horretarako, tresna teknologiko berriak ezarriko dira fakturazio-sistemetan, eragiketa ekonomikoen erregistro-liburu bat egoitza elektronikoan eramateko betebeharra ezarriko da, eta Bizkaiko Foru Ogasunak aitorpenen zirriborroak jarriko ditu zergadunen eskura, beren zerga-betebeharrak betetzen laguntzeko, besteak beste. | 33,8 |
| **Simulazio aurreratuko prestakuntza klinikoko zentroa Donostia Ospitalean**<br>Simulazio klinikoko zentroak abangoardiako ekimenak dira, osasun arloko langileei ezagutza teorikoei eta trebetasun praktikoei buruzko prestakuntza emateko. Azken belaunaldiko teknologiaz hornitutako ingurune simulatuetan klaseak emateak honetarako aukera ematen die osasun-arloko profesionalei:<br>• Jardunbide klinikoaren hobekuntzan eta estandarizazioan aurrera egitea.<br>• Trebetasun praktikoak eskuratzea.<br>• Akatsak minimizatzea eta pazienteen segurtasuna handitzea.<br>• Arazo eskalagarrietan lan egiteko eta estrategiak lantzeko aukera ematen du.<br>• Neurrira egindako ebaluazioa ahalbidetzen du (adib.: Prestakuntza Sanitario Espezializatua).<br>Definizio handiko simulagailuen bidezko prestakuntza errealitate bat da jadanik nazioartean eta estatuan. | 5,8 |
| **Adimen artifizial aurreratuan oinarritutako City-Lab bat sortzea - MIT MEDIA LAB**<br>Gipuzkoan eta Donostian City-Lab bat sortzea du helburu, MITen Media-Lab sarearen parte izateko. | 1,6 |

## Trunking komunikazio-sistemen digitalizazioa

1,2

Horren helburua, dagoeneko zaharkituta dagoen eta Gipuzkoako Foru Aldundiko larrialdi-zerbitzuak erabiltzen duen trunking-sare analogikoa digitalizatzea da, eta haren ordez DMR sarea jartzea.

## DTKren kudeaketa-sistema digitalizatzea

2,6

Donostiako garraio publikoa kudeatzeko sistemaren digitalizazioan zentratua.

## Donostiako udal artxiboko dokumentu-ondarearen funtsak digitalizatzea eta indexatzea

9,0

Donostiako Udal Artxiboko funtsak digitalizatzea du helburu.

## Donostiateka-Donostiako Liburutegi Nagusia

1,7

Liburutegia erabat berritzea du helburu, Donostiako liburutegi-sare osoaren bihotza eta motorra izaten jarrai dezan, baina ikuspegi estrategiko erabat digitalarekin.

## Donostian urruneko irakurketa bidez ura hornitzeko eskuragarri dauden baliabide hidrikoen kudeaketa digital aurreratua

12,7

Helburua erabiltzaile bakoitzarengan etengabeko neurketa-ekipo bat ezartzea da, ur-kontsumoa erregistratzeko eta kontrol-zentral batera ordu-maiztasunez transmititzeko. Lortutako datu horiek, gainera, adimen artifizialeko parametroen arabera tratatuko dira, uraren kudeaketa egokia eta eskariaren araberakoa izan dadin.

## Telekomunikazio-azpiegiturak

### Bizi-kalitatea eta gizarte-kohesioa hobetzeko eta lurraldearen lehiakortasuna eta ekonomia-ehuna hobetzeko

5,6

Helburua Donostiako telekomunikazio-azpiegiturak garatzea da, hainbat arlotan jarduketak eginez, hala nola:

- Sare publikoen inbentarioa garatzea.
- Telekomunikazioak ezartzeko plan bat garatzea.
- Operadoreek azpiegiturak eta sareak erabiltzea ahalbidetuko duen kudeaketa-eredu bat definitzea.
- Sare publikoen inbentarioa gauzatzea eta argitaratzea.

## Naturklima

### Sare sentsorialaren ezarpena airearen kalitatea digitalizatzeko

1,5

Donostian eta Irunen. Proiektu honek, erabakiak hartzen laguntzeko sistema bat elikatuko duen hiri-inguruneetako airearen kalitatea denbora errealean eta bereizmen espazial handian monitorizatzeko sistema bat garatzea proposatzen du.

## Trafikoa kontrolatzeko eta lurpeko aparkalekuetara gidatzeko sistema

5,4

DATEX II standard europarra ezartzea trafikoa kudeatzeko zentroan, Donostiako hiriko trafikoa digitalizatu eta monitorizatzeko, edozein egoeratan espazio publikoaren erabilera arrazionalizatzeko balioko duten jarduketa puntual edo iraunkorrak aurreikusi eta planifikatu ahal izateko.

## DBUSeko azpiegituretan sentsorizazio eta automatizazio bidez modu autonomoan gidatzeko sistemak

**1,6**

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak Donostia hiriko garraio publikoan integratzea bilatzen du, zerbitzua hobetzeko:

- Maniobrak murriztea kotxetegietan.
- Garraioz aldatzeko denborak murriztea geldialdi artean.

## Kursaal, Smart Venue

### Kongresu Jauregiaren eta Auditorioaren energia-eraldaketa eta digitalizazioa

**4,3**

Besteak beste, Kursaal Zentroa digitalizatzea bilatzen du, 4K teknologia-ekitaldi hibridoak sartuz.

## ITS ekipamendua berritzea eta handitzea foru-sareko errepideetan

**55,5**

ITS ekipamendua arian-arian berritzea, eta errepideko garraioaren sektorean garraio-sistema adimendunak ezartzea eta beste garraiobide batzuekiko interfazeetarako esparrua ezartzen duen 2010/40/EU Zuzentaraua betetzea ahalbidetuko duten informazio-sistemak hobetzea.

# ETEEN DIGITALIZAZIOA

ETEak mundu digitalean sartzen laguntzeko proiektuak.

| Euskadi Next Proiektua | Inbertsioa guztira M€ |
|---|---|

## ETEak digitalizatzeko estrategia integrala

**50,0**

EAEko ETEetan digitalizazio aurreratua bultzatzeko proiektuak bultzatzea.

## Euskadiko kultura- eta sormen-industrien trantsizio teknologikorako KSITek programa

**1,8**

Transferentzia teknologikoa eta digitalizazioa sustatzeko programa, sorkuntza- eta kultura-industrietako (SKI) enpresak helburu hartuta.

## SZN-TEK Programa

### Euskadiko arte eszenikoen sektoreko prozesuak digitalizatzeko programa

**0,8**

Arte eszenikoetako sorkuntza-prozesuak digitalizatzea, ondoren arte eszenikoen negozio-ereduetara egokitutako balio-kate osoa (sorkuntza, ekoizpena eta erakusketa) kudeatzeko tresnen aurretiko urrats gisa.

## nextKOMM.eus

### Euskal Merkataritza eraldatzeko proiektua

**75,0**

Euskal saltokiak digitalizatzeko proiektuak bultzatzea.

| | |
|---|---|
| **Arabako Errioxako ardoaren Ekonomia eta Kulturaren Bikaintasun Zentroa**<br><br>Arabako Errioxan, ardoaren ekonomiaren eta kulturaren esparruan (mahastizaintza, enogastronomia, enoturismoa, ondarea eta ardoaren eta mahastiaren kultur paisaia) bikaintasunaren erreferente izan nahi duen zentro berri bat abian jartzea.<br><br>Nortasun propioa eta nazioko eta nazioarteko aintzatespena duen zentro bat, Arabako Errioxa bikaintasuneko eta helmuga enogastronomikoko mahastizaintzako eta ardogintzako eskualde gisa garatzea eta proiektatzea sustatuko duena, prestakuntzaren, ikerketaren, berrikuntzaren, ekintzailetzaren sustapenaren, enpresa- eta sektore-lehiakortasunaren euskarriaren (besteak beste, Arabako Errioxako ardoaren "bikaintasun-zigilua" merkaturatzen eta funtzionatzen laguntzea barne), sustapenaren eta nazioartekotzearen bidez, ardoaren ekonomia-balioaren inguruan. | 7,2 |
| **Tokiko merkataritzaren digitalizazioa**<br><br>Bizkaiko merkataritzaren omnikanalitatearen garapena eta digitalizazioa babestea helburu duen proiektua, lurraldean dauden sektoreko elkarte eta eragile nagusiak barne hartuz. | 5,3 |
| **Turismoaren digitalizazioa**<br><br>Bizkaiko lurraldeko turismo-sektoreko enpresak digitalizatzeko bultzada indartzea bilatzen du, enpresak trakzionatzeko gaitasuna duten bi proiekturen bidez; hau da, jasangarritasun-printzipioak barne hartzen dituen turismo-adimeneko sistema edo plataforma bat diseinatu eta abian jartzea, eta, bestetik, enpresen digitalizazioa, bereziki transakzioak, bultzatzea, Bilboko Erreserba plataforma sortuz. | 3,0 |
| **ETEen digitalizazioa**<br><br>Bizkaiko Lurralde Historikoko ETEei oinarrizko digitalizazioaren, digitalizazio aurreratuaren edo/eta ekonomia berdearen eremuko proiektuak identifikatu eta lehenesteko planak garatzen laguntzeko laguntza-programa da. | 10,3 |
| **Berrikuntzaren eta ekintzailetzaren ekosistema gastronomiaren balio-katean**<br><br>Basque Culinary Center buru dela, Euskaditik gastroelikadura-katearen inguruko ekosistema bat sortzea proposatzen da, espezializatuagoa, jasangarriagoa, digitalagoa, irekiagoa eta lankidetzakoagoa izango dena, eta balio-kate osoan talentua, ezagutza, berrikuntza eta ekintzailetza sustatuko dituena. | 19,3 |
| **Donostiako Elikadura Estrategia**<br><br>Donostiako elikadura-estrategia egitea eta abian jartzea aurreikusten du, Udaleko sailak, erakundeak eta elikagaien hornikuntzan, kontsumoan eta banaketan parte hartzen duten eragileak koordinatuz, eta baita herritarrak ere. | 7,5 |
| **Inbertsioa: E-Labs**<br>**Industria-eraldaketa jasangarrirako berrikuntza**<br><br>Industria-dibertsifikazioko proiektuak asmatzera eta garatzera eta industria-jarduera berriak sortzera bideratutako zentro bat sortzea du helburu. | 21,7 |

## Enpresa Kultura Berriaren Fabrika

6,5

Gipuzkoako Lurralde Historikoko enpresen kultura-eraldaketarako berariaz diseinatutako errendimendu handiko lehen zentroa sortzea bilatzen du, kultura berri baterantz, enpresa konfiantzan oinarritutako proiektu partekatu bat izan dadin, ingurune digitalean lehiakortasuna eta iraunkortasuna areagotzeko.

## Eibarko parke teknologikoa handitzea

15,4

Gaitasun eraldatzailea, ekonomia eta enplegua sortzen duten enpresetarako espazio bat garatzea, lanpostuei kalitate handiagoa emanez. Enpresa berriak sortzen laguntzea, digitalizatuta dagoen eta gaitasun propioarekin diseinatu eta garatzeko gaitasuna duen *High Tech* produktu propioarekin. Espazio teknologiko horiek lurralde historikoetan eta Debabarreneko eskualdean banatu behar dira, eskualdeen arteko alde ekonomikoa ez handitzeko.

## Smart Kalea

0,9

*Smart* inplementazioen proiektu pilotua, eredu hori testatzeko eta balioztatzeko, beste eremu geografiko batzuetara hedatzeko eta Donostia hiria Smart erreferentzia-puntu bihurtzeko. Zehazki, herritarren, enpresen eta negozioen bizi-kalitatea hobetzea du helburu, IKTen erabilera zabalari eta ingurumena eta baliabideak zentzuz erabiltzeari esker.

## Lehen sektorearen eraldaketa teknologikoa

21,5

### Eraldaketa teknologikoa, landa-eremuko eten digitalaren aurkako estrategia eta Gipuzkoako lehen sektoreko ekonomia. Landa- eta natura-ingurunearen kudeaketa jasangarria

Gipuzkoako landa-ingurunean eten digitala estaltzeko proiektuak bultzatzea, balio erantsi handiagoko jarduerak garatzea eta lurraldearen balioa nabarmentzea errazteko.



## ERAIKINEN BIRGAITZE JASANGARRI ETA ADIMENDUNA

Eraikinak birgaitzeko proiektuak garatzen laguntzea, jasangarritasun-irizpideen arabera.

| Euskadi Next Proiektua | Inbertsioa guztira M€ |
|---|---|
| **Jasangarritasun Energetikoaren Legea (4/2019 Legea) Euskadiko administrazio publikoetan aplikatzea**<br>Proiektu honen bidez, Iraunkortasunari buruzko Legea bete nahi da, energia-eraginkortasuneko neurriak bultzatuz eta energia berriztagarriak ezarriz EAEko administrazio publiko guztietan. | 435,5 |
| **EAEko alokairuko etxebizitza sozialen parke berriaren elektrifikazio berriztagarria**<br>Proiektu honen bidez, VISESAk sustatutako etxebizitza sozial berriko eraikin guztietan (1.003 etxebizitza) hornidura termikoa (ur bero sanitarioa eta berokuntza) elektrifikatzeko eta eguzki-panel fotovoltaikoen bidezko in situ ekoizpen berriztagarria ahalbidetzeko instalazioak jarriko dira. | 23,6 |
| **Osakidetzan energia berriztagarriak ezartzea bultzatzea**<br>• Energia berriztagarriko biomasa-galdarak instalatzea.<br>• Energia iturri berriztagarrien bidez ekoizteko plaka fotovoltaikoak instalatzea.<br>• Beren egoerarengatik biomasa ezartzea ezinezkoa den instalazioak berritzea eta instalazio modernoago eta eraginkorragoak jartzea. | 20,0 |
| **Etxebizitzak eta eraikinak birgaitzeko finantza-tresna berezia. Etorkizuneko berme errealarekin bermatutako maileguak**<br>Finantza-tresna berritzailea da, eta mailegu estandarizatuak ematea du helburu, baliabide gutxiago dituzten pertsonek bizileku-kalitatea bermatzeko beharrezkoak diren birgaitze-jarduerei ekin ahal izateko. Mailegu bermatuak eskuratzeak zuzeneko laguntzak eskuratzeko aukera osatzen du, itzuli beharrik gabeko diru-laguntzen bidez.<br>Laguntza horien helburua birgaitze babesgarriko jarduerak erraztea da, intentsitate erlatibo handiagoarekin, esku-hartze motaren eta onuradunen baldintza sozioekonomikoen arabera. | 18,0 |
| **Euskadiko ikastetxeetan energia-eraginkortasuna hobetzea**<br>Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan energia-eraginkortasuna hobetzeko proiektuak bultzatzea. | 10,5 |
| **Instalazioen monitorizazioa**<br>Eusko Jaurlaritzak 2019an argitaratutako Jasangarritasun Energetikoari buruzko Legea betetzeko beharrezkoa da eraginkortasuna sustatzeko estrategietan aurrera egitea, eskaria eta kontsumoa murrizteko eta teknologia berriztagarrien aldeko apustua egiteko.<br>Eskariaren eta kontsumoaren murrizketan ezarritako helburuak lortzeko estrategia horiek osatzeko oinarrietako bat sistema eraginkorrak izatea da.<br>Horretarako, sistema horiek, datuak biltzeko, transmititzeko, erregistratzeko eta prozesatzeko gaitasuna duten kontrol integratua izan behar dute, ondoren sistema adimendunen bidez tratatzeko, instalazio horiei atxikitako energia-kudeaketaren arduradunek erabaki egokiak har ditzaten estrategiak behar bezala definitzeko eta konfiguratzeko, instalazio horien energia-eraginkortasuna hobetzeko. | 24,0 |

| | |
|---|---|
| **Zero Plana**<br>**Eusko Jaurlaritzaren alokairu-parke publikoa deskarbonizatzea eta digitalizatzea**<br>Plan honen helburua, Euskadiko alokairuko etxebizitzen etxebizitza-parke publikoaren energia-eraginkortasuna hobetzea eta 2050ean parke horretako eraikinen % 100ean energia-kontsumo ia nulua lortzea da. | 30,7 |
| **Renove Birgaitze Programa**<br>Etxebizitzen eta bizitegi-eraikinen birgaitze integralerako Renove Programa, enplegua sortzeko aukera gisa ulertuta, etxebizitzak eta eraikinak modu jasangarrian eta integratzailean birgaitzeko laguntzen urteko aparteko linea bat da. | 165,3 |
| **Instalazioak berritzea Osakidetzako instalazio eraginkorragoetarako**<br>• Basurtuko Ospitaleko instalazio termiko guztiak berritzea, araudira egokitzeko eta eraginkorragoak izateko.<br>• Instalazio elektrikoen berrikuntza korporatiboa, modernoak eta era telematikoan kontrolatuak egiteko.<br>• Osakidetzako eraikinen inguratzailea berritzea, eraikin jasangarriagoak lortzeko. | 41,5 |
| **LED argiztapena berritzea eta argiztapena kontrolatzea / Instalazioen kontrola eta sentsorika korporatiboa**<br>Erakundeko argiak berritzea, eta kontrol-sistemak jartzea, modu eraginkorrean kudeatzeko.<br>Osakidetzak bere instalazioak egoki eta eraginkortasunez kudeatzeko kontrol-sistemak ezartzea, eraikin jasangarriagoak lortzeko. | 30,0 |
| **ZeroCO2Gune**<br>**Eraldaketa digitala $CO_2$ emisio zero duten auzoetako energia-birgaitzeetan**<br>Tecnaliak gidatuta, metodologia efizienteagoa eta energia-efizientzia handiko birgaitze-soluzio berritzaileak eta sektorerako eraldatzaileak estandarizatzera dago bideratuta, eraikinen tipologia zabal batean erreplikagarritasuna bermatzeko. | 15,5 |
| **DH Koroatzea**<br>**Vitoria-Gasteizko udalerrian baso-biomasa erregai gisa erabiltzen duen bero-sarea**<br>Proiektu honen helburu nagusia karbonoan neutroak diren hiriak sortzeko erreferentziazko jarduketak garatzea da. Horretarako, hainbat jarduketa ezarri dira:<br>• Auzoko energia-eskaria murriztea eta erregai fosilen ordez energia berriztagarriak erabiltzea.<br>• Etxebizitzen bizigarritasuna eta erosotasun-baldintzak hobetzea.<br>• Energiaren fakturan aurreztea; eta auzotarren parte-hartzea sustatzea proiektuaren definizioan. | 2,7 |
| **Geotermia**<br>**Klimatizazioko Hiri Sistema (KHS) Zorrotzaurren**<br>Truke-sistema geotermiko/hidrotermiko bat proposatzen du, oso tenperatura baxuan ur-sare bat ezarriz, Bilboko Zorrotzaurre uharteko eraikin bakoitzean instalatu beharreko bero-ponpetan erabiltzeko, berokuntza, hozte eta ur bero sanitarioa lortzeko. | 8,0 |

## Donostia Mugikortasun adimenduna eta jasangarria

16,0

Integrazio-prozesu batean oinarritzen da, alde batetik, Donostiako erdigunea (500.000 $m^2$) zamalanetako jardueraetatik askatuko duena, eta eragin berezia izango duena hazkunde esponentzialeko online salmentan edo banaketan, eta, bestetik, gailuak IoT plataforma baten bidez integratuko dituena, sentsorikaren eta hainbat saretako beste iturri batzuen interpretazio egokia erraztuko duena analitika aurreratua garatu ahal izateko.

## Pasaiako hiri-berroneratzea / Ospitaletxoa

49,0

8.797 $m^2$-ko eremu bat berroneratzean datza, zenbait ekipamendu eraikiz, hala nola lurpeko aparkaleku bat eta zahartzearen erreferentzia-zentro bat.

## Miramar Jauregiaren birgaitze integrala

5,5

Proiektua Miramar Jauregian (XIX. mendekoa) zenbait esku-hartze egitean datza, eraikin inklusibo, jasangarri eta aro digitalera egokitutakoa bihurtzeko, aldi berean ordezkatzen duen ondare historikoa errespetatuz.

## Lurzoru kutsatuak konpontzea Altza auzoko hiri-berroneratzerako

1,0

Proiektu honen barruan, Altza auzoko 4 lurzati leheneratzea sartzen da. Bertan, lurzoru kutsatu ugari daude, fibrozementu-fabrika zahar baten jardueraren ondorioz.

## Naturklima

### Foru eraikin eta instalazioetan energia-hobekuntzak egiteko jarduera plana

48,0

Proiektuaren helburua foru-eraikin eta -instalazioetan energia-eraginkortasuna hobetzea da, Administrazioan 0 isuriko eraikinen aldeko apustua eginez.

- $CO_2$ emisioak eta osasunerako kaltegarriak diren emisioak murriztea.
- Foru-eraikin eta -instalazioetan energia-iturri berriztagarrien erabilera handitzea.
- Energiaren kostua murriztea.

## Errepideen foru-sareko trafikoek eragindako kutsadura akustikoa murriztea

15,3

Errepidearekin muga egiten duten eremuetako zarata-indizeak murriztea. Horretarako, jarduketa-plan bat egin da, metodo kuantitatiboen bidez egin beharreko inbertsioen eraginkortasunari lehentasuna emanez.

## Ingurumena leheneratzea eta Gipuzkoako saneamendu-sarea hobetzea

73,1

Duela lau hamarkadatik egiten ari den Gipuzkoako Saneamendu Sarea garatzen eta hobetzen jarraitzea.

- Batzuetan sare orokorretik isolatuta dauden eta oraindik sare orokorrarekin lotura zuzenik ez duten biztanlegune garrantzitsuen saneamendu egokia bermatzea.
- Kasu batzuetan, saneamenduaz gain, hornidura bermatzea ere bada helburua. Horrek guztiak ingurumenaren eta osasun publikoaren hobekuntza nabarmena ekarriko du.
- Batez ere landa-eremukoak diren populazioak eta, kasu askotan, iristeko zailak direnak sarean sartzea da helburua, baina baita hiri handiagoak eta hiriburua ere.
- Horietako batzuk, adibide moduan: Itsaso, Amezketa, Nuarbe, Donibane, Mendaro, Errezil, Lezo, Aia, Ataun, Donostia, etab.

## HIRIKO AZPIEGITURA AURRERATUAK

Pertsonentzat erakargarriak eta ingurumena errespetatzen duten hiriak antolatzeko azpiegitura aurreratuen garapena bultzatzea.

| Euskadi Next Proiektua | Inbertsioa guztira M€ |
|---|---|
| **Araba Sport Capital**<br>Prestakuntza aurreratuko, ikerketako eta ekintzailetzako *Hub* publiko-pribatua bat garatzea Araban eliteko kirolarekin, osasunarekin eta teknologia berriekin erlazionatutako gaietan, Alavés S.A.D. eta Baskonia, S.A.D.-ren partaidetzarekin. | 64,0 |
| **Zorrotzaurreko parke teknologikoa garatzea eta martxan jartzea**<br>Berrikuntzaren eta hirigintzaren arloan proiektu garrantzitsua izan nahi du, eta bertan lan egin, prestatu, bizi eta gozatzea bilatzen du, Berrikuntzaren Hiri-Barrutia (DUI) bihurtuz. | 20,8 |
| **Guggenheim Gernika**<br>**Guggenheim Bilbao Museoaren hedapen berdea**<br>Bizkaiko Foru Aldundiaren proiektua da, eta kultura, ekonomia, industria-jarduerak degradatutako lurzoruak berreskuratzea eta paisaia eta ingurumena errespetatzea bultzatzen ditu, ikuspegi erabat abangoardista batetik. | 127,0 |
